Ezin izango da inola ere lur-zatikapen burutu, dagokion sektoreko araudiak babestuta egon arren, ondorioz bere landa-izaeraren eraldaketa ekartzen duenean.

2. Mota honetako lurzoruan hirigintza-lurziketa oro legeaz kanpokoak izango dira.

Lurziketa bat hirigintzazkoa dela ulertuko da, finka nagusi batean urbanizazio-obra burutzen direnean, lurra lotetan azpizitatzen denean edo hirigune bat era dezakeen eraikuntza burutzen denean.

3. Era berean, lurziketa bat hirigintzazkoa dela ulertuko da, gutxienez baldintza hauetariko bat betetzen duenean:

Bere banaketa, lurzati-forma eta eraikuntza-tipologia landa-xedeetarako desegokia izatea edo aurkitzen deneko zonan nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilgetarako lurziketarako jarraibide tradizionalekin bat ez etortzea; bereziki, emaitzazko loteak Arau hauek debekatutako eraikuntzarako bakarrik erabilgarriak izan daitezkeenean.

Sarbide komun eskusiboak edukitzea, hauek irudikapen kartografiko ofizialetan adierazita agertzen ez direnean, edo bere barruan ibilgailu-bide komunalak edukitzea, asfaltatuta edo trinkotuta, bi (2) metrotik gorako errodadura-zabalerarekin, espaloizintzarriak eduki nahiz ez.

Multzoarentzat ur edo energia elektrikoaren hornidurarako zerbitzuak edukitzea; edo saneamendu-sarea biltzea bakarrenekin; edo edozein zerbitzu herri-espazioetan zehar doanean.

Lurrei hirigintza erabilera emateko asmoa dagoela aditzera ematen duen eta argi eta garbi merkataritzarako den publizitatea dagoenean.

Lurziketa eta proiektuaren esleipena edo idazkuntza, edota lurretarako debekatuta dagoen hirigintza-erabilaren bat egiteko eraikuntzarako joera duten bestelako egintza pribatu edo administratiboen burutzapena garai berekoak izatea.

Hirigintza-xedearekin egindako lurziketa bat dagoela

modu isolatuan edo multzoan erakusten duen beste edozein egintza.

4. Lurzoru ez-urbanizagarrian legeaz kanpoko lurziketaren bat egonez gero, eska daitezkeen lizentziak ukatu egingo dira eta obra berehala geldiaraziko dira.

3.3.5. artikulua.- Hirigunearen definizioa

Lurzoru ez-urbanizagarriaren barneko hirigunetzat ulertzen da, hirigintza-zerbitzu komun eskariak edo beharrezko objektiboki sortzen dituen asentamendu oro, hala nola: ur-hornidurarako sarea, saneamendu-sarea, argiteria publikoaren sarea, sarbide-sistema, eta abar, hiri-destinoak duten areen bereizgarriak alegia, edo bestela 3.3.4. artikuluan 3. atalean zerrendatzen den baldintzetariko edozein azaltzea.

Honez gain, hirigunea eratu dela ulertuko da, proiektatutako eraikinean zentratutako berrehun metroko erradio duen zirkulu batean hiru etxebizitza baino gehiago daudenean.

BIGARREN SEKZIOA: ERREGIMEN KOMUNEN LURZORU EZ-URBANIZAGARRIRAKO ARRAUAK

3.3.6. artikulua.- Definizioa

Basa-izaerako edo kalitate ertaineko larretarako nekazaritza-funtziotara destinatutako lurzorua dira, zeinen lehentasunezko destinoak beren egungo erabilpenaren jarraipena izan behar duen.

3.3.7. artikulua.- Erabilera-erregimena

1. Erabilera Baimenduak

Natur ingurunearen mantenimendua.

Beren ezaugarri bereziengatik hiri-perimetroan barne hartu ezin diren onura publikoko edo gizarte-intereseko eraikinak edo instalazioak, beren izaera kontuan izanik nahitaez natur ingurunean kokatu behar direnean bakarrik. Hauen baimena Hirigintza Kudeaketarako Erregelamenduen 44.2. artikuluan ezarrita dagoen prozeduraren bitartez tramitatuko da.

Erabilera eta jabari publikoko landabideak.

Ingurunearekin bateragarriak diren hotel eta turismo ekipamenduak, halakotzat ulertuz aldibaterako ostalua asetzera destinatutako jarduerak, turismo kanpamenduak, eskola-zentro eta -koloniak, nekazal turismoa eta antzekoak, zeinen erregulazioa dagokion legeriara igortzen den.

Egoitza-erabilera, ezartzen diren mugapenekin, eta betiere ez badu hirigune bat sortzen, eta nekazaritza- eta abeltzaintza-ustategi baten barruan badago eta beronen garapenerako beharrezkoa baldin bada.

Nekazaritza eta abeltzaintzako edo baso izaerako



industriak, natur baliabide baten ustiapenera zuzenean lotetsiak, 10.000 m²ko gutxieneko lurzatia, %3ko gehieneko okupazioa, edificabilidad máxima de 0,01 m²/m²ko gehieneko eraikigarritasuna, 2 oin eta 8 m-ko gehieneko altuera eta edozein eraikinetik muga eta erreketara 15 m-ko gutxieneko separazioarekin.

Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak, horrelakotzat ulertuz nekazaritza estentsiboa, lurgintza esperimental edo bereziak, estalki gabeko edo negutegi barruko baratzezaintza eta lorazaintza; animalien hazkuntza eta zaintza estabulazio-erregimenean edo erregimen librean, eta jarduera hipikoak, bai eta antzeko bestelako edozein.

2. Erabilera debekatuak:

Baimendu gisa zehaztuta ez dauden gainontzeko erabilera debekatuta geratzen dira.

Espresuki debekatzen dira etxebizitza higikorren asentamenduak, hala nola karabanak, rulotak eta abar.

Automobilien despiezaketarako establezimenduak espresuki debekatzen dira. Gaur egun automobilien despiezaketara dedikatzen diren establezimenduak, nekazaritzako jardueren barruan sartu ezin den eta beraz baimendu gabea den jarduera denez, erregimen iragankor bati loturik egongo dira, eta era honetan desagertzen ez den bitartean, edozein kasutan Plan Orokorraren behin betiko onepenetik kontatzen hasi eta gehienez ere bi urteko epean gertatuko den gertakaria, jarduerara destinatzen den espazioa hosto iraunkorreko zuhaitzekin eratutako hesi berde batekin inguratu beharko dute nahitaez, biltegitratuta dauden produktuak ikus ez daitezen eran. Landaketa-proiektuak dagokion udal lizentzia jaso beharko du.

3.3.8. artikulua.- Eraikuntzaren erregimena

Lurzoru-mota honetan baimendutako eraikuntza berriek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

1. Gutxienez 20.000 m²ko azalera duen lurzatian kokatu beharko da.
2. Egoitza eraikuntza familia bakarrekoa edo bikoa izango da, eta lurzati bakoitzeko bi etxebizitza baino gehiago ez dira baimenduko.
3. Lurzati gainean 0,025 m²/m²-ko gehieneko eraikigarritasuna ezartzen da, gehienez bi (2) oin (behe-oina barne) eta zazpi (7) metroko altuerarekin teiletegalaren behe-ertzera eta bederatzi (9) metrokoarekin gailurraren punturik altuenera, biak eraikinaren inguruan sei (6) metroko lerroan barne hartutako lurraren edozein puntutik neurtuta.

Eraikigarritasun honetan sestra gaineko azalera guztia barne hartuta egongo da, garaje-aparkamendura, lanabesetarako biltegi edo txabola eta abarretara destinatutakoa barne.

Estalkipean kokatutako azalaren aprobetxamendua baimentzen da, betiere lehen oinaren azalera eraikiaren ehuneko berrogei (%40) gainditzen ez badu.

4. Edozein mugarako gutxieneko separazioa hamar (10) metrokoa izango da, eta lurzatiaren azalaren ehuneko biko (%2) gehienekora arte okupatu ahal izango da.
5. Hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarrietatik gutxienez berrehun (200) metrora kokatu beharko da, errepideen legeria sektorialean ezartzen diren bide-sistematarako distantziak errespetatuz, hala dagokionean.
6. Eraikuntzak eta instalazioak kokatzen direneko landa-girora eta paisajera egokituko dira, eta inguratzen dituzten inguruarekin harmonikoak izan beharko dute bolumetria, material, akabera eta koloreei dagokienez.
7. 1945. urtea baino lehenago eraikitako familia bakarreko edo biko etxebizitzetako eraikinak, azalera eraikiaren ehuneko hogeita bost baino (%25) zabaldu ahal izango dira, betiere emaitzazko eraikinak aurreko baldintzak betetzen baditu, gutxieneko lurzatiaren baldintza salbu.
8. Nekazaritza-tresnak gordetzeko txabolak. Nekazaritza-tresnak gordetzeko txabolak Lurzoru Ez-urbanizagarrian kokatu ahal izango dira, betiere nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapen efektibo bati lotetsita badaude, eta honen azalera gutxienez nekazaritzako legerian ezarritako lurgintzako gutxieneko unitatearena baldin bada, ondorengo baldintza hauek betez:
 - a. Lur edo baratzaren dimentsioa gutxienez 300 m²koa izango da.
 - b. Mugetatik gutxienez 3 m-ko distantziara eta landabide edo bide publikoaren ertzetik 7,5 m-ko distantziara kokatuko da.
 - c. Txabolak dimentsio berdinekin eta material bereberekin eraikiko dira, hau da:
 - Oinplano angeluzuzena 2,5 x 4,0 m-rekin kanpoko kotetan.
 - Teila kurbatu edo lauaren estaldura bi isurkiko estalki inklinatuaren gainean, gailur zentratuarekin oiplanoaren alderik handienaren zentzuan, %30eko aldaparekin eta teiletegala perimetro osoan 40 cm. atereaz.
 - Eraikinaren altuera: Fatxada guztien altueren batezbestekoa 2,2 m-koa izango da, lurretik teiletegalaren trasdosera neurtuta.
 - Paramentuen fabrika zarpeatua eta kanpoaldera zuriz pintatua.
 - Baoetako arotziak berdez pintatuta.
 - d. Eraikuntzaren alderik handiena derrigorrez Ipar-



Hego norabidean orientatuko da.

- e. Egun dauden instalazioak araudi berrira egokitzeko epea gehienez bi (2) urtekoa izango da, Plan Orokorraren behin betiko onespeneraren egunetik kontatzen hasita.
9. Lurzatiaren itxiera lurzoru ez-urbanizagarrian eta urbanizagarrian behin betiko onetsitako Plan Partzialik gabe.

Lurzatiaren itxierak harriz egindako horma tradizionalarekin egin ahal izango dira (ezingo dira erabili material aurrefabrikatuak ez eta hormigoirik ere), betiere hormaren gehieneko altuera lurzatiaren kotaren gainetik 1,10 m-tik beherakoa baldin bada. 2,20 m-ra bitarteko itxierak baimenduko dira zurezko, alanbrezko (arantzarik gabe) eta hesolazko hesien bitartez, bai eta landarezko itxierak (palaxuak) ere, soilik edo aurrekoekin konbinatuta. Elementu hauek, landarezko palaxuak salbu, ikusmena argi eta garbi ahalbidetuko dute.

Itxiera metalezko hesien bitartez egiten bada, hauen gehieneko altuera 2,20 m-koa izango da, 0,5 m-ko gehieneko altuerako obra-oinarria eduki ahal izanik, eta edozein materialekin eginez.

Bide, errepide edo espazio publikoen alboan doazen lurzatiaren mugakideetan, Plan Partzialak aurkakoa erregulatzen duenean salbu, itxiera honako eran kokatuko da:

- a) 6 m-tik beherako zabalera duen errepide edo espazioaren ardatzetik 5,50 m-ra.
- b) 6 m-tik gorako zabalera duen errepide edo espazioaren ertzetik 2,50 m-ra, "ertz" gisa espaloiairen zintarria interpretatuz, eta espaloirik ezean, ur-bilketarako bazter-bidea edo, hori ezean, ibilgailuen galtzadarako zolatutako zonaren muga.
- c) Egun dauden itxierak araudi berrira egokitzeko epea gehienez bi (2) urtekoa izango da, Plan Orokorraren behin betiko onespeneraren egunetik kontatzen hasita.

HIRUGARREN SEKZIOA: LURZORU EZ-URBANIZAGARRIKO AUZOTEGIETARAKO ARAUAK

3.3.9. artikulua.- Definizioa

Nagusiki egoitza erabilera duten eraikuntzek guztiz edo partez okupatutako lurzoruak dira, aurrez zeuden taldeketak eratzen dituztenak eta planoetan barne hartzen direnak. Ondorengo hauek dira:

Zabalandi Auzotegia
Atxikorre Auzotegia
Etxerre Auzotegia
Finaga Auzotegia
Iruaretxeta Auzotegia
Lapatza Auzotegia

Luzarre Auzotegia

3.3.10. Erabilera-erregimena

1. Erabilera Baimenduak

Natur ingurunearen mantenimendua.

Beren ezaugarri bereziengatik hiri-perimetroan barne hartu ezin diren onura publikoko edo gizarte-intereseko eraikinak edo instalazioak, beren izaera kontuan izanik nahitaez natur ingurunean kokatu behar direnean bakarrik.

Erabilera eta jabari publikoko landabideak.

Ingurunearekin bateragarriak diren hotel eta turismo ekipamenduak, halakotzat ulertuz aldibaterako ostataua asetzerat destinaturako jarduerak, turismoko kanpamenduak, eskola-zentro eta -koloniak, nekazalturismoa eta antzekoak, zeinen erregulazioa dagokion legeriara igortzen den.

Egoitza-erabilera, ondorengo artikuluan ezartzen diren mugapenekin.

Lehendik zeuden eta Plan Orokorraren behin betiko onespeneraren unean egoitza erabilera zuten eraikinetan erreformak baimendu ahal izango dira, bolumen edo azalera eraikia zabaldu gabe, honako establezimendu hauetarako:

- Jatetxeak
- Kafe eta Bar deiturikoak
- Kafetegiak
- Tabernak, ardandegiak eta sagardotegiak

Kasu honetan, establezimenduak ezin izango du 100 m²-tik gorako azalera erabilgarria eduki, etxebizitza erabilera nagusi gisa mententzen da eta, beraz, bere baldintzak betez, bereziki gutxieneko etxebizitzari buruzkoak.

Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak, horrelakotzat ulertuz nekazaritza estentsiboa, lurgintza esperimental edo bereziak, estalki gabeko edo negutegi barruko baratzezaintza eta lorazaintza.

2. Erabilera debekatuak:

Baimendu gisa zehaztuta ez dauden gainontzeko erabilerak debekatuta geratzen dira.

Animalien hazkuntza eta zaintzako erabilerak eta jarduera hipikoak espresuki debekatuta geratzen dira.

Espresuki debekatzen dira etxebizitza higikorren asentamenduak, hala nola karabanak, rulotak eta abar.

Automobilien despiezaketarako establezimenduak espresuki debekatzen dira. Gaur egun automobilien despiezaketara dedikatzen diren establezimenduak, nekazaritzako jardueren barruan sartu ezin den eta beraz baimendu gabeko jarduerak denez, erregimen iragankor bati loturik egongo dira, eta era honetan



desagertzen ez den bitartean, edozein kasutan Plan Orokorraren behin betiko onespentetik kontatzen hasi eta gehienez ere bi urteko epean gertatuko den gertakaria, jarduerara destinatzen den espazioa hosto iraunkorreko zuhaitzekin eratutako hesi berde batekin inguratu beharko dute nahitaez, biltegiatuta dauden produktuak ikus ez daitezkeen eran. Landaketa-proiektuak dagokion udal lizentzia jaso beharko du.

3.3.11. artikulua.- Eraikuntzaren erregimena

1. Lurzati neto eraikigarriko gutxieneko azalera
Etxebizitza familiabakarra2.000 m².
Etxebizitza bifamiliarra.....4.000 m².
2. Lurzati neto eraikigarriko gutxieneko zabalera: 20 m.
3. Lurzati neto eraikigarriko gehieneko okupazioa %20
4. Gehieneko eraikigarritasuna azaleran 0,3 m²/m².
5. Gehieneko eraikigarritasuna bolumenean .. 0,9 m³/m².
6. Gehieneko altuera eraikigarria 7 m.
7. Gehieneko altuera gailurrera 9 m.
8. Gehieneko oin-kopurua B + 1 + kamarotea
9. Gutxieneko separazioa, lurzati netoko mugakideetara 5 m.
10. Gutxieneko separazioa bide publikoetara 5 m.
11. Baldintza estetikoak. Oin berriko eraikuntzetarako derrigorrezkoa izango da estalki inklinatua erabiltzea %30 eta %40 bitartean, eta teila kurbatu edo laueko akabera, gorri kolorekoa.
12. 1945. urtea baino lehenago eraikitako familia bakarreko edo biko etxebizitzetako eraikinak, azalera eraikiaren ehuneko hogeita bostera (25%) zabaldu ahal izango dira, betiere emaitzazko eraikinak aurreko baldintzak betetzen baditu, gutxieneko lurzatiaren baldintza salbu.

LAUGARREN SEKZIOA: BABES BEREZIKO LURZORU EZ-URBANIZAGARRIRAKO ARAUAK

3.3.12. artikulua.- Definizioa

1. Babes bereziko lurzoru ez-urbanizagarria planoetan halakotzat seinalatutako areek eratzen dutena da, paisaje eta ingurugiroari dagokionez daukaten garrantzia eta interesagatik.
2. Lurzoru-kategoria honen lehentasunezko helburua horrelakotzat sailkatutako espazioak narriaduratik eta eraikuntzaren inbasiotik babestea da, bere jatorrizko egoera kontserbatuz.

3.3.13. artikulua.- Zona babestuetarako baldintzak

Zona hauetan oin berriko mota oro debekatuta geratzen da, espazio horiek destinatzen direneko jarduerak osatzeko xedez burutzen diren izaera publikokoak salbu. Zona hauetan dauden baso-masak mantendu egin behar dira,

baina hauek moztu eta birlandatzea baimenduta dago, bai eta egun dauden nekazaritza-jarduerak ere.

Jarduera pribatu gisa, bertako eraikinen berreraikuntza, kontsolidazio, kontserbazio, higienizazio eta zaharberrikuntzakoak bakarrik baimenduko dira.

Erabilera zerbitzari gisa haurtzaindegi-aparkamendukoak bakarrik baimenduko da.

3.3.14. artikulua.- Erabilera-erregimena

1. Erabilera baimenduak.
 - Naturaren kontserbazioa.
 - Baso-erabilera, halakotzat ulertuz basoaren kontserbazio eta hobekuntzarako zeregin guztiak, hala nola kimatzeak, garbiketa, operazio fitosanitarioak, eta abar, aplikagarria den legeria sektorialaren erregimen espezifikoaren arabera garatzen direnak.
2. Erabilera debekatuak. baimendu gisa zehaztuta dauden erabilerekin bestelakoak debekatuta geratzen dira.

3.3.15. artikulua.- Eraikuntzaren eta obren erregimena

1. Mota guztietako eraikuntza eta instalazio berriak debekatzen dira, baimentzen diren erabilerekin berezkoak izan ezik (mendi-aterpeak, bordak, mendien mantenimendua, eta abar). Eraikuntza hauek agerikoak izango dira, mehelinik gabe eta bi edo lau isurkiko estalkiekin, eta beren topografia, landaredi eta luraren morfologiagatik kokatuta daudeneko inguruaren oreka orokorrarekin bateragarriak diren zonetan kokatu beharko dira.
2. Paisajea nolabai alda dezaketen obrak debekatuta geratzen dira, hala nola espaloiak, autoen aparkalekuak, eta abar. Suebakiak baimentzen dira, ohiko baldintza teknikoekin.
3. Mota guztietako kanpo-publizitatea debekatzen da, hala euskarri artifizialaren nola naturalaren gainean, eta ondorioz, gaur egun dagoen publizitatea espresuki antolamendutik kanpo deklaritzen da, eta Plan hau indarrean sartzen den unetik kontatzen hasi eta sei (6) hilabeteko epean desmuntatu beharko da.

BOSGARREN SEKZIOA: BERE INTERES ARKEOLOGIKOAGATIK BEREZIKO BABESTUTAKO LURZORU EZ-URBANIZAGARRIRAKO ARAUAK

3.3.16. artikulua.- Definizioa

Planoetan halakotzat mugatuta dagoen lurzorua da, Finagako ingurune eta ermitari dagokiona.

3.3.17. artikulua.- Baldintzak

Arau hauetako Hamaikagarren Tituluaren Bigarren Kapituluan erregulatzen dira.



SEIGARREN SEKZIOA: LURZORU EZ-URBANIZAGARRIA.
ZERBITZUGUNEAK

3.3.18. artikulua.- Baldintzak

Izaera publiko edo pribatuko eraikinen eraikuntza baimentzen da, errepideen zirkulazio-erabilerari zuzenean loturik badaude, hala nola gasolindegia, garbiketatu-tunelak, eta abar.

Esleitutako aprobetxamendua egungo eraikinera mugatuko da, autoak konpontzeko tailerren erabilera debekatuz.

Hornitegi-erabilera ibilgailu-bide bati aurrea ematen dioten lurzatietan bakarrik baimenduko da, Herrilaretako Foru Departamentuak ezartzen dituen baldintzak betez.

Artikulu honetan xedatzen dena indarrean dagoen Errepide Legearen kalterik gabekoa da, edozein kasutan hau aplikatu behar baita.

LAUGARREN KAPITULUA: LURZORU
URBANIZAGARRIAREN ERREGIMENA

3.4.1. artikulua.- Definizioa eta eremua

1. Planak hiri-hazkunderen euskarri izatera destinatzen dituen lurrek eratzen dute lurzoru urbanizagarria, zeinen garapena eta exekuzioa Planaren indarraldiko lehen zortzi urteen barruan aurreikusita dauden, bertan ezarritako Jarduketa-programarekin bat etorritz.
2. Lurzoru urbanizagarrian populazioaren asentamendu berriak eta produkzio-jarduerak barne hartzen dira hurrenez hurreneko programaren terminoetan, lurzoru-kategoria honetan Plan orokorraren aurreikuspenen garapenerako beharrezkoak diren Sistema Orokorraren edo hauen elementuen ezarpena lotetsiz.
3. Lurzoru urbanizagarriaren sektoreen mugapena Sailkapen eta Kalifikazioko Planoan barne hartzen da, zeinean Plan Partzialen eremua adierazten den. Era berean, Jarduketa-programan Plan partzial desberdinak programatuta daudeneko laurtea ezartzen da.

3.4.2. artikulua.- Jarduketa-programaren berrikuspena

Plan Orokorraren Jarduketa-programa Udalak berrikusiko du lau (4) urtero, eta berrikuspen horren ondorioz zera egin ahal izango du, kasuak kasu:

- Lurzoru urbanizagarritik beronen zati bat kanpo uztea hiri-lurzorura gaineratzeko, Planaren exekuzioan bere jabeek legezko betebeharrak guztiak eta plangintzatik eratorritzen direnak bete baldin badituzte.
- Programaren aurreikuspenen denborazko muga beste lau (4) urtetarako zabaltzea lurzoru horren zati batean, edota komenigarritzat jotzen den epe txikiagoan, lurzoru urbanizagarriaren zati horietan dauden zirkunstantzien arabera.

3.4.3. artikulua.- Lurzoru urbanizagarriaren garapena

Lurzoru urbanizagarria Sailkapen eta Kalifikazioko Planoan mugatzen diren sektoreei dagozkien Plan Partzialen bitartez eta lurzoru-mota honetan kokatuta dauden Sistema Orokorraren exekuziorako Plan Berezien bitartez garatuko da, Planak hala ezartzen duenean.

BOSGARREN KAPITULUA: HIRI
LURZORUAREN ERREGIMENA

3.5.1. artikulua.- Definizioa eta eremua

1. Plan Orokorrak hiri-mailan barne hartuta egoteagatik eta, gainera, ondoren adierazten diren suposizioetako batean aurkitzeagatik mota honen barruan sartzen dituen lurrek eratzen dute hiri-lurzorua:
 - a. Ibilgailu-sarbidea, ur-hornidura, ur-hustubidea eta energia elektrikoaren hornidura edukitzeagatik, eta zerbitzu hauek ezaugarri egokiak dituzte bertan dagoen edo eraikiko den eraikinari zerbitzatzeko.
 - b. Beren antolamendua kontsolidatuta dutenak, eraikinak berarentzako egokiak diren espazioen bi heren gutxienez okupatzeagatik, Plan Orokorrak ezartzen duen antolamenduaren arabera.
 - c. Plangintza exekutatzekoan a) atalak adierazten dituen elementu berdinak eraginkorki lortzera iristen direnak edo eraikuntza b) atalak adierazten duen eran kontsolidatzen dutenak.
2. Hiri-lurzoruaren sailkapenak eragina dueneko eremuaren mugapena dagozkion planoetan adierazita dago.

3.5.2. artikulua.- Antolamendu-motak

Hiri-lurzoruaren osotasunaren, Sistema Orokorrak salbu, mugapena edozein izanik ere, karga eta mozkinen Banaketa-areetan, Planak lurzoru-mota honetarako eta barne hartzen den antolamendu xehekatuen arabera, ondorengo antolamendu-mota hauek ezartzen ditu:

- Eraikuntza Diseinatu edo Inposatuaren Antolamendua.
- Diseinatu Gabeko Eraikuntzaren Antolamendu Generikoa.

Beren edukia eta definizioa Arau hauetako 3.1.3. artikuluan barne hartuta daude.

3.5.3. artikulua.- Exekuzio-unitateak eta Jarduketa Bakanak

1. Hiri-lurzoruan, banaketa-areak bakoitzaren barruan eta karga eta mozkinen arteko oreka bermatzea posible denean, Planak Exekuzio Unitateak mugatzen ditu, jarraiak eta etenak, beraien azaleraren osotasunaren lagapen, banakideketa eta urbanizazioarako betebeharrak batera betetzea ahalbidetzen dutenak,



zein jarduketa-sistemaren bitartez kudeatu behar diren zehaztuz.

2. Jarduketa-programak epe bat ezartzen du, Plan Orokorra indarrean sartzen den egunetik aurrera, mugatzen diren Exekuzio-unitateetan lagapen, banakideketa eta urbanizaziorako eta lizentziak eskatzeko betebeharrak bete ahal izateko.
3. Exekuzio-unitateak grafiatzeko erabiltzen den kodea UE (EU) da, gehi unitate bakoitzari kokatuta dagoeneko banaketa-arearen zenbakia abiapuntutzat hartuz korrelatiboki esleitzen zaion zenbakia.
4. Udalak beste edozein Exekuzio-unitate mugatu ahal izango du, ofizioz edo alderdi baten eskariz, eta horrek ez du Plan Orokorren aldaketa edo alteraziorik ekarriko.

3.5.4. artikulua.- Jarduketa Asistematikoak

Hiri-lurzoruan, Planak Exekuzio-unitaterik mugatu ez dueneko eremuetan, Jarduketa Asistematikoen bitartez gauzatzen da, Arau hauek ezartzen duten moduan.



LAUGARREN TITULUA: UDALAREN ESKUHARTZEA ERAIKUNTZAN ETA LURZORUAREN ERABILERAN

LEHEN KAPITULUA: HIRIGINTZA INFORMAZIOA

4.1.1. artikulua.- Plangintzaren publikotasuna

Plangintzaren publikotasun-printzipioa honako hirigintza-informaziorako mota hauen bidez gauzatzen da:

- a. Plangintzaren zuzeneko kontsulta.
- b. Hirigintza-kontsulta.
- c. Hirigintza-zedula.

4.1.2. artikulua.- Plangintzaren zuzeneko kontsulta

Pertsona orok eskubidea du bere kabuz eta dohainik Plan Orokorra osatzen duen dokumentazioa eta berau garatzeko tresnak aztertzeko, horretarako finkatzen diren leku eta zerbitzuaren funtzionamendu-baldintzekin. Jendeak indarrean dagoen planeamenduaren dokumentuen kopiak eskuratu ahal izango ditu, horretarako ezartzen diren epeetan eta, hala balitz, sortzen den kostuarekin.

4.1.3. artikulua.- Hirigintza-kontsulta

Pertsona orok finka, Exekuzio-unitate edo Sektore bati aplikagarria zaion hirigintza-erregimenari buruzko txosten bat eska dezake idatziz, eta berau horretarako finkatuta dagoen udal-organo edo -zerbitzuak hilabeteko epearen barruan jaulki beharko du, eta hala dagokionean, kokatuta dagoeneko banaketa-areako ereduazko aprobetxamendua eta bertan aplikagarriak diren baimendutako erabileren ponderazio-koefizienteak eta hirigintza-ahalmenen lorpen-maila adierazi beharko dira informazioa eskaintzen den unean.

Eskaerari finkaren kokapen-planoa gaineratu beharko zaio, Plan Orokorreko gutxienez ere 1:2000 eskalako planoekin, edo bestela kontsultaren xede diren banaketa-areak, Exekuzio-unitate edo sektorearen zenbaki edo izendapen ofizial zehatza.

Udal zerbitzuek, eskaera egiten duenari, kokapenari buruzko beste edozein datu edo informaziorako beharrezkoak diren bestelako aurrerariak eskatzeko ahalmena dute.

4.1.4. artikulua.- Hirigintza-zedula

1. Hirigintza-zedula, finka, Exekuzio-unitate edo Sektore bati aplikagarria zaion hirigintza-erregimena eta udal mugartean barne hartutako lurretan ematen diren gainontzeko zirkunstantziak egiaztatzen dituen dokumentua da.

Zedulak bi hilabeteko epearen barruan luzatuko dira, aldez aurretik eskaria idatziz egin ondoren, eta honi

finkaren kokapen-planoa gaineratuko zaio, gutxienez ere 1:2000 eskalan.

Zedula eskatzen duenak, udal zerbitzuek eskatzen dizkieten bestelako kokapen-datuak eskaini beharko ditu.

2. Zedulek, Plangintza Erregelamenduaren 168.3 artikuluan adierazitako zehaztapenez gain, kokatuta dagoeneko banaketa-areako ereduazko aprobetxamendua eta bertan aplikagarriak diren baimendutako erabileren ponderazio-koefizienteak eta hirigintza-ahalmenen lorpen-maila adierazi beharko dute informazioa eskaintzen den unean.
3. Zedularen balio egiaztatzailea bertan egon daitezkeen hutsegite material edo egitatezkoen kalterik gabe ulertzen da, eta ezingo dituzte inola ere une bakoitzean aplikagarria den legezko eta hirigintzazko antolamenduaren indarrez finkaren gainean dauden eskubide eta betebeharrak aldatu.

BIGARREN KAPITULUA: KONTSERBATU BEHARRA

LEHEN SEKZIOA: KONTSERBATZEKO BEHAR OROKORRA

4.2.1. artikulua.- Kontserbatzeko betebeharra

1. Eraikin, ekimen partikularreko urbanizazio, lur, lorategi, kartel eta instalazioen jabeek, hauek kontserbatu egin beharko dituzte beren segurtasuna, osasungarritasuna eta apaindura publikoa bermatzeko moduan, eta xede horrekin, beharrezkoak diren mantenimendu, konponketa edo birjarpenerako obrak burutu beharko dituzte. Era berean, ingurugiroa eta ondare arkitektonikoari eta hiri-birgaikuntzari buruzko arauk bete beharko dituzte.
2. Higiezin baten jabetzari eskatzen zaion kontserbatzeko behar arrunta, legeria espezifikotik eratortzen diren errentarien betebeharrak eta eskubideen kalterik gabe ulertzen da.
3. Jabegoa kontserbatzeko behar arruntak muga bat du. Eraikina konpontzeko beharrezkoak diren eta burutu beharreko obren kostuak edo ezaugarri teknikoek higiezinaren aurria ekartzen dutenean, ez dira beharrezkoak izango, baes edo kontserbazioaren xede diren eraikinen kasuan salbu, hauen erregimena Arau hauetan ezarrita baitago.
4. Botere publikoen eta, oro har, gizartearen erabaki egokiak hartu beharra, adinekoak edota ezintasunen bat duten pertsonak eremu fisikora, eta, batik bat, egoitza-eraikinetara, sartzeari berma dadin, modu eraginkor eta errealean. (2008ko abenduaren 22ko ohiko bilkura)



4.2.2. artikulua.- Segurtasun, osasun eta apaindurarako gutxieneko baldintzak, eta Irisgarritasun-baldintzak

Eraikinak kontserbatzeko beharrak, gutxienez ere, ondorengo edukia izango dute:

1. Urbanizazioetan:

Lurzati bakoitzaren jabeak zerbitzu-sareetarako hartuneak funtzionamendu-egoera egokian mantenduko ditu.

Urbanizazio partikularretan, hauek osatzen dituzten elementu guztien kontserbazioa beren jabeen kontura joango da, Udalariei entregatu eta honek jasotzen duen arte. Gainera, jabe hauei egokituko zaie multzorako zerbitzu komunekoak diren lur eta instalazioen mantenimendua, beren jabetza pribatua izan arren, betiere hau pertsona jakin bati egotzi ezin zaionean, orduan honek burutu beharko baitu bere mantenimendua.

Udalaren jabetzako urbanizazioak, beren mantenimendua kontserbazio hirigintza-entitateei legez edo kontratu bidez esleituta badago, urbanizazio partikularrekin parekatuko dira.

Irisgarritasun-baldintzak: Bai urbanizazio partikularretan, bai eta udal jabetzakoak direnetan ere, irisgarritasuna bermatu beharko da, pertsona guztiek eta, bereziki, mugikortasun urria edo komunikaziorako zailtasunak dituzten pertsonak edo aldi baterako edo etengabeko muga psikikoa edo sentsoriala duten pertsonak modu autonomoan erabil ditzaten, aplikatu daitezkeen sektoreko araudian ezarritako xedapenei jarraiki.”

Irisgarritasun-araudira egokitzeko nahitaez egin beharreko obren ondoriozko gastuak, urbanizazio pribatuen kasuan, partikularrek ordainduko dituzte, bai eta horien mantentze-lanak eta gainerako urbanizazio-elementuak ere, harik eta udalari eman eta horrek onartu arte.

2. Eraikuntzetan:

Segurtasun-baldintzak: Eraikinak ura eta hezetasuna ez igarotzeko itxiera eta estalki estankoez mantendu beharko dira; beren egitura elementuen eta agente erasotzaileen aurrean babestuta egongo da; fatxadetako eta gainestaldurako materialak behar bezala zainduko dira erortzeko arriskurik gabe. Era berean, istripuen kontrako babesak eduki beharko dute, karek, eskubanda eta itxiera egokiekin. Igoigailu eta uretarako instalazio elektrikoak eta jasoketa edo presiozko motoreak, bai eta tximistorratzak eta gas edo berokuntzarako instalazioak ere, hauek baleude, suaren eta istripuen kontrako segurtasun-baldintzetan mantendu beharko dira. Okupatzailerik gabeko eraikinen kasuan, legez kontrako okupatzaileak ez sartzeko behar bezala itxita egon beharko dute.

Osasun-baldintzak: Higiezin gaitasuna destinatuta dauden erabilerarako mantendu beharko da, garbitasun-egoeran, hondatu ez daitezkeen, eta zerbitzu-sareen, instalazio sanitarioen, aireztapen eta argiztapenerako baldintzen egoera egokia zainduz. Honez gain, kea, partikula eta substantzia kaltegarrien jaulkipena murriztu eta kontrolatzeko elementuak funtzionamendu-egoera egokian kontserbatu beharko dira.

Apaindura-baldintzak: fatxadak garbi eta ongi pintatuta mantendu beharko dira, beharrezkoa denean estaldura eta inpostarako materialak birjarrituz, fatxada horiek txukun edukitzeko. Egoera berean mantenduko dira lorategiak, altzariak eta hesiak, hauek baleude, eta gainontzeko elementu pribatiboak barnealdean edo itxiduretan, bide publikotik ikus daitezkeenean.

Debekatuta daude mota guztietako pintadak, kartelak, letreroak, propaganda eta abar, dagokion lizentzia eskuratu eta gero dagozkien Udal Ordenantzek espresuki baimenduta ez baldin badaude.

3. Hiri-destinoa duten lurak landarerik eta gainontzeko hondakinik gabe mantendu beharko dira, bi metro eta erdiko (2,50 m.) altuera duten itxiera iraunkorrek hiritutara, presentzia, trinkotasun eta erresistentzia egokiarekin, lerrokatuta ofiziala inguratuz. Lurraren gainazalaren tratamendu egokia gauzatu beharko da, istripu-arriskua baztertzeko.

Eraikuntzarako lizentzia ematen den arte, hiri-lur hauetan Udal Agintaritzak izaera publikoko erabilerak ezarri eta baimendu ahal izango ditu, behin-behineko izaeraz eta beren jabeen baimenarekin (aparkamendua, pertsonen atsedenaldia eta egonaldia, haurrentzako jolasak eta espazimendua, desmuntatu daitezkeen behin-behineko instalazioekin). Erabilera edo instalazio horiek, partikularrek ezartzen dituen kasuan, erauzi egin beharko dira Udal Agintaritzak hala erabakitzen duenean, kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik gabe, jabeak onartutako behin-behineko baimena Jabetzaren Erregistroan inskribatu beharko delarik.

4. Hiri-destinorik ez duten lurak (lurzoru ez-urbanizagarria), beroni egokitutako osasungarritasun eta apaindura publikorako egoera onean kontserbatu beharko dira. Horretarako, jabeak hauek aldizka garbitzeko obligazioa dauka, zaborra, hondakinak, usain txarrak, ur estankatua edo nahi ez diren animaliak bertan egon ez daitezkeen, eta behar bezalako hesia jarri beharko dute, beharrezkoa izanez gero.
5. Kartelak, iragarki argidunak eta markesinak aldeztu aurretik udal lizentzia lortu ondoren bakarrik instalatu ahal izango dira, Planak ezartzen dituen debekuak eta mugak kontuan izanik.

Elementu hauek guztiak egoera onean mantendu beharko dira baldin eta bide publikotik ikusgarriak badira.



6. **Irisgarritasun-baldintzak:** "Irisgarritasuna bermatu beharko da, pertsona guztiek eta, bereziki, mugikortasun urria edo komunikaziorako zailtasunak dituzten pertsonak edo aldi baterako edo etengabeko muga psikikoa edo sentoriala duten pertsonak modu autonomoan erabil ditzaten, aplikatu daitekeen sektoreko araudian ezarritako xedapenei jarraiki."

4.2.3. artikulua.- Eraikinen gaineko obrak ingurura egokitzea

1. Eraikinak, apaindurari dagokionez, kokatuta dauden ingurura behar bezala eraiki eta mantendu beharko dira.
2. Udalak, kasua balitz, eraikinen fatxadetan ikus daitezkeen elementuak instalatzeko lizentzia ukatu egingo du, eraikinen kanpoko itxura eraldatu edo itsusitu egiten badute, edo inguruarekiko estetikoki desagokiak gertatzen badira, eta hori kontuan izanik lehendik zeudenen erazpena eta higiezia bere lehengo egoeran uztea galdatu ahal izango du.

4.2.4. artikulua.- Exekuzio-aginduak eta kontserbatu beharrendaren muga

1. Udal Agintaritzak, ofizioz edo edozein interesatuk hala eskatuko balu, lurren, urbanizazio partikularren eta eraikinen kontserbatzeko betebeharrak bete ahal izateko beharrezkoak diren obrak exekuzioa eskatu ahal izango die beren jabeak.
2. Exekuzio-agindua betetzen ez bada, lege aurreikusita dauden zigorrak jarri eta udal-exekuzio subsidiarioa burutu ahal izango dira, jabearen kontura, edo higiezinaren zigor izaerako desjabetzapena burutu ahal izango da, indarrean dagoen legeriak baimentzen dituen terminotan.

BIGARREN SEKZIOA: ERAIKUNTZEN AURRI-EGOERA

4.2.5. artikulua.- Procedencia de la declaración de ruina

1. Eraikuntzen aurri-egoeraren deklarazioa bidezkoa izango da lege aurreikusten diren kasuetan.
2. Baliabide normalen bidez teknikoki konpon ezin daitezkeen kalteetat hartuko da, bere konponketak egitura-elementuen osotasunaren heren bat (1/3) baino gehiago berreraikitzea suposatzen duenean. Egitura-elementuak, egitura-kalkuluan euspen eta erresistentziarako funtzioa aitortuta duten elementuak dira.

Lehen ezarritako muga lortzeko, ondorengo prozedura honi jarraituko zaio:

a? Egitura-elementuen zerrenda xehekatua ezarriko da, ohikoak diren unitate metrikoetan koantifikatuko dena, egitura-elementuen multzoarekiko duten proportzionaltasuna ehunekotan kalkulatu.

b? Era berean, elementu bakoitzarentzat berreraiki behar den proportzioa portzentaiekin finkatuko da.

c? Portzentaia hauek, a) atalean lortutakoekin biderkatuta eta batuta, kalteek osotasunarekiko duten hedadura emango dute.

3. Konponketa-obra, eraikina lehendik zeuzkan segurtasun- eta osasun-baldintzetara itzultzen dutenak dira.

Konponketaren kostua aleko prezioak eta deskonposatuak aplikatuz zehaztuko da.

Eraikinaren egungo balioa (Va/Eb), ondorengo formula aplikatuz lortuko da:

$$Eb = Bb \times Dk \times Edk$$

Bb berrezarpen-balioa da, Euskal Herriko Arkitektuen Elkargo Ofizialak moduluen arabera kalkulatu duena. Dk adinagatiko depreziatio-koefiziente da, ondorengo taularen arabera kalkulatu dena:

urteak	10 arte	10etik 20ra	20tik 30era	30etik 40ra	40tik 50era	50etik 60ra
Dk	1.00	0.94	0.87	0.81	0.74	0.68

urteak	60tik 70era	70etik 80ra	80tik 90era	90etik 100era	100etik gora
Dk	0.62	0.55	0.49	0.42	0,36

(Edk) Erabilera-koefiziente da, eraikinaren kontserbazio-egoera bere eraikuntza-kalitateari loturik kontuan izanik zehaztuko dena.

4. Hamaikagarren Tituluan jasotzen denaren arabera babes bereziko erregimenen baten barruan dauden eraikinak ez dira depreziatuko, ez adinagatik ez eta erabilera-koefizientearengatik ere.
5. Patioen dimentsioei, gelen aireztaketari eta, oro har, legeria espezifikoak galdatzen dituen instalaziorik ezari buruzko akatsak ez dira kontuan izango, higiezinaren bizigarritasun-baldintzak aipatzen dituztelako eta ez beren aurri-egoera.
6. Behin-behineko uzteak eta higiezinaren bizigarritasunari loturik hartu beharreko neurriak ez dute, beren baitan eta soilik harturik, aurri-deklarazioa ekarriko.

4.2.6. artikulua.- Kultur Ondasun Kalifikatu eta Inbentariatuak

Kultur Ondasun Kalifikatu eta Inbentariatuak aurri-deklarazioa, Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legean ezarritakora egokituko da.



HIRUGARREN KAPITULUA: **HIRIGINTZA LIZENTZIAK**

4.3.1. artikulua.- Lizentziari loturiko egintzak

1. Eraikuntzarako egintza guztiek aginduzko udal lizentzia eduki behar dute. Aldez aurretik Udalaren lizentzia lortzeko obligazioa dute aplikagarria den hirigintza-legeriak zerrendatzen dituen egintzek eta, bereziki, Hirigintza-disziplinarako Erregelamenduaren 1. artikuluan zerrendatzen diren egintzek.
2. Aldez aurretik lizentzia lortzea ezinbestekoa izango da Planaren lurralde-eremuan burutzen diren eta aurreko atalean zerrendatzen diren jarduera guztientzat, hauek sustatzen dituzten pertsonen izaera publikoa nahiz pribatua izan arren edota kokatuta daudeneko lurrak edo higiezinak jabari edo ondasun publikokoak izan arren, itsas-lehorreko eta portuko zonan ere, eta burutu nahi den egintzak Administrazioaren beste organo baten baimena, lizentzia edo emakida galdatzen badu ere.

4.3.2. artikulua.- Lizentziak emateko eskuduntza

Edozein motako hirigintza-lizentziak eman edo ukatzea Alkateari dagokio.

LAUGARREN KAPITULUA: **IRISGARRRITASUNAREN ARLOAN** **UDALAREN ESKU-HARTZEA**

4.4.1. artikulua. Aplikazio-eremua:

1.- Irisgarritasun arloko udalaren jarduerak, oro har, jasogailuak ezartzeko desjabetzea barne, honako betekizunak betetzen dituzten higiezinetan aplikatu ahalko dira:

- a) Higiezin horien erabilera nagusiak egoitzazkoak izan beharko du, bertan osagarri diren beste erabilera batzuei kalte egin gabe.
- b) Etxebizitza horien eraikinak ez dira Plan Orokorren antolamendutik kanpoko araudian egongo.
- c) Eraikin horiek, baita horiei lotuta dauden etxebizitza eta lur-zatiek ere, irisgarritasun-zailtasunak izan behar dituzte, eta, horiek, kapitulu honetan eta garatzeko udal ordenantzan ezarritako baldintzak aplikatu beharra justifikatu beharko dute.

4.4.2. artikulua.

Irisgarritasun-arazoak konpontzeko pentsatu diren obrek eta jarduerak honako hauetan eragin dezakete:

- a) Etxebizitza horien eraikinetako lokalak eta espazioak edo horietako zatiak, bai sestra gaineko, bai sestra azpiko izan, erabilera edozein dela ere.
- b) Aurretik aipatutakoak ez beste eraikin osagarri batzuetako lokalak eta espazioak edo horietako zatiak, etxebizitza horien aipatutako eraikin horiei lotutako lur-zatian bertan daudenak.
- c) Eraiki gabeko lurzoruak, aipatutako eraikinari lotutako lur-zatikoak.
- d) Aipatutako lur-zatitik kanpoko lurzoruak, lur-zati horiek eta irisgarritasun-arazoak dituzten etxebizitzek osatzen dituzten eraikinak mugakide dituztenak.

4.4.3. artikulua

c) eta d) atalen kasuan, lurzoruak erabilera publikokoak edo jabetza pribatukoak balira horretan, administrazioak, ondare-prozedura egokiaren ondoren, beharrezko baimena emango du, dagokion udal ordenantzan ezarritako baldintzei jarraiki.



BOSGARREN TITULUA:
ERAIKUNTZAREN ERREGIMENA

LEHEN KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

5.1.1. artikulua.- Egoera desberdinak Eraikuntzaren Erregimenean

Plangintza-erregelamenduaren 19.3 artikuluan aurreikusita dagoena betez, Plan Orokor honek proposatzen duen antolamenduaren aurretik bertan zeuden eraikin, instalazio eta erabilerei aplikagarria zaien eraikuntza-erregimena definitzen da.

Ondorioe hauetarako, Eraikuntzaren Erregimenean ondorengo egoera desberdinak bereizten dira:

- Antolamendu Espresutik Kanpo.
- Antolamendu Geroratutik Kanpo.
- Toleratua.
- Antolamenduaren Barne.

BIGARREN KAPITULUA:
ANTOLAMENDU ESPRESUTIK KANPO

5.2.1. artikulua.- Definizioa

1. Antolamendu Espresutik Kanpoko egoeran barne hartzen dira Plan Orokor hau burutu baino lehen bertan zeuden eta Planarekin bat etortzen ez ziren eta Kudeaketa-planoetan espresuki grafiatuta agertzen ziren eraikin, erabilera eta instalazioak.
2. Antolamendu Espresutik Kanpoko egoeran beren zati edo elementuren bat bakarrik duten eraikinetan, eraikinaren gainontzekotik teknikoki separa daitezkeelako, antolamendutik kanpoko erregimena zati edo elementu horri soilik aplikagarria izango da, eta eraikinaren gainontzekoa erregimen horretatik kanpo geratuko da.
3. Antolamendu Espresutik Kanpoko egoera ez da aplikagarria izango Plan Orokorak babes-erregimenean barne hartzen dituen higiezinentzat, eta kasu honetan eraikuntza antolamenduarekin bat datorrela adieraziko da.

5.2.2. artikulua.- Antolamendu Espresutik Kanpoko suposizioetan onartutako obrak.

1. Antolamendu Espresutik Kanpoko egoeran barne hartutako eraikin, instalazio eta erabileretan kontserbazio, higieze eta apaindurarako obra txikiak bakarrik burutu ahal izango dira, eta ez dira onartutako konponketa, erreforma, kontsolidazio, bolumen-gehikuntza, modernizazio eta desjabetzapen-balioa gehitzeko obrak.

2. Honako Plan Orokor hau indarrean sartu baino lehen eta aldez aurreko plangintza-egoeretatik eratorritzen ziren Antolamendu Espresutik Kanpoko egoerak ukitzen zituen eraikin, lur edo instalazioetan zeuden erabilerak, garatzen jarraitu ahal izango dira jardueraren bertan behera uztea gertatzen den arte, eta debekatuta geratzen da erabilera-aldaketa, egungo jardueraren aldaketa eta beronen zatiketa edo lote-banaketa ekartzen duen eraldaketa oro, desjabetzapen-balioaren gehikuntzari uko egiten baldin bazaio ere.

HIRUGARREN KAPITULUA:
ANTOLAMENDU GERORATUTIK KANPO

5.3.1. artikulua.- Definizioa

1. Antolamendu Geroratutik Kanpoko egoeran barne hartzen dira, aurreko Kapituluaren aurrekustean den antolamendu espresutik kanpoko egoeran barne hartuta ez dauden eta ondorengo suposizio hauetakoren batean sartzen diren eraikin, erabilera eta instalazioak:

Sektore urbanizagarrien edo plan berezien eremuaren barruan dauden eraikinak, beren antolamendua garapen-plangintzak ezartzen duenarekin bat ez datorrenean. Antolamenduz kanpoko kategoria honetan behin-behineko sartzen dira, dagokion garapen-plangintzak beren behin betiko egoera zehazten duen bitartean.

2. Antolamendu Geroratutik Kanpoko egoeran beren zati edo elementuren bat bakarrik duten eraikinetan, eraikinaren gainontzekotik teknikoki separa daitezkeelako, antolamendutik kanpoko erregimena zati edo elementu horri soilik aplikagarria izango da, eta eraikinaren gainontzekoa erregimen horretatik kanpo geratuko da.
3. Antolamendu geroratutik kanpoko egoera ez da aplikagarria izango Plan Orokorak babes-erregimenean barne hartzen dituen higiezinentzat, eta kasu honetan eraikuntza antolamenduarekin bat datorrela adieraziko da, jatorrizko eraikinarenak ez diren eta babestu behar ez diren elementuak salbu, zeineri aplikagarria izango zaien antolamendu geroratutik kanpoko erregimena.
4. Higiezin bat Antolamendu Geroratutik Kanpoko egoeran kalifikatzeak, hurrengo artikuluan era xehekatuan barne hartzen diren baimendutako obren burutzapenerako laguntza eta subentzio instituzionalen emakida ez du eragozten.

5.3.2. artikulua.- Antolamendu geroratutik kanpoko egoeran onartutako obra eta erabilerak

1. Antolamendu geroratutik kanpoko egoeran barne



hartuta dauden eraikin eta instalazioen erregimenak kontserbazio, apaindura, konponketa eta kontsolidaziorako obrak burutzea ahalbidetzen du. Era berean, erreformatzeko obrak burutzea baimentzen da, desjabetzapen-balioaren gehikuntzari espresuki uko eginez, ondorengo zirkunstantzia hauek betetzen direnean:

- a) Obrek eraikitako eraikinaren guztizko azaleraren ehuneko hogeita bost (%25) baino gehiago aldatzea edo bere egitura-elementuak konpontzea ekartzen ez dutenean.
 - b) Obren exekuzio materialaren kostuak eraikinaren egungo balioaren ehuneko berrogei (%40) gainditzen ez duenean.
 - c) Obrak baliabide tekniko normalen bidez exekutatu ahal izatea.
2. Antolamendu geroratutik kanpoko erregimenean barne hartuta dauden eraikin eta instalazioetan, Plan Orokorrak edo galda daitekeen garapen-plangintzak ezarritakoarekiko egokitzapena ekartzen ez duten erabilera globalen aldaketak ez dira onartzen.
 3. Egoitza-eraikinetako merkataritza-lokaletan erabilera eta/edo jardueraren aldaketak onartzen dira, horrekin egokitzapen-obra txikiak burutzen badira ere, non eta Arau hauetako Bigarren Tituluaren arabera erreforma-obra gisa sailkatuta geratzen badira.
 4. Jarduera edo instalazioaren edozein eraldaketa debekatzen da, beronen zatiketa edo lote-banaketa ekartzen badu.

LAUGARREN KAPITULUA: EGOERA TOLERATUA

5.4.1. artikulua.- Definizioa

1. Egoera toleratuaren barruan daudela kontsideratzen da aurreko bi kapituluetan erregulatzen diren egoeretan barne hartuta ez dauden baina erabilera, lerrokadura, altuera edo aprobetxamenduari loturik dauden arazoengatik Planera desagokitze-zirkunstantziaren bat mantentzen duten eraikin, erabilera eta instalazioak.
2. Egoera honetan barne hartzen dira ondoren adierazten diren suposizioetakoren batean aurkitzen diren eraikin, erabilera eta instalazioak:
 - a) Edozein motako lurzorutan kokatuta egonik, beren kanpoko lerrokadurak Planean erabilera publikora destinatutako espazioei loturik aurreikusten diren kanpoko lerrokaduretara egokitzen ez diren eraikin, erabilera eta instalazioak, hala nola plazak, bideak, eta abar.
 - b) Edozein motako lurzorutan kokatuta egonik, beren

erabilera Planak espresuki debekatzen dituenak.

- c) Etxadi-patioen barruan osorik kokatuta dauden behe-oineko instalazioak eta eraikinak, antolamendu-baldintzen arabera eraikinak patio horiek okupatu ezin dituenen.
- d) Dokumentazio grafikoan altxapen edo lerrokadura-aldaketaren xede gisa edo bien xede gisa definitutako prozeduraren bitartez ordezkatzeko aurreikusten diren eraikinak.

5.4.2. artikulua.- Egoera toleratuan onartzen diren obra eta erabilerak

1. Egoera honetan barne hartuta dauden eraikinetan, kontserbazio eta apaindura, kontsolidazio, konponketa eta erreformarako mota guztietako obrak baimendu ahal izango dira, betiere aplikagarria den hirigintza-erregimenerako desagokitzapen fisikoaren kausak handitzen ez badira.
2. Beraz, eraikuntza antolamenduaren barruan dagoela esango da bere bizitza erabilgarria amaitu arte edo bere borondatezko ordezkapena burutu arte, eta kasu honetan eraikuntza berria plangintzan aurreikusita dauden eraikuntza, erabilera, altuera-erregimen eta abarren baldintza guztietara egokitu beharko da.
3. Erregimen honetan barne hartuta dauden eraikinetan higiezinaren erabilpena baimenduko da ordurarte zegoen erabilerekin, honen aldaketa, eraikinaren borondatezko ordezkapena edo beronen erabateko birgaikuntza burutzen ez den bitartean.

Aurreko artikuluko 2.c atalean adierazten diren instalazioei, jardueraren uztara arte zegoen erabilera mantentzea baimentzen zaie.

4. Lerrokaduren barruan aurkitzen diren eraikinetan dauden eta Plan Orokorrarekin bat ez datozten erabilerei beren jarraipena baimentzen zaie, hauek uzten diren arte. Suposizio honetan, erabilera-aldaketa onartzen da, betiere eraikinaren erabateko eraldakuntza burutzen bada eta erabilera-aldaketa horrek Planak ezarritako erregimenera egokitzea ekartzen baldin badu.
5. Lerrokaduren barruan dagoen eraikin batean bat ez datorren erabilera baten aldaketa partziala planteatzen denean eta aurreko atalaren arabera jardutea ezinezkoa denean, erabilera berriek erabilera baimendu eta osagarrien erregimen orokorra errespetatu beharko dute eraikina kokatuta dagoen zona kontuan izanik, bai eta eraikinean dauden gainontzeko erabilerekiko bateragarritasuna ere.
6. Erabilera berriak erabilera baimendu eta osagarrien erregimen orokorra errespetatzen ez duenean, baina udalaren iritzi arazoituaren arabera egungo egoerarekiko bateragarritasun hobea suposatzen duenean, hau baimendu ahal izango da, betiere



eskatzaileak eskatzen duen erabilera berriaren eta eraikinean dauden erabilera guztien artean bateraezintasunik ez dagoela frogatzen badu eta, era berean, erabilera-aldaketarekin batera, eraikinaren elementu komunetan ere beharrezkoa balitz bere funtzionamendurako beharrezkoak diren neurri zuzentzaile guztiak gaineratzen baldin baditu. Hala eta guztiz ere, Udalak baimen daitezkeen erabileren arteko bateragarritasun-erregimena ezarriko du Ordenantza baten bidez.

BOSGARREN KAPITULUA: **ANTOLAMENDUAREN BARNE**

5.5.1. artikulua.- Definizioa

Antolamenduaren barne egongo dira aurreko kapituluetan erregulatutako egoera bakar batean barne hartuta ez dauden eta, erabilerak erregulatzen dituzten Arauak eta altuera, aprobetxamendu eta lerrokaduren oinarritzko parametroak betetzeagatik, Plan honekin bat datozen eraikuntzak eta instalazioak.

5.5.2. artikulua.- Alakatzeekin eta garrantzi txikiko bestelako murriztapenekin ukitutako eraikuntzak

1. Planak egungo eraikinetako ertzen alakatzea adierazten duen kasuetan, betiere zirkunstantzia hori salbu lerrokaduren barruan aurkitzen direnean, ez dira arrazoi horrengatik Antolamenduz Kanpokotzat hartuko, betiere afekzio hori eraikinari loturik koalitiboki eta koantitiboki garrantzi txikikoa baldin bada, eta ertzaren denborazko mantenimenduak bide-oinaren garapena larriki ukitzen ez badu.
2. Irizpide berari jarraituko zaio, eraikinetan sakonera eraikigarriari eta altuera partzial, atzeraemangune, sestrapeko okupazio eta abarrei loturik egon daitezkeen garrantzi txikiko murrizketa eta desfaseen kasuan.



SEIGARREN TITULUA: ERABILERAK ERREGULATZEN DITUZTEN ARAUAK

LEHEN KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

6.1.1. artikulua.- Xedea

Hirigintza-erabilerei buruzko Titulu honetako arauen xedea lurretako zorupe, lurzoru eta hegalkinen, bertan dauden instalazio eta eraikuntzen eta etorkizunean ezarri edo alda daitezkeen destinoa ordenatu eta kontrolatzea da, bai eta bertan garatzen diren mota guztietako jarduerena ere, lurzoru-mota edozein izanik ere.

6.1.2. artikulua.- Aplikazioa

1. Erabilerak erregulatzen dituzten aginduez gain, Eraikuntzaren Arau Orokorrak eta, hala dagokionean, lurzoru, eraikin edo instalazioaren kokalekuaren arabera egokitzen diren Zonako Ordenantzak bete beharko dira.
2. Plan honek babestu eta kontserbatzen dituen eraikin eta multzoetan, zeinen erregulazio espezifikoak Arau hauetako Hamaikagarren Tituluan barne hartzen den, hura nagusitzen da Titulu honetako zehaztapenen gainetik.

BIGARREN KAPITULUA: ERABILEREN EGITURAKETA ETA DEFINIZIOAK

6.2.1. artikulua.- Erabileren egituraketa

Ondorengo erabilera-motak ezartzen dira:

1. Lurraldean kokatzeko duten edo ez duten posibilitatearen arabera:
 - a) Erabilera baimenduak
 - Bereizgarria edo nagusia
 - Toleratuak
 - b) Erabilera debekatuak
2. Jarduerak bere inguruari loturik duen egoeraren arabera, ondorengo egoera hauek ezartzen dira:
 - a) Etxebizitzetarako eraikinean kokatutako erabilera, hauetako espazio komun zeharrek sarbidearekin, etxebizitzaren barruan ere.
 - b) Etxebizitzetarako eraikinean ezarritako erabilera, baina etxebizitzaz bestelako oinean kokatuta, bide publikotik sarbide zuzena, independentea eta etxebizitzetatik separatuta izanik.
 - c) Erabilera anitzeko eraikinean kokatutako erabilera, etxebizitzarena salbu eta mota honetako inolako

eraikinik gabe, gutxienez 8 metroz separatuta egon beharko dutelarik. Sarbide komunak eta eraikineko gainontzeko lokalekiko independenteak izan ditzake. Egoera honen baliokidea izango da, eraikin berean egonik etxebizitza-erabileraren edozein puntutik 8 metrotik gorako separazioa duen bertan garatzeko jarduerak.

d) Zonako erabilera nagusiarekin bat datozen erabileren familia bakar batera osorik dedikatzen den eraikin bakanean garatu beharreko erabilera, eta kale edo espazio publikotik sarbidea duena.

e) Hiriguneetatik bakandutako eraikinean kokatutako erabilera.

f) Eraikinaren euskarria duen edo ez duen erabilera, erabilera hori nagusia den zonan kokatua.

3. Jardueraren ezaugarrien edo izaeraren arabera, ondorengo erabilera hauek:

- 1) lehen sektoreko jardueren erabilerak
- 2) komunikazio-erabilera
- 3) azpiegitura-erabilera
- 4) ekipamendu-erabilera
- 5) egoitza- eta etxebizitza-erabilerak
- 6) hirugarren sektoreko erabilera
- 7) industri edo produkzio-jardueren erabilerak
- 8) espazio libreen erabilera

Erabilera posible guztiek aurreko kategorietakoren batean barne hartuta egon behar dute. Espresuki ez dagoen kasuan, hauetakoren batera asimilatu behar da, bere funtsezko ezaugarriak kontuan izanik, eta honen berezko zehaztapenak aplikatuko zaizkio.

6.2.2. artikulua.- Erabilera Baimendua eta Debekatua

1. **Erabilera Baimendua.** Erabilera baimenduak dira beren hurrenez hurrenko zona edo azpizonen erregulazioan espresuki onartuta daudenak.
2. **Erabilera Debekatua.** Erabilera debekatuak dira zona edo area bakoitzean espresuki debekatuta dauden erabilerak eta berauei asimilatutakoak.

Erabilera baimenduen barruan bi kategoria bereizten dira:

Erabilera bereizgarria edo nagusia, baimenduta dauden gainontzekoen gainetik nagusitzen denean eta zonari ezaugarri berezia ematen dionean. bere intentsitatea Ereduzko Aprobetxamenduak definitzen duena izango da, eta beron loturik egongo dira Planak Banaketa-area berean baimentzen dituen gainontzeko erabilerak.

Erabilera toleratuak, beren intentsitate edo dimentsioak zonan nagusiak diren edo programatuta dauden ezaugarriak aldatzen ez dituztenean. Zonaka xehekatutako arauetan tamaina edo portzentaia mugak ezartzen dira erabilera bereizgarriari loturik.



6.2.3. artikulua.- Erabilera-aldaketak

Lehendik dauden eraikinetan ezarri nahi diren erabilera-aldaketak izaera orokorrean baimendu ahal izango dira, betiere ondorengo arauetan adierazten diren baldintzak betetzen baldin badira. Dagokion udal lizentzia lortu beharko dute.

HIRUGARREN KAPITULUA: ERABILAREN SAILKAPENA, BEREN IZAERAREN ARABERA

6.3.1. artikulua.- Sarrera

- a) Erraz eta argi eta garbi ulertu ahal izateko, erabilerak zenbakitze ordinal baten bidez egituratzen dira (1. erabilera), eta honen barruan erabilera desberdin bakoitzak izan ditzakeen kategoria desberdinak bereizten dira (1. kategoria), eta, hala dagokionean, dagokien azpikategoriak.
- b) Titulu honetan erregulatzen diren erabilera-mota eta klaseak izaera enuntziatiboa dute. Erabileraren bat espresuki barne hartzen direnetakoren batean argi eta garbi sartu ezin denean, bere ezaugarrien arabera antz handiena duenean barne hartuko da, aldez aurretik Udal Zerbitzu Teknikoek txosten arrazoitua jaulki ondoren.
- c) Erabileren laburpena

1 Lehen sektoreko jardueren erabilera

- 1.1. Nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilera
- 1.2. Erauzpen-erabilera
- 1.3. Baso-erabilera

2 Komunikazio-erabilera

- 2.1. Bidesare-erabilera.
- 2.2. Trenbide-erabilera.
- 2.3. Metropoli-trenbidearen erabilera.
- 2.4. Ibai-erabilera.
- 2.5. Erregaien hornitegi-erabilera.
- 2.6. Ibilgailuak kokatu eta aparkatzeko erabilera.

3 Azpiegitura-erabilera

- 3.1. Energia Elektrokoaren Sarea
- 3.2. Ur-hornidurarako Sarea
- 3.3. Saneamendu-sarea
- 3.4. Telekomunikazio-sarea
- 3.5. Gas-sarea
- 3.6. Hondakin Solidoen Tratamendua

4 Ekipamendu-erabilera

- 4.1. Administrazio-zerbitzuak.

- 4.2. Kirol-ekipamendua
- 4.3. Irakaskuntza-ekipamendua
- 4.4. Osasun-ekipamendua
- 4.5. Erlijio-ekipamendua
- 4.6. Asistentzi-ekipamendua
- 4.7. Atsedeen, aisialdi eta ikuskizunetarako
- 4.8. Gizarte- eta kultur ekipamendua

5 Egoitza-erabilera

- 5.1. Familia bakarreko edo biko etxebizitza bakana edo adosatua
- 5.2. Etxebizitza kolektiboa
- 5.3. Etxebizitza erantsia
- 5.4. Egoitza komunitarioa
- 5.5. Hotel-erabilera

6 Hirugarren sektoreko erabilerak

- 6.1. Bulegoak.
 - 6.1.1. Bulegoak, etxebizitzarekin batera.
 - 6.1.2. Gainontzeko bulegoak.
- 6.2. Txikizkako merkataritza-erabilera.
 - 6.2.1. Merkataritza-erabilera.
 - 6.2.2. Ostalaritza-erabilera.
- 6.3. Izaera kontzentratuko merkataritza-erabilera.
 - 6.3.1. Merkataritza-zentro edo -galeriak.
 - 6.3.2. Erosten handiak.
 - 6.3.3. Hipermerkatua.

7 Jarduera industrial edo produktiboen erabilerak

- 7.1. Industrialak.
 - 7.1.1. Etxebizitzaren barruan onartutako industria.
 - 7.1.2. Etxebizitzarekin bateragarria den industria.
 - 7.1.3. Etxebizitzarekin bateragarria ez den industria.
 - 7.1.4. Bestelako industriak.
- 7.2. Etxebizitzarekin bateragarria den biltegia.
 - 7.2.1. Handizkako merkataritzarik gabeko biltegia
 - 7.2.2. Handizkako merkataritza duen biltegia
- 7.3. Etxebizitzarekin bateragarria ez den biltegia.

8 Espazio libreen erabilera

- 8.1. Titulartasun publikoko berdeguneak eta oinezkoentzako areak.
- 8.2. Jabetza pribatuaren gaineko erabilera publikoko espazio libreak.
- 8.3. Erabilera eta jabetza pribatuko espazio libreak.



LEHEN SEKZIOA: LEHEN SEKTOREKO JARDUEREN ERABILERA (1. ERABILERA)

6.3.2. artikulua.- Kategoriak

1. Nekazaritza eta abeltzaintza-erabilera
2. Erauzpen-erabilera
3. Baso-erabilera

6.3.3. artikulua.- Nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilera

Nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerara, lurgintza-eragiketarak eta abeltzaintzarekin erlazioatutako jarduerak barne hartu, baimendu edo sustatzeko landaketa era eraikinetara dedikatutako espazioak destinatuko dira, era berean animaliak eta nekazaritza- eta abeltzaintza-zerbitzuak barne hartzeko instalazioak, siloak, zisternak, nekazaritza-makineriarako biltegiak, negutegiak, lorazaintza eta barazkizaintza barne hartzen direlarik.

Animalien granjen erabilera intentsiboak jarduerarekin hasteko lizentziari loturik egongo dira, eta proiektuak ingurugiro-inpaktuak murrizteko hartu beharreko neurri zuzentzaileak ziurtatu beharko ditu.

6.3.4. artikulua.- Erauzpen-erabilera

Erauzpen-erabilerak, aire zabaleko edo galeria bidezko meategietarako eta mota guztietako harrobiatarako beharrezkoak diren instalazioak eta eraikuntzak barne hartzen ditu.

6.3.5. artikulua.- Erauzpen-erabileraren baldintza partikularrak

Erauzpen-erabilera espresuki debekatzen da udal mugarte osoan.

6.3.6. artikulua.- Baso-erabilera

Baso-erabilerak, mendien zuzeneko ustiapen gisa mota horretako aprobetxamendura eta era horretan lortutako produktuen lehen transformazioetara destinatutako jarduerak barne hartzen ditu.

Erabilera honetan ez dira barne hartzen ondoren egiten diren zuraren transformazio-prozesuak eta bere tratamendurako gainontzeko prozesu industrialak, erabilera produktibotzat hartzen direlako.

BIGARREN SEKZIOA: KOMUNIKAZIO ERABILERA (2. ERABILERA)

6.3.7. artikulua.- Definizioa

1. Komunikazio eta garraioren destinatzen diren areetan garatzen diren jarduerak barne hartzen ditu, bai eta pertsona, merkantzia eta edozein motako garraio publiko nahiz pribatuko ibilgailuen pasaera eta

egonaldira erreserbatutako espazioak ere.

2. Era berean, erabilera baimendu guztiak eta erabilera nagusiaren osagarriak barne hartzen ditu, esate baterako zirkulazioaren funtzionamendu egokiagoaren beharizanak betetzera destinatzen diren establezimendu publikoak, aparkamendu-areak, aparkaleku publikoak eta abar, bai eta garraioaren erabiltzaileen segurtasuna eta erosotasuna errazteko beharrezkoak direnak ere.

6.3.8. artikulua.- Kategoriak

1. Bidesare-erabilera.
2. Trenbide-erabilera.
3. Metropoli-trenbidearen erabilera.
4. Ibai-erabilera.
5. Erregaien hornitegi-erabilera.
6. Ibilgailuak kokatu eta aparkatzeko erabilera.

“Aparkamendu-areatzat” ulertzen da, galtzadatik kanpo dagoen eta ibilgailu automobilaren geltoki edo terminalera bereziki destinatzen den area edo leku irekia.

“Aparkaleku” edo “garaje-aparkaleku” izena ematen zaie, eraikuntzen zorupean, lurzoruan edo erregularki ibilgailu automobilaren zaindara destinatutako eraikuntza eskusiboetan kokatuta dauden espazioei, bai eta ibilgailuen pasaera, itxarote edo egonaldiako erantsitako lekuei ere.

Aparkalekuaren barruan ez dira sartzen automobilaren mantenimendura destinatzen diren instalazio mekaniko bereziak, hauek industri jarduerak gisa sailkatuko baitira.

6.3.9. artikulua.- Bidesarearen erabileraren baldintza partikularrak.

1. Bidesarearen erabilera-erregimena ondorengo hauen bidez zehaztuko da: Errepideei buruzko Legea eta bere erregelamendu bidezko garapenak; Bizkaiko Foru Aldundiaren Xedapenak; jabari publikoari dagokion erregulazioa; eta Arau hauetan aurreikusten dena.
2. Errepideekin mugakide diren lurrek Bizkaiko Errepideei buruzko otsailaren 18ko 2/93 Foru Arauak ezartzen dituen jabetza-mugapenak dituzte, babes-zonen artean honako hauek bereiziz: jabari publikokoa, zortasunekoa eta afekziokoa. Zona hauek errepidearen bi aldeetara zabaltzen dira eta beren zabalera, beti bere ardatzarekiko horizontalki eta perpendikularki neurtuta lur-berdinketaren kanpoko ertzetik, honako hau da:



Sarea	Jabari publikoko zona	Zortasun-zona	Afekzio-zona
Lehentasunezko interesa	8 m.	25 m.	100 m.
Oinarrizkoa	3 m.	8 m.	50 m.
Gainontzeko errepideak	3 m.	8 m.	30 m.

- Aurreko puntuan aipatu den Foru Arauean definitutako obra publikoaren mugari loturik eraikuntza berriak egokitu beharko direneko eraikuntza-lerroa, beti galtzadaren kanpoko ertzetik neurtuko dena, hiri-lurzoruan dagokion plangintzak ezartzen duena izango da.
- Bidesarearen mugakide diren ondasunen jabeak, galtzadaren ertzaren eta eraikuntza-lerroaren arteko lur-errenkada apaindura- eta garbitasun-baldintza egokian mantentzera behartuta daude, eta obligazio hori ez badute betetzen lehengo egoeran utzi beharko dute.
- Bidesarearen elementu berrien exekuzioa Proiektu Tekniko espezifikoaren (Eraikuntza-proiektua) tramitazioaren bitartez gauzatu ahal izango da.
- Planak aurreikusten duen tokiko bidesarea jabari publikoan barne hartuta geratu beharko da, legez ezarrita dauden kudeaketa-mekanismoen bitartez. Ondorioz, hala gainazalaren nola zorupearen erabilerak jabari publikoaren erregimen orokorrari loturik egongo dira.
- Gainazalean, ibilgailuen eta oinezkoen bideen berezko instalazioez gain, hiri-altzarien ezarpenari buruzko instalazio publikoak bakarrik baimenduko dira, hala nola: farolak, eserlekuak, lorontziak, garraio kolektiboko markesinak eta abar, eta, ezohiko izaeraz, erabilera berezi eta pribatiboko beste zenbait, esate baterako: gutunontziak, telefono-instalazioak, prentsa edo kupoak saltzeko kioskoak eta abar.

Era berean baimendu ahal izango dira, emakida bidez, Hornitegi-erabilerari loturiko instalazioak (1.4. erabilera), industriako erregelamendu sektoriala betetzen badute eta Hirigintza-zerbitzuek aldeko txostena jaulkitzen badute.
- Jabari publikoaren zorupean, hiri-instalazioei, garraio kolektiboei (metroa eta trenbidea) eta egoiliarrentzako nola txandakako aparkamenduei loturiko erabilerak bakarrik baimendu ahal izango dira, emakida-erregimenean. Era berean, Udalak aparkamendu-erabilera baimendu ahal izango emakida bidez, zona jakin bateko peatonalizazio-baldintzak hobetu nahi direnean edo aldameneko orubearen aprobetxamendu razionala baimendu nahi denean, batez ere bere sakonera eraikigarria 16 metrotik beherakoa denean.

- Planoetan agertzen den espaloi, galtzada eta hiri-altzarien tratamenduaren diseinu grafikoa aldatu ahal izango da, eta horrek ez du Plan Orokorraren alterazio edo aldaketarik ekarriko.

- "Salbuespenez, sestra-azpiko aparkalekuaren erabilera pribatua jasotzen da, erabilera eta jabari publikoko lurzorua azpikoa, UE-08 burutzapen-unitatean, bere ordenantza arautzailean eta planaren dokumentazio grafikoa definitutako bide publikoaren zorupearen zatian." (2008/09/16ko osoko bilkura)

6.3.10. artikulua.- Bidesare-erabileraren exekuzioaren baldintza partikularrak

Ibilgailu eta oinezkoentzako komunikazio-sarea ondorengo ezaugarri hauek kontuan izanik proiektatuko da:

Hiri-lurzoruan galtzada, espaloi eta aparkaleku edo eskailera eta arrapalek eratzen duten multzoaren dimentsioak, Plan Orokorr honetako antolamendu-planoetan irudikatzen direnak izango dira.

Zona publikoetan zoladuren exekuziorako gutxieneko ezaugarriak, ibilgailuentzat edo oinezkoentzat diren kontuan izanik, honako hauek izango dira:

a) ibilgailu-galtzadetan

Zoladura-mota: zurruna

Zeharkako sekzioa akordio paraboliko zentralarekin eta bere muturretara %1eko gutxieneko aldaparekin, rigolaren amaierako zona batekin, %2koa, 20 cm-ko gutxieneko zabalerarekin, Vitoria motako hormigoi zuriaekin, 15 cm-ko lodiera eta 17 cm-ko gutxieneko altuera duen granitozko zintarriaren bidez espaloiarekin errematatua, aglomeratutik; granito-kordioa 20 cm-ko H-150 hormigoiko geruza baten gainean asentatuko da.

Zoladura, Proctor eraldatuaren %95era perfilatu eta trinkotuko zelaiarekin osatuko da. Labe garaiko zepa geldoko edo zahorra artifizialeko oinarri bikorduna, 20 cm-ko lodierakoa, Proctor eraldatuaren %98ra trinkotua. 150 kg./cm² erresistentzia bereizgarria duen masa-hormigoizko 25 cm-ko oinarria, 15 m. bakoitzeko dilatazio-junturekin, S edo D motako berotako aglomeratuaren erregularizazio-geruza, arido ofitikoarekin eta 4 cm-ko gutxieneko lodierarekin. Errodadura-geruza gutxienez 3 cm-koa izango da. Bi itsaspen-garaztaketa emultsio kationikoarekin exekutatu da.

b) Espaloietan

Zoladura baldosa salferromo edo takodun zurikoa izango da, 30 x 30ekoa, zona nagusia dena kontuan izanik.

Zeharkako sekzioak %2ko gutxieneko aldapa izango du galtzadarantz.

Zoladura garaztaketa perfilatuaren bitartez prestatutako eta Proctor eraldatuaren %95era trinkotuko zelaiarekin osatuko da. Labe garaiko zepa geldoko edo zahorra



artifizialeko oinarri bikorduna, 15 cm-ko lodierakoa. 150 kg./cm² erresistentzia bereizgarria duen masa-hormigoizko 15 cm-ko oinarria. Ibi iraunkorrak mailazoarekin indartuko dira.

c) Oinezkoentzako pasealeku eta plazetan

Zolatutako zonak aurreko atalean zehaztutakora egokituko dira, proiektuaren justifikazio arrazoitua dagoenean salbu. Zabalerak hala gomendatzen duenean, 3 cm-ko lodierako asfaltuzko aglomeratua erabili ahal izango da harrobiko oinarri bikordunaren gainean, trinkotua, eta 1,5 cm-ko gutxieneko lodiera duen zarpeketarekin.

Eskailera publikoen gehieneko dimentsioa 16 cm-koa izango da mailarterako, gutxieneko mailagaina 30 cm-tan finkatuz.

6.3.11. artikulua.- Trenbide-erabileraren baldintza partikularrak

Trenbide-sarearen erabilera-erregimena dagokion legeria sektorialak zehaztuko du.

6.3.12. artikulua.- Hornitegien baldintza partikularrak

1. Izaera orokorrean, instalazio hauek bateraezina dira beste edozein erabilerarekin eraikin edo lurzati berean, artikuluko honetako 3. atalean adierazten diren salbuespenarekin.

Tailer, garaje eta aparkaleku estalien barruan hornigailuak espresuki debekatuta daude.

2. Joan-etorria ez oztotatzeko behar adina aparkaleku izango dituzte, gutxienez 2 plaza hornigailu bakoitzeko.
3. Erantsita dauden automobilaren zerbitzurako tailer, garbiketa-zona edo merkataritza-ekipamendu txikiek ezin izango dute 100 metro karratutik gorako azalera eduki, eta lokalaren 25 metro karratu bakoitzeko aparkaleku-plaza 1 eduki beharko dute.

Hornitegiekin zuzenean erlazionatuta ez dauden eta aurreko atalean adierazten ez diren gainontzeko instalazio- eta erabilera-mota guztiak debekatuta daude.

4. Hornitegiaren ibilgailuen mantenimendu, konponketa eta salmentarekin erlazionatuta dauden jarduerak ezin izango dira garatu.
5. Hornitegien kokapena plangintzan aurreikusita dagoena izango da. Ezin izango dira jendearen joan-etorri handiko eraikinen edo ikastetxeen mugakideak izan.
6. Hornitegiek 3000 m²-ko gutxieneko lurzatia edukiko dute, bide publikoaren aurrean egongo dena eta bertatik zuzeneko sarbidea izango duena.

6.3.13. artikulua.- Ibai-erabileraren baldintza

partikularrak

Ibai-ubideek eta beren babes-zonek okupatzen dituzten lurak jabari publikoak izango dira eta bertan ez da inolako erabilerarik baimenduko.

Erregulazio honen helburua uraren zirkulazio librea babestu eta ziurtatzea, beren gainezkatzeari saihestea eta urbanizazio- eta eraikuntza-prozesuak dagokion legeria espezifikoaren aurreikuspenen betetzea ez duela oztotatzeko bermatzea da.

Erabilera honek definitutako areetan ez da baimenduko, inolako kasutan, edozein motako eraikuntza- edo instalazio-obrak burutzea. Honez gain, Uraren Legeriak horretarako ezartzen dituen zortasun guztiak errespetatu beharko dira.

Hala eta guztiz ere, lehenago zerrendatu diren elementuekin zuzenean erlazionatuta dauden obra edo instalazioak burutzea baimenduko da, esate baterako zubiak, urtegiak, ur-hartuneak eta abar, bai eta Plan honetan edo berau garatu eta osatzen duten aurreikusita dauden ertzen kanalizazio eta urbanizaziorako obrak ere.

Obra hauetan barne hartuko dira lorazaintza, zuhaitzen zaintza eta saneamendukoak.

6.3.14. artikulua.- Garaje-erabileraren baldintza partikularrak

Antolamendurako Plan Orokorrak, Plan Partzialek, Barne-erreformarako Plan Bereziek eta Xehekapen-azterlanek ondorio horretarako definitzen dituzten zonetan kokatuta dauden oin berriko eraikin eta instalazioek, beren erabilera eta destinoaren arabera, eraikinen barruan, erantsitako eraikinetan edo eraikuntzari esleitutako lurzatiaren beraren lurretan, ibilgailuak aparkatzeko espazioak barne hartu beharko dituzte, ondoren adierazten diren modulu bereizgarrien arabera. Erabilera desberdinak dituzten eraikinen kasuan, erabilera bakoitzaren arabera beharrezkoak diren aparkaleku-plazak batura beteko da. Bide publikoetan kokatuta dauden plazak ez dira ondorio hauetarako zenbatuko.

6.3.15. artikulua.- Garaje-aparkamendurako gutxieneko plaza-kopurua, erabilera nagusiaren arabera

1. Osasun-ekipamendurako erabilera, 4. kategoria.

Gutxienez: plaza bat hamar (10) oheko eta/edo plaza bat kontsulta eta administrazioa destinatzen diren ehun (100) metro karratu erabilgarriko.

2. Ekipamendu-erabilera oro har.

Gutxienez: plaza bat ehun (100) metro karratu erabilgarriko.



3. Egoitza-erabilera (Etxebizitza).

Gutxienez: plaza eta erdi etxebizitza edo apartamentu bakoitzeko. Laurogeita hamar (90) metro karratu erabilgarritik gorako etxebizitzak baldin badaude, plaza bat barne hartu beharko da berrogeita hamar (50) metro karratu erabilgarriko edo laurogeita hamar (90) metro karratu erabilgarritik gorako etxebizitzaren gehiegizko batura kontuan hartzearen emaitzazko frakzioa.

4. Egoitza-erabilera, 4 eta 5. kategoriak (Egoitza komunitarioa eta hotel-erabilera).

Gutxienez: plaza bat hamar (10) hotel-plazako.

5. Hirugarren Sektoreko Erabilera, 1. kategoria, (bulegoak).

Gutxienez: plaza bat bulegotara destinatutako hirurogeita hamabost (75) metro karratu erabilgarriko.

6. Hirugarren Sektoreko Erabilera, merkataritza-erabilera 2 eta 3.1. kategoriatan (Txikizkako eta merkataritza-galeriak).

Gutxienez: plaza bat merkataritza-erabilerara destinatutako hirurogeita hamabost (75) metro karratu erabilgarriko.

7. Hirugarren Sektoreko Erabilera, merkataritza-erabilera 3.2 eta 3.3. kategoriatan (Erosten handiak eta Hipermerkatuak).

Gutxienez: plaza bat merkataritza-erabilerara destinatutako hogeita (20) metro karratu erabilgarriko.

8. Erabilera produktibo industrial eta biltegi-erabilera, kategoria guztietan.

Gutxienez: plaza bat industri erabilerara destinatutako ehun (100) metro karratu erabilgarriko edo biltegi-erabilerara destinatutako berrehun eta berrogeita hamar (250) metro karratu erabilgarriko. Bi kasuetan aparkaleku-plazak eraikin itxian edo lurzatian bertan aire zabalean kokatuta egon daitezke, eta kale ofizialeko plazak ez dira konputatzen.

9. Eraikina aurreko atalean adierazitako erabilera bat baino gehiagotara destinatzen denean, aparkaleku-plazak gutxienezko kopurua erabilera desberdinei dagokienak batuz lortuko da.

Aparkalekuen gutxienezko aurreikuspenei buruz xedatzen dena, eraikitako azaleraren zabalkuntza-xede diren eraikinei ere aplikagarria izango zaie. Aurreikuspena, zabalkuntzarako aurreikusitako guttizkoari dagokiona izango da.

Aparkalekuen aurreikuspenei buruzko arauak ere aplikagarriak izango dira erabilera-aldaketa suposatzen duten eraikin edo instalazioen aldaketa-kasuetan.

10. Egoitza-erabilerarako izan ezik, aparkaleku-plazak ehuneko berrogeita hamar (%50) gutxienez erabilera

librekoak izango dira erabiltzaile edo bisitarientzat.

Merkataritza-erabilera dagoenean, plazak ehuneko bost (%) gutxienez karga eta deskargarako erreserbatuta egongo dira.

Egoitza-erabilerarako izan ezik, gutxienezko kopuruari dagokion aparkaleku-plazak ezingo dira inolara ere itxi edo beste erabilera desberdin batzuetara destinatatu.

6.3.16. artikulua.- Gutxienezko eta gehieneko zuzkiduretarako salbuespenak

Ezarrita dauden gutxienezko zuzkidurak betetzetik salbuespena geratzen dira, ondorengo ezaugarri hauetako bat betetzen duten hiri-lurzoruko eraikinak:

- Laurehun (400) metro karratutik beherako azalera duen lurzati baten gainean eraikita egotea.
- Beren fatxadaren pareko aldea hamar (10) metrotik beherakoa izatea.
- Eraikin eraldatuak, birgaituak edo zabalduak izatea, edo hauek erabilerak aldatzea, edo zuzkidurak lortzeko erabateko zailtasuna frogatuta geratzea.

HIRUGARREN SEKZIOA: AZPIEGITURA ERABILERA (3. ERABILERA)

6.3.17. artikulua.- Definizioa

Azpiegitura-erabilerak oinarritzko azpiegiturak barne hartzen dituzten destinatutako dauden espazioak eta jarduerak barne hartzen ditu.

6.3.18. artikulua.- Kategoriak

1. Energia Elektrikoaren Sarea
2. Ur-hornidurarako Sarea
3. Saneamendu-sarea
4. Telekomunikazio-sarea
5. Gas-sarea
6. Hondakin solidoen tratamendua eta ezabaketa

6.3.19. artikulua.- Azpiegitura-erabileraren baldintza orokorrak

Plan Orokorraren garapen-plangintza nahiz beronen exekuzioan idazten den eta azpiegitura-instalazioak ukitzen dituen beste edozein proiektu, idazkuntza burutzen duen entitatearen eta erakunde kudeatzaileen edo, hala dagokionean, konpainia emakidadunen arteko koordinazio gorenarekin landu beharko da. Lankidetzaren lehen faseko gauzatu beharko da eta era integratuz burutuko da, prozesu osoan zehar. Dokumentazioan, entitate inplikatuaren arteko burutzapen koordinaturako beharrezkoak diren akordioei dagokiena barne hartu beharko da.



6.3.20. artikulua.- Energia Elektriakoaren Sarearen eta telekomunikazio-sarearen baldintza partikularrak

1. Energia elektrikoaren hornidurari eta telekomunikazio-sareari dagokienez, hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian ezin izango da inolako aireko instalaziorik egin.
2. Hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian, energia hornitzeko eta telekomunikazioetarako instalazio guztiak lurpean egingo dira. Horretarako beharrezkoak diren obren exekuzioa Udalak galdatu ahal izango du, lerroakadura eta sesten definizioa ahalbidetzen duten urbanizazio-obrak dagoeneko burututa egon arren edo hauek aldeberean burutzeko aukera dagoenean. Nolanahi ere, Urbanizazio-proiektu berrietan sarea lurpean instalatzea derrigorrezkoa izango da.
3. Energia elektrikoa produzitzeko azpiestazioak eta zentroak espresuki debekatzen dira udal mugarte osoan, horretarako espresuki sailkatuta dagoen Instalazioen Sistema Orokorreko lurzoruen salbuespen bakarrekin, eta dagokion Zonako Antolamenduan beronentzat jasotzen diren baldintzetan.
4. Eraikin batean Transformazio-zentroen instalazioa ezin izango da bigarren sotoaren azpitik kokatu.
5. Bide publikoa ezin izango da sestra gainean inolako instalazio laguntzailerekin okupatu, zerbitzu publikoetara lotetsitako instalazioekin salbu.

LAUGARREN SEKZIOA: EKIPAMENDU ERABILERA (4. ERABILERA)

6.3.21. artikulua.- Definizioa

Ekipamendu-erabilerak hiritarrari bere atsedenaldi, heziketa, kultur aberaste, osasun, laguntza, ongizate eta bizi-kalitatea hobetzeko beharrezkoak diren zerbitzuak eskaintzera destinatutako jarduerak barne hartzen ditu.

Beren erabilera-erregimenaren arabera publikoak edo pribatuak izango dira, lehenengoak dagozkien Sistema Orokor edo Toki-sistemetan barne hartuta egonik.

6.3.22. artikulua.- Kategoriak

1. **Administrazio-zerbitzuak.** Tokiko, Erkidegoko edo Estatuko Administrazioen eta beren organismo autonomoen ordezkartzako erabilera publikoko jarduerak eta jardura burokratikoak eta teknikoak barne hartzen dituzte, bai eta berauen funtzionamenduari zuzenean lotuta dauden jarduerak ere.
2. **Kirol-ekipamendua.** Kirolerako edo gorputz-hezikuntzako espezialitateen praktika, irakaskuntza edo erakusketara destinatutako jarduerak barne hartzen ditu, bai eta jardura nagusiaren jardura osagarriak ere. Ez ditu fisikoki eta funtzionalki beste erabilera

batzuei loturik dauden jarduerak barne hartzen, hala nola unibertsitate-erabilerak, irakaskuntza-erabilerak eta abar.

3. **Irakaskuntza-ekipamendua.** Pertsonen giza eta adimen-heziketara destinatutako jarduerak barne hartzen ditu, beren maila desberdinetan; ikerketa, zaintza eta administrazioarako jardura osagarriak ere barne hartzen ditu, hala nola jantokiak, kafetegiak, zaintza eta kontserbazioaz arduratzen den pertsonalarentzat destinatutako etxebizitza eta abar, betiere erabilera nagusiari lotetsita badaude eta beronen osagarri baldin badira.
4. **Osasun-ekipamendua.** Zerbitzu mediko edo kirurgikoen eta ospitale-zerbitzuen orientazio, prebentzio, informazio, administrazio eta prestaziora destinatutako jarduerak barne hartzen ditu, bai eta nagusiaren osagarriak diren jarduerak ere.

Ez dira despatxu profesionaletan, osasun-zentroetatik kanpo, eskaintzen diren zerbitzu medikoak barne hartzen, hauek gainontzeko profesionalak bezala hartzen baitira.

5. **Erlijio-ekipamendua.** Erlijioaren kultura destinatzen diren espazio eta eraikuntzak barne hartzen ditu, bai eta kultu honi eta elkarbizitza erlijiosorako moduei loturik daudenak ere, esate baterako komunitateak, komentuak, monasterioak, ermitak, elizak eta gune parrokiak, basilikak, katedralak, kaperak, apeztexeak edo egoitza erlijiosoak, edozein erlijiotako kulturako zentroak, eta abar.
6. **Asistentzi-ekipamendua.** Pertsonen toxikotasun, gaixotasun kroniko edo minusbalio, marjinazio, erabateko probrezia eta babes juridikorik ezarekin erlazionatuta dauden arazoei buruzko informazio, orientazio eta zerbitzugintza edo laguntzetara destinatutako jarduerak barne hartzen ditu.

Kategoria honetan barne hartzen dira, oro har, dagozkien erregistro ofizialetan inskribatuta dauden eta onegintza- eta gizarte-xedeetara destinatzen diren jardura guztiak.

7. **Atsedan, aisialdi eta ikuskizunetarako ekipamendua.** Aisialdia, harreman-bizitza, denbora libre eta, oro har, atsedanarekin lotutako jarduerak barne hartzen ditu, bai eta beste erabilera batzuetan barne hartuta ez dauden antzeko jarduerak ere, ondorengo eraikin, lokal eta instalazio hauetan burutzen direnak: zine-aretoak, antzokiak, kontzertu-aretoak, bilera-aretoak, auditorietza-aretoak, kasinoak eta kirol-jardueren irabazizko erakusketarako instalazioak.
8. **Gizarte- eta kultur ekipamendua.** Ezagutzen zaintza, transmisio eta kontserbaziora, arteen erakusketak eta ikerkuntzara destinatutako jarduerak, gizarte- eta kultur jarduerak, herreman edo elkartegintzako jarduerak eta nagusiaren osagarriak diren jarduerak



barne hartzen ditu.

Kategoria honetan barne hartuta daude, adibide gisa: kultur etxeak, kongresu eta erakusketetarako jauregiak, luburutegiak, artxiboak, museoak, erakustaretoak, auzo-elkarte, kultur elkarte, kirol-elkarte eta hiritar-elkarteen zentroak, klubak, egoitzak, eta abar.

Alderdi politiko, sindikatu, Elkargo profesional, Enpresen, gremioen eta eskulangintzazko taldeek eta antzeko entitateek burutzen dituzten erabilera kolektiboko jarduerak, bai eta hotel- eta ostalaritza-erabilerak ere, beren kategoria guztietan, baimenduta geratzen dira Plan Orokorrean definituta dauden industri sektoreetako ekipamendurako lurzoruan.

6.3.23. artikulua.- Ekipamendu-erabileraren aldaketak

Plan Orokorrean behin betiko onespeneren datan beronen planoetan ekipamendu-kalifikazioa zeukaten lurzoruak eta eraikin osoak edo hauen zati esanguratsuak, hauek kokatuta zeudeneko zona edo arearen erabilera-erregimenean beste erabilera desberdin bat izaera orokorrean baimenduta baldin badago ere, deskribatutako ekipamendu-erabilerako beste kategoriatarako batean bakarrik aldatu, ordezkatu edo birmoldatu ahal izango dira.

6.3.24. artikulua.- Ekipamendu-erabileraren iritsiera

1. Erabileren planoan Planak xede horretara destinatzen dituen lurzoruak zehazten dira, hauek Sistema Orokor edo Toki-sistema gisa hartzearen edo ez hartzearen kaltetan izan gabe. Ekipamendu-erabilerak izaera irekia dute, eta honela, ezarritako erabileraren instalazioa gauzatzeko anean hirigintza-baldintzek berauek aldatzea gomendatzen badute, hau ez da Plan Orokorrean aldatzat hartuko, erabilera hori ekipamendu-erabileren edo hiri-zerbitzuen ekipamendu-erabileren barruan mantentzen baldin bada, eta gainera eraikin berean erabilera edo kategoria hauekiko bat baino gehiago elkartu ahal izango da.
2. Eraikin berean elkartuta dauden ekipamenduen kasuan, ezarrita dagoen jardura bakoitzarentzat sarbide independentea edukitzea derrigorrezko baldintza izango da. Plan Orokorrean behin betiko onespeneren data baino lehen bertan zeuden eraikinentzat baldintza hau ez da derrigorrezkoa izango, baldin eta berau betetzea ezinezkoa dela frogatzen badute.

6.3.25. artikulua.- Txikizkako merkataritza-erabileraren tolerantzia

1. Ekipamendurako eraikinetan kokatuta dauden eta txikizkako merkataritzara destinatzen diren erabilerak bere horretan jarraitzeko aukera izango dute eta beren jardura ere aldatu ahal izango dute, inolako mugarik gabe, betiere honek beren azalera gehitzea ekartzen ez

badu.

2. Bertako eraikinaren ordezkapenaren kasuan, egungo ekipamenduen erreformagatik edo ekipamendu-erabilera berri batekin ordezkatzeagatik, eraikin berriak merkataritza-lokaletarako azalera bat barne hartu ahal izango du behe-oinetan, lehendik zegoenaren baliokidea izango dena, betiere lizentzia eman aurretik behar bezala frogatuta geratu baldin bazen.
3. Ekipamendurako eraikin berrietan txikizkako merkataritza-erabilera toleratuko da, behe-oinetan kokatutako lokaletan, betiere lokal hauek ondoren adierazten diren baldintza hauek betetzen baldin badituzte:

- Beren jabetza eta ekipamenduarena titulartasun berarekin mantendu beharko da, orubearen erabileraren eta bere jabetzaren artean erabateko elkarrekotasuna bermatzeko xedez.
- Ordutegiak jardura nagusian ezarrita daudenetara egokituko dira.
- Merkataritza-lokalen azalera eraikiak sakonerako hamar (10) metroen barruan sartuta geratu beharko du, fatxadako lerroakuraren paraleloan neurtuta beti.
- Lokalen fatxadaren garapen linealak ezingo du fatxada-lerroakuraren luzeraren ehuneko hirurogei (%60) gainditu, kalearen tarteune bakoitzean neurtuko dena.
- Adierazi diren hiru baldintzak Planak adierazitako kale-lerroakurarekin bat datozen eta, noski, hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian kokatuta dauden eraikinentzat edo fatxada-tarteuneentzat bakarrik izango dira aplikagarriak. Ezingo dira inolara ere lurzatiaren barruan kokatuta dauden eraikinetan edo fatxada-tarteuneetan aplikatu.

6.3.26. artikulua.- Dauden ekipamenduen erregimena

1. Eraikin osoetan edo hauen zati esanguratsu batean erabilera horretara destinatuta dauden ekipamendu guztiak, bai eta planoetan grafikoki adierazitako orubeak eta beren azken erabilera ekipamendu-erabilerareki bat datorreneko eraikinak barne hartzen dituzten lurzoruak, Ekipamendu-erabilerari lotetsita geratzen dira.
2. Plan honek baimendu gabeko bestelako erabilerak barne hartzen dituzten ekipamenduetara destinatutako egungo eraikinak antolamendu barnekoetat hartzen dira, erabileraren aldaketa burutzen den artean edo eraikina ordezkatzen den artean. Nolanahi ere, dauden erabilerak iraunarazteko mota guztietako brak burutu ahal izango dira, hauekin baimendu gabeko erabileretara destinatutako azalera handitzen ez baldin bada.



BOSGARREN SEKZIOA: EGOITZA ERABILERA (5. ERABILERA)

6.3.27. artikulua.- Definizioa

Pertsonen ostatatzera destinatutako eraikinetan garatzen den erabilera da.

6.3.28. artikulua.- Kategoriak

1. **Familia bakarreko etxebizitza bakana, bikoitza edo adosatua.** Eraikin baten osotasunean familia bakarra barne hartzen dutenak dira, eta eraikin hau bakanduta, adosatuta edo taldekatuta egon daiteke, berdin dio. Bere lurzatiarekin batera erregistro-unitate bakarra eratzen du, bidetik sarbide eskusibito eta independentea dauka, erabilera gutxi gorabehera murriztua duena, baina publikoa.
2. **Etxebizitza Kolektiboa.** Beste batzuekin taldekatuta egonik, eraikuntza-elementu komunak elkarrekin eta batez ere kanpoaldetik erabiltzen dituen da.
3. **Ostatua, normalki pertsona batek edo bi pertsonak okupatuta egongo dena, logelara destinatutako gela bakarrekoa bada eta bere guztizko azalera erabilgarria hirurogei (60) m²-tik beherakoa baldin bada, apartamentua izango da.**
4. **Etxebizitza Erantsia.** Instalazio baten zaintza eta kontserbazioaz arduratzen den pertsonalari destinatutako etxebizitza bakarra da. Beste erabilera nagusi baten osagarri gisa onartzen da, eskusibitoki, bere eraikuntza-gorputzaren zati gisa edo lurzatiaren barruan.
5. **Egoitza komunitarioa.** Egoitza komunitarioaren erabilera, egoitzan nolabaiteko izaera iraunkorarekin ostatu komunitarioa, jantoki-zerbitzu arruntarekin edo gabe, eskaintzen duten jardueri dagokie, etxebizitza-unitaterik eratu gabe. Etxebizitzak edo apartamentuak ezin izango dira erabilera honetan barne hartu, zerbitzu zentralizatuak baldin badituzte ere.
6. **Egoitza komunitarioko erabilera destinatutako eraikinek zerbitzu komunak eduki ahal izango dituzte, hala nola bilera-gelak, bainu termal edo medizinalen aretoak, oratorioak, jatetxe propioa, kafetegi propioa, ikuztegia, garbitasuna, eta abar.**
7. **Hotel-erabilera.** Legeria espezifikoki loturik dauden establezimenduek aldi baterako ostalua ematera destinatuz burutzen dituzten jarduerak barne hartzen ditu.

Kategoria honetatik espresuki kanpo uzten dira 7. erabilera eta 2. kategorian (txikizkako merkataritza) barne hartuta dauden taberna, jatetxe eta antzeko ostalaritza-jarduerak, erabilera nagusiari loturik ez baldin badaude.

6.3.29. artikulua.- Babes ofizialeko etxebizitza-

erabilera

Aurreko erabilera eta kategoriak edozein izanik ere, etxebizitza babestueren erabilera espezifikoki gisa definitzen da etxebizitza babes ofizialeko erregimenen batean dagoenean, erregimen hau estatuko nola erkidegoko administrazioek erregulatu arren. Aurrekoa bezala, familia bakarrekoa bakana edo adosatua, kolektiboa edo erantsia izan daiteke. Arau hauetan biltzen diren aurreikuspenak betetzat hartuko dira Behin betiko kalifikazioa edo arazuz ezarritako antzekoa lortzen denean, eta ondorio guztietarako balioa izango dute, bereziki erabilera arteko ponderazio erlatiboko koefizienteen balorazio eta aplikazioaren ondorioetarako. Kalifikazio hori galtzeak, Plan orokorrak mota honetako etxebizitzetara ematen diren hirigintza- eta ekonomi onurak automatikoki galtzea ekarriko du.

6.3.30. artikulua.- Egoitza-erabilera baldintza partikularrak

1. Egoitza-eraikuntza berrietan, espresuki debekatzen ez bada, hirugarren sektoreko erabilera (6. erabilera) 1.1 kategoria (bulegoak, etxebizitzarekin batera) baimentzen da, baina erabilera nagusiarekin jarraituz eta bere baldintzak betetz, bereziki gutxienezko etxebizitzaren baldintzak, eta bertarako sarbide independenterik gabe.
2. Egoitza-erabilera behe-oinetan eta lehen oinean merkataritza-lokalak baimentzen dira, etxebizitzetik sarbide independentea badute eta Ostalaritzako Udal ordenantza ezarritako mugak errespetatuz.
3. Egoitza-eraikinetan, merkataritzara destinatutako lehen oinak ez dira behe-oineko lokalarekiko independenteak izango, bi oinen artean kontaktua edukiz goiko edo lehen oinaren azalaren %15aren azalera erregular baliokidean.

6.3.31. artikulua.- Kanpo-etxebizitzak

Etxebizitza guztiak kanpora begira egongo dira eta, beraz, gutxienez baldintza hauetako bat beteko dute:

- a) Erabilera publikoko kale edo plaza edo espazio publiko bi bide edo gehiago edukitzea.
- b) Bide publiko irekitako espazio libre pribatu batera bi bide edo gehiago edukitzea, oin horretan 8 metroko diametroko zirkulua marraztu ahal izanik.

Etxebizitzek lehendik aipatutako espazioetako batera bi gela eduki beharko dituzte eta sei metroko fatxada alde eduki beharko dute.

6.3.32. artikulua.- Barne-etxebizitzak

Ez daude baimenduta. halakotzat hartuko dira aireztapen eta eguzkitaratzeko baldintzak betetzen ez dituztenak, edo espazio libre pribatu itxietara bakarrik ematen dutenak.



6.3.33. artikulua.- Pieza bizigarriak

Pieza bizigarri guztiak kanpoko espazioarekin komunikatuta egongo dira, 1 m²-ko gutxieneko azalera duen baoarekin eta betiere lokalaren oinak duenaren 1/8 baino handiagoa, baotik kontatzen hasi eta gutzizko sakonera 10 metrotik gorakoa ez bada.

Baibugela edo garbigelek ez dute derrigorrez zuzeneko komunikazioa eduki behar kanpoko espazioarekin, baina kasu horretan bidezko diren aireztapen-hodi eta -sistemak instalatu beharko dira. kanpoko espaziora baoarik badago, bere gutxieneko azalera 0,25 m²-koa izango da.

Bigarren argiak ez dira onartzen inolako kasutan; trasteleku edo armairuetara destinatzen den eta zuzeneko argi eta aireztapenik ez duen ezein lokalek ez du oinean 1,60 metrotik gorako alderik eduki.

6.3.34. artikulua.- Aireztapen-hodiak

Oin berriko eraikinek aireztapenerako hodiak eduki beharko dituzte, gaoiko oinetatik independenteak, lonjatik estalkira iristen direnak. Lonja edo lokal bakoitzeko 15 x 15 sekzioko hodia kokatuko da edo lonja edo lokalaren 100 m²-ko frazioko, honen azalera zifra hori baino handiagoa baldin bada.

6.3.35. artikulua.- Gutxieneko etxebizitza

1. Osaera eta programa

Etxebizitzak gutxienez egon, jan eta kozinatzeoko gela bat, logela bat, garbigela osatu bat (bainuontzi, konketa eta komunarekin) eta esekitokira destinatutako espazio bat eduki beharko du.

Hiru edo lau logelako etxebizitzetan gutxienez bi garbigela egongo dira, bat osatua eta beste dutxa, konketa eta komuna izango duena.

2. Piezen gutxieneko azalera eta dimentsioak

- Etxebizitza guztietan egongelaren (E), jangelaren (J) eta sukaldearen (S) gutxieneko azalera erabilgarriak logela-kopuruaren eta pieza bakoitzari erabilera bat edo gehiago esleitzearen arabera zehaztuko dira, ondorengo taula honen arabera:

	EJS	EJ	S	E	SJ
logela 1	18	14	5	12	7
2 logela	20	16	6	14	8
3 logela	22	18	7	16	9
4 logela	24	20	8	18	10

- Logelen gutxieneko azalera erabilgarria 6 m²-koa izango da indibidualetan eta 8 m²-koa bikoitzetan. Etxebizitza guztietan gutxienez logela baten azalera 10 m²-tik gorakoa izango da.

- Egongelaren, sukaldearen eta logelen oin-azaleran (E, EJ eta EJS) ondoren adierazten den gutxieneko diametroa duen zirkulu bat marraztu ahal izango da:

Egongela: 2,80 m.

Sukaldea: 1,60 m.

Logela nagusia: 2,50 m.

Gainontzeko logelak: 1,90 m.

- Korridoreek 0,85 metroko gutxieneko zabalera edukiko dute, eta garotzeko zabalera ezongo da berauen ezein puntutan 0,80 m-tik beherakoa izan.

- Etxebizitzetara sartzeko baoen gutxieneko zabalera era berean 0,80 metrokoa izango da.

6.3.36. artikulua.- Apartamentuak

Etxebizitza-unitatea apartamentutzat hartuko da, etxebizitza-unitatearen gutxieneko programa betez 60 m² erabilgarriak gainditzen ez dituenean.

Ezingo ditu bi logela baino gehiago eduki ez eta guztira lau pieza bizigarri baino gehiago (egongela, sukaldea eta bi logela), banaketako pieza osagarriak, bainugela eta/edo garbigela eta abar kontuan hartu gabe, hauek ez baitira pieza bizigarritzat hartuko.

Sukaldea, independentea baldin bada, estalkirako hodi batekin bakarrik aireztatu ahal izango da.

Apartamentuak, aurkako adierazpen espresua dagoenean salbu, etxebizitzekin elkar daitezke, eraikin berean, eta hauetarako onartuta dauden taldeketako edozein sor dezakete indibidualki edo etxebizitzekin batera.

Artikulu honetan adierazten diren ondorioetarako salbu, Arau hauetan etxebizitzei edo etxebizitza-unitatei buruz egiten den aipamen oro apartamentuetara hedatuko da, eta hauek, beren neurria edozein izanik ere, egoitza-unitatearen izaera edukiko dute.

6.3.37. artikulua.- Banaketa

Etxebizitza-unitatearen espazioen zatibanaketa librea da, mugapen bakar batekin, hots; logelak eta garbigelak beti espazio independenteak izango dira. Sukaldetik ezingo da zuzenean beste edozein garbigela eta logelara sartu.

Logela guztiek sarbidea izango dute zirkulazio-espazioetatik edo egonelatik, eta inola ere ezingo dute berete logela batetik sarbide bakarra izan.. Ateondoa, korridore edo banatzailea ez den beste edozein espazio ezin izango da derrigorrez igaro beharreko gunea izan beste lokal batera, bainugelara izan ezik. Kasu hauetan etxebizitzan beste bainugela bat egongo da, gutxienez, lehen bezala adierazitako sarbidearekin.

Armairu barneratuek irekitzen diren geletako azalerarako konputatuko dute, betiere gutxienez bi metroko aurrealdea eta altuera badute.



6.3.38. artikulua.- Altuerak

1. Etxebizitza-unitate guztietan gutxieneko altuera librea 2,50 metrokoa izango da, bainugela eta zirkulazio-zonetan salbu, hauetan 2,10 metrora jaitxi daitekeelarik. Altuera librea gehienez ere 3 metrokoa izango da, duplex topologiaren ondorioz egon daitezkeen altuera bikoitzeko espazioen kaltetan izan gabe, kasu horretan bi altuera bezala konputatuz.
2. Pertsonen egonaldira dedika daitezkeen pieza txapitulatuek gutxienez beren azaleraren erdia ezarrita dagoen gutxienekoaren berdina izango dute, eta azaleraren gainontzeko zatian altuera teilatuaren aldapen arabera jaitxi ahal izango da 1,50 metrora arte.
3. 1,50 metrotik gorako altuera duen piezaren azalera erabilgarri osoa kubikatzetik ondorioztatzen den bolumena, aurreko artikuluetan pieza desberdinetarako definitutako azalera eta altuerarako baldintzak aplikatzearen ondoriozkoaren baliokidea izango da gutxienez.

6.3.39. artikulua.- Sukalde eta garbigeletako aireztapen-baldintzak

1. Sukaldeek aireztapen eta ke-hustuketarako ongorengo hodiak izango dituzte estalkira arte:

Gori-aireztapenera destinatutako bat, kolektore orokorrean 400 cm²-ko gutxieneko sekzioa eta hodi indibidualetan 150 cm²-koa izan beharko duena.

Bigarren bat etxebizitza bakoitzerako independentea, sukaldetik datozen keak eta gasak hustutzero destinatua. Sukaldea egongelari inkorporatuta dagoenean, hodi horrek aireztagailu zentrifugo bat eduki beharko du, 300 m³/ordu ateratzea bermatuko duena.

Hirugarren bat ur beroko eta berokuntzako berogailu edo galdararen konbustio-gasetarako, berau sukaldean kokatuta baldin badago.
2. Garbigelek eta despentesek aireztapen-hodi bat izango dute eraikinaren estalkira arte, aurreko atalean adierazi bezala.
3. Aireztapen-hodi guztiak estalkian zurgagailu estatiko batekin errematatuta egongo dira, konbustio-gasen hustuketara destinatutakoak salbu, txapel itxurako elementuekin errematatutako direnak.

6.3.40. artikulua.- Zaborrrerako gelak

Eraikitzen diren eraikin berriek zaborrak Udalak normalizatutako ontzietan sartzeko gela bat eduki beharko dute (gelaska honen azalera 2 m²-koa izango da 12 etxebizitzako, gutxienez 0,80 m-ko zabalera eta 2,80 m-ko altuerarekin).

Gela honen lurzoruak zoladura leundu eta iragazkaitzezkoa izango du, erabat garbigarria eta %1 eta

%2ren arteko aldaparekin eraikinaren estolderiara lotutakohustubide baterantz. Era berean, gela ureztatzeko ur-hartunea izango du kanika edo bolako 2 giltzarekin eta mahukarekin, lokalaren azalera osoa estali beharko duena. Hormak aliketatuta egongo dira sabaiaraino.

Aireztapen ona eduki beharko du, teilategalaren gainetik 2 m-ko altuerara dagoen hodiarekin, argiztapen artifiziala eta sakagailu denborizatuko etengailua. Lokal hauek higiezinaren etxabeetan kokatuko dira, jasoketarako ibilgailua dabilen kale publikoaren espaloia sestraren eta higiezinako garajeen irteeraren alboan, sarrera horren ibi iraukorraz baliatzeko zaborra kargatzerakoan.

SEIGARREN SEKZIOA: HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERA (6. ERABILERA)

6.3.42. artikulua.—Definizioa

Hurrengoetarako diren jarduerak egitea: merkataritzako transakzioak, zerbitzu pertsonal, administratibo, tekniko edo monetazkoak, merkatugaikoak, salbu eta ekipamendu eta hiri eta administrazioak

6.3.43 artikulua.—Kategoriak

1. Bulegoak:

Bulegoen erabilera barruan daude zeregin enpresa, administrazio, burokrazia, teknika, sorgarritasun, monetazkoak eta zerbitzu finantzario eta informazioak ematekoak, eta bitartekari profesionalenak eta antzeko zerbitzuak.

Egoera honetan sartzen dira, adibide gisa, bankuen egoitzak eta bulegoak, aholkularitzak, agentziak, enpresen egoitza sozial edo teknikoak, langela, idazgela eta kontsulta profesionalak, aseguru baltzuak, bulegoak, errentamenduzko zerbitzuak, bulegoak orokorrean, e.a.

Tamainaren arabera, hona haien azpisailkapena:

1.1. Idazgela profesionalak, 100 m²-tik beherako azalera erabilgarrikoak eta, erabilera nagusia modura izaten dirauen etxebizitzarekin bat eginik daudenez gero, horren baldintzak bete egiten dituztenak, batik bat gutxieneko etxebizitzari dagozkionak, eta beronetik aparteko sarbidea eduki ezin dutenak.

1.2. Idazgela profesionalak eta bulego administratiboak eta teknikoak orokorrean, bai aparteko eraikinean zein beste erabilera bat duen eraikinean daudenean, baina beti aparteko sarbidearekin.

Eraikitze-data 1985eko abenduaren 17tik lehenagokoa duten etxebizitza kolektiboko eraikinetan, idazgela profesional, kontsulta eta, orokorrean, bulego administratibo eta teknikotarako jarduketarako eguneratzeko eta obretarako lizentzien instalazio, legeztatze edo kontzesioa ahalbidetuko da, nahiz eta higiezinako atari komunitate aparteko sarbiderik izan ez, beti ere egiaztatu egiten bada sortzen duen pertsonen trafikoa ez dela 6



[pertsone/ordukotik gorakoa.](#)

2. Txikizkako merkataritzakoa, hitzartu gabeko izaerakoa

2.1. Merkataritzako erabilera. Aurretiazko erakusketa eta, txikizka, merkaturagailu edo zerbitzu pertsonalen erosketa, salmenta edo trukaketarako jarduerak dira, beren berehalako pilaketa barne, non ezarri egiten dela harreman kualifikatu gabea hurrengoetan: trukaketa eta ondasun eta produktuen merkaturatzeko diren jardueretan, makinaria txikiaren konponketan, zerbitzu pertsonaletan eta, orokorrean, zerbitzuen eskaintzan.

Ondasun eta produktuen merkaturatzean sartzen dira, adibide gisa, hurrengo dendak: elikadura, edariak, tabakoa, ehunak, jantzizigintza, lurrindegiak, drogadendak, etxeko ekipamendua eta ehunak e.a.

2.2. Ostalaritzako erabilera. Ostalaritzako zerbitzuak eskaintzen dituzten artean daude: jatetxeak, tabernak, kafetegiak, dastalekuak, pubak, diskotekak, jolas-aretoak, jai-aretoak e.a.

Horien berariazko arautzea, ondorio gehigarriak sorrarazten dituzten ostalaritza eta joko eta jolas aretoen establezimenduen kokapen, instalazio eta ikuskaritzako baldintzen udal ordenantza arautzailean dago.

3. Txikizkako merkataritzakoa, izaera trinkoa duena:

Hona horien azpisailkapena:

3.1. Merkataritza zentroa eta Merkataritzako galeriak:

Aurreko egoeran adierazi diren jarduera berdinak ditu, nahiz eta kasu honetan modu trinkoan burutu, sarbide eta elementu komunekin. Egoera hau, beste erabilaren izaera osagarrian ulertzen da, eta ez eraikin eskusiboetan.

Merkataritza zentroa eta Merkataritzako galeriaren izaera hartzen da, elementu eta sarbide komunak merkataritzako hiru unitate edo aparteko jardueratik gora erabiltzeagatik edo azalera erabilgarriko berrehun eta berrogeita hamar (250) metro koadrotik gora edukitzeagatik.

3.2. Erosetxe handiak:

Aurreko apartatuetan zerrendatu diren moduko jarduerak ditu, berezitasuna izanik eraikin eskusibo baten erabilera nagusia direla, ezar daitezkeen erabilera osagarriei kalterik egin gabe. Erosetxe handiaren kontzeptuak, horretarako den espazio osoaren kudeaketa bakarra du ondoriozko.

3.3. Hipermerkata:

Gorago zerrendatu diren txikizkako merkataritzako jarduerak dira, seihun (600) metro koadrotik gorako azalera handitan, ia beti horizontalak, garatuak, sektore edo adar jakin batean espezializazioaren inguruan lagunduak.

6.3.44. artikulua.- Bulego-erabileraren baldintza partikularrak

1. Bulegoetara destinatutako lokalak Arau hauetako

Zazpigarren Tituluan aurreikusten diren kalitate eta higieneari loturiko baldintzetara egokituko dira. Bulegoetara destinatutako lokalak ez dute erakusleio, salmenta-gune edo publikoarentzako gunerik izango bide publikoarekin kontaktu zuzenean.

2. Erdisotoetan finkatzen diren eta bide publikotik sarrera duten bulego-lokaletan desnibela eskailera baten bidez gaindituko da metro bateko sakonera duen mailburuarekin gutxienez. Eskailera honen zabalera metrotik gorakoa izango da. Sarreraren altuera librea gutxienez 1,90 metrokoa izango da eta lokalarena gutxienez 2,70 metrokoa.
3. Erdisotoan finkatzen diren bulegoak ez dira goiko lokaletik independenteak izango, eta honi eskaileren bidez loturik egongo dira, gutxienez ere 1,30 metroko zabalarekin, publikoak erabiltzen dituzte. Erdisotoan dagoen lokal honen altuera librea gutxienez hiru metrokoa izango da.
4. Gainontzeko oinetan, bulego-lokalen gutxienezko altuera Ordenantza orokorretan finkatzen dena izango da.
5. Auzokoei eta oinezkoiei oztopoak, usainak, keak zaratak eta bibrazioak ezabatuko direla bermatzeko beharrezkoak diren instalazioak galdutako dira.

6.3.45. artikulua.- Merkataritza-erabileraren baldintza partikularrak

1. Lokalean jendearentzat destinatutako zonak ezingo du etxebizitzekin zuzeneko komunikazioa ez eta sarbiderik ere izan. Eraikinean etxebizitza-erabilera baldin badago, hauek eskailera, sarrera edo igogailu independenteak izango dituzte. Merkataritza-lokalen eta beren biltegiak ezingo dira komunikatu etxebizitzekin, eskailera-kaxa edo ezkaratzekin.
2. Behe-oinaren azpitik ezartzen diren saltokiak ezingo dira goian duten lokaletik independenteak izan, eta hauekin lotuta egon beharko dute gutxienez 1,30 metroko zabalera duen eskailerarekin.
- Lehen oinean ezartzen diren saltokiak ezingo dira azpian duten lokaletik independenteak izan, eta hauekin lotuta egon beharko dute gutxienez 1,30 metroko zabalera duen eskailerarekin, oin osoa merkataritza-erabilerara dedikatzen denean eta bere sargarritasuna behar bezala ziurtatzen denean salbu.
3. Publikoaren zerbitzurako eskailerek, merkataritza-lokaletan, gutxienez 1,30 metroko zabalera izango dute, eta edozein kasutan establezimenduan aurreikus daitezkeen erabilera-intentsitatearen arabera izango da.
4. Merkataritza-lokalek **zerbitzu sanitarioak izan behar dituzte, indarren dagoen legeriaren arabera, Laneko Segurtasun eta Higienaren gainean. Edozein kasutan, merkataritzako jarduerak 10 pertsona baino gehiago**



izango balitu, garbigela bakar bat izan beharko du, bai gizon bai emakumeentzat bakarra, hori mugikortasun murriztua duten pertsonentzat egokitua egon behar du, eta komun bat eta konketa izan behar ditu; eta hori horrela, 11 pertsonetarik hasita sexu bakoitzarentzat garbigela bat egon behar du, eta guztientzat izango den garbigela egokitua. Zerbitzuek ezingo dute zuzenean gainontzeko lokalekin komunikatu, eta hori horrela, aurretik isolatuko duen eremu edo atondo batekin instalatu beharko da. (Aldaketa 2010/01/28ko Udalbatza).

Multzo bat osatzen dutenean, Azoka, Elikadura-galeria eta Merkataritza-pasaietan gertatzen den bezalaxe, lokal bakoitzari dagozkion komun-zerbitzuak taldekatu ahal izango dira, aurreikus daitekeen eskaria estaltzeko moduan, lokal indibidualenak batuta..

6.3.46. artikulua.- 3. kategoriarako baldintza gehigarriak

1. Ez dira seiehun (600) metrotik gorako azalera duten hipermerkatuak onartzen egoitzarako hiri-areetan.
2. Seiehun (600) metrotik gorako azalera duten hipermerkatuetan, eraikitzekeko lizentzia emateko zera frogatu beharko da: establezimendu hauek trafikoaren gainean eragin ditzaketen inpaktuen onargarritasuna, hala inguru hurbilean nola ukituta gera daitezkeen hiriko beste puntu batzutan. Teknikari eskudun batek burututako trafiko-azterlana aurkeztu beharko da.

Ondorengo zehaztapenak bete beharko dituzte, Sekzio honetan barne hartzen diren eta aplikagarriak zaizkien zehaztapenez gain.

a) Sargarritasuna

I. Ibilgailu-trafikoaren sarbidea bide nagusietatik zerbitzu-bideen bitartez egin beharko da, lurzorua kalifikazio-planoetan era desberdinean ezartzen diren kasuetan salbu.

II. Karga eta deskarga lanak gainontzeko trafikoetatik banadutako zonan egin beharko dira, lehentasunez kalearen mailan kokatua egongo dena, eta itxaroteko espazio bat eta igarotzeko beste bat edukiko dute.

III. Oinezkoen sarbidea proiektuan ezarri beharko da, merkataritza-zentroa kokatuta dagoen zonako oinezkoentzako sarearekin nola artikulatzen den zehaztuz.

IV. Zentro edo galeria gisa antolatutako merkataritza-lokalak (3.1 erabilera), Zonako ordenantzan hala baimentzen bada, behe-oinean eta lehen oinean eskusiboki ezar daitezke. Horretarako galeriak jendearentzat gutxienez bi sarbide izango ditu, 4 metroko gutxienezko zabalerakoa bakoitza, eta elkarrengandik urrun dauden puntuetan kokatuta.

b) Ibilgailu-aparkalekuak

I. Lokalen guztizko azalera, beren biltegi eta egoitzak barne, 600 metro karratutik gorakoa denean, lurzati edo eraikinaren barruan, derrigorrezko aparkalekuez gain, hornidura eta banaketarako ibilgailuen karga eta deskargarako eragiketarik burutzeko espresuki egokitutako espazioak edukiko dituzte, derrigorrezko aparkalekuen ehuneko hamarreko (%10) zenbatekotik gorako plaza-kopuruarekin.

II. Zentroko erabiltzaileentzako ibilgailu-aparkalekuak kalearen mailan kokatu ahal izango dira erabilera espezifikoko areetan, edota desnibelean eraikinaren soto, oin edo estalkietan; nolabahi ere, aparkalekuan eta beren sarbideetan bide publikotik sor daitezkeen kontrako inpaktuak (bisualak, akustikoak, bibrazioak, kea, zarata, eta abar) behar bezala konpondu beharko dira pantailak eta abar jarritz.

ZAZPIGARREN SEKZIOA: PRODUKZIO ERABILERA (7. ERABILERA)

6.3.47. artikulua.- Definizioa y Kategoriak

Produktzio-erabilera, materia eta produktu landuen fabrikazio, transformazio eta biltegitratzeari dagokiona da.

1. Industrialak.

Sortzen dituzten ondorioen arabera, jarduera hauek lau azpikategoriatan sailkatzen dira.

Beren kokamenduaren arabera ezartzen dira 6.2.1.2. artikuluan Hirigintza-arau hauetan barne hartzen diren erabilera guztietarako definitu diren sei egoerak.

Jarraian adierazten diren mugak aplikatzeko honako arau hauek kontuan izango dira:

Potentzia konputatuak es du karga-jasogailuak, igogailuak, labe elektrikoak, aire-egokigailuak, berogailua eta lokala egokitzeko edo bere mantenimendurako beste batzuk eragiteko behar adinako potentzia barne hartuko, ez eta instalatzen diren elementu zuzentzaileei dagokiena ere.

Potentziaren dentsitatea zehazteko konputatutako azalera industri jarduerara destinatutakoa bakarrik barne hartuko du, despatxu, bulego eta industrialak ez diren beste egoitza osagarrietarako erabil daitekeena kanpo utziz.

Gehieneko mugak, beren kokalekuan baimen daitezkeen kategoria gorenari dagozkionak izango dira.

1.1. Etxebizitza-eraikinean edo barruan onartutako jarduera. (6.2.1. artikulua 2. paragrafo a eta b egoerak). Etxebizitzarentzat gogaikarriak ez diren jarduerak barne hartzen ditu, eta eskuz eragindako makinak edo aparatuak edota bakoitzak 1 Kw.tik beherako potentzia duen motoreak erabiltzen dituzten



eta erabilera horretara 200 m² eraiki baino gutxiago destinatzen diren izaera indibidual edo familiarrekoak barne hartzen ditu.

Kategoria honetan barne hartua egoteko, instalatzen den potentzia ez da 0,03 kw/m²-tik gorakoa izango, eta instalatzen den potentzia, guztira, 3 kw-tik beherakoa izango da.

1.2. Etxebizitzarekin bateragarria den jarduera. (6.2.1. artikulua 2. paragrafo c eta d egoerak). Gas, hauts edo usainik sortzen ez duten eta aldameneko etxebizitzentzat gogaikarriak izan daitezkeen zarata edo bibrazioak sortzen ez duten tailer edo industria txikiak barne hartzen ditu. Zortzi lanpostu baino gutxiago eta 3 kw-ko potentzia baino txikiagoko motoreak dituzten industria edo tailerrak barne hartzen dira, guztizko azalera eraikia 600 m²-tik gorakoa ez denean.

Kategoria honetan barne hartua egoteko, instalatzen den potentzia ez da 0,045 kw/m²-tik gorakoa izango, eta instalatzen den potentzia, guztira, 15 kw-tik beherakoa izango da.

1.3. Egoitza-zonetan onartzen ez den baina industrial, hirugarren erabilerako edo misto gisa kalifikatutako zonetan onartzen den jarduera. (6.2.1. artikulua 2. paragrafo e eta f egoerak). Neurri zuzentzaileak hartu arren etxebizitzarentzat gogaikarriak izan daitezkeen jarduerak dira, eta beraz ez dira egoitza-zonetan onartuko, baina bai ordea industri edo zerbitzuetarako zonetan. Industria bakoitzeko gehieneko azalera eraikia ez da 1000 m²-tik gorakoa izango ez eta instalatutako potentzia 48 Kw-tik gorakoa izango ere.

Kategoria honetan barne hartua egoteko, instalatzen den potentzia ez da 0,06 kw/m²-tik gorakoa izango.

1.4. Beren neurria, instalatutako potentzia edo sortzen duten nekeagatik aurrekoetan barne hartu ezin diren industri jarduerak.

2. Etxebizitzarekin bateragarria den biltegia, etxebizitza-erakinean, baina sarbide independentearekin.

En esta categoría se distinguen las siguientes:

2.1. Handizkako merkataritzarik gabeko biltegia, materia, ondasun edo produktu inokuoak edo gogaikarri gisa sailkatuak biltegitzera dedikatzen diren jarduerak barne hartzen ditu, betiere dagozkien neurri zuzentzaileak betetzen baldin badituzte. Lokal hauetan banaketa errazteko beharrezkoak diren eragiketa sekundarioak egin ahal izango dira, hala nola paketatzea, etiketa jartzea eta abar.

2.2. Handizkako merkataritza duen biltegia, gehieneko azalera osoa 250 metro karratukoa dutenak, produktu inokuoak edo gogaikarri gisa sailkatuak biltegitzera eta saltzera dedikatzen diren

jarduerak barne hartzen ditu, betiere dagozkien neurri zuzentzaileak betetzen baldin badituzte, eta, oro har, jendaurreko zuzeneko salmenta-zerbitzurik ez duten biltegiak.

3. Etxebizitzarekin bateraezina den biltegia, handizkako salmentarekin edo gabe.

Jarduera osasungaitz, kaltegarri edo arriskutsu gisa salkatzea eragiten duten ondasun eta produktuen biltegitratze eta salmentara dedikatutako jarduerak barne hartzen ditu.

6.3.48. artikulua.- Osaera- eta estetika-baldintzak

Industri eta biltegi-jarduerak, eraikin propioetan, honako zehaztapenak kontuan izan beharko dituzte:

1. Bulego eta zerbitzuetako eraikinak lurzatiarako sarbidearen aldamenean kokatu beharko dira, beren fatxada nagusia lerrokadura nagusirako doikuntza bidez garatuta.

Lurzatiaren barnean ez da bulego edo zerbitzuetarako eraikinen eraikuntzarik onartzen alde aurretik lurzatiaren alde nagusiaren eraikuntza ez bada osatu erabilera horietara destinatutako eraikinekin, lurzatiaren alde nagusiztat hartuz lerrokadura nagusiak dewfinitzen duena.

2. Fatxadaren frontea bulego eta zerbitzuetara destinatutako eraikinarekin estalita ez dagoen zatietan, frontea fabrikazio edo biltegitratzerako nabeekin osatu beharko da bere osotasunean, fatxada-tratamendua bulego-gorputzean erabilitako tratamendura egokituz.

3. Fatxaden akabera kalitate oneko materialekin egin beharko da eta bere elementuak harmonikoki kokatuta egongo dira. Debeakututa dago erabilitako materialak faltsutzea, eta beren benetako balioarekin aurkeztuko dira.

4. Hala mehelin-hormak nola ondoren zabal daitezkeen paramentuak fatxada bat bezala tratatu beharko dira, eta obra amaituaren kalitatea eskaini beharko dute.

5. Kanpoko paramentuen gainean zuzenean pintatutako errotuluak erabiltzea debekatuta dago. Nolanahi ere, erabiltzen diren errotuluak agente atmosferikoak jasaten dituzten materialekin egingo dira. Eraikinaren jabeak izango dira beti beren mantenimendu- eta kontserbazio-egoera egokiaren erantzule.

6.3.49. artikulua.- Produkzio-erabileraren baldintza orokorrak

1. Produkzio-jarduera bat baimentzeko, honek Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, kaltegarri eta Arriskutsuen Erregelamenduak, garatzen den jarduera espezifikorako aplikagarria den legeriak eta dagozkien Udal Ordenantzek ezartzen dituzten baldintzak bete beharko dira.



2. Argiztapena eta aireztapena modu naturalean ez bada egiten, argiztapen, aireztapen eta aire-egokitzapenerako instalazioen proiektuak aurkeztu beharko dira, xehetasun-maila handiarekin, Udalak onartu ahal izateko, eta instalazio hauetan aldizkako ikuskapenak egingo dira lokala ireki aurretik eta bere funtzionamenduan zehar.
3. Higiene-zerbitzuak laneko Segurtasun eta Higieneari buruzko Ordenantzan edo aplikatu daitezkeen bestelakoren batean ezarritakoarekin arautuko dira. Hala eta guztiz ere, industri-erabilera, tailer eta biltegi guztietan derrigorrezkoa izango da gutxienez garbiketa eta garbiketa aurreko unitate bat instalatzea, lehendik adierazitakoaren kaltetan izan gabe. Hauetan, lurzoruen eta hormen estaldurak material iragazkaitzekin eta erraz garbi daitezkeenik egingo dira.
4. Industri eraikin orok honako baldintza hauek bete beharko ditu:

Beren barruan atezain edo zaindaria erantzako etxebizitza bakarrik egongo da.

Merkantzien sarbidea eskusiboa izango da, eta pertsonen sarbidearekiko independentea fatxadak lerrera arte.

Merkantzien karga eta deskargarako zona bat eduki beharko du, eta honetarako sarbidea edukiko dute biltegi edo industriara destinatutako lokal guztiek, eta oineko 600 m² bakoitzeko kamioi-plaza baterako adinako edukiera izango du. karga eta deskargarako zona honetako sarbidea bide publikotik zuzenean egin ahal izango da, maniobrarik gabe.

10 metrotik gorako zabalerako kalean kokatu beharko dira.
5. Inoiz ezingo zaio kategoria murriztu goragoko kategoriako jardura bati.

6.3.50. artikulua.- Industri erabileraren giro-baldintzak

1. Ez dago baimenduta errautsa, hautsa, kea, lurrina, gasa edo aire, ur edo lurzoruen poluzioa ekar dezakeen antzekorik emititzea, osasunari, animalia edo landareen aberastasunari eta bestalako jabetzei benetako arriskua ekartzen badiete, edo prozesuarekin zerikusirik ez duten pertsonak zikintzen badituzte.
2. Ez da inolako isurketarik egingo ubide libreran, aldeztu aurretik organismo eskudunaren eta Udalaren onepena ez bada jaso isurketa-lizentziaren bitartez, betiere isuriaren osaera-mugak erregelamenduz adierazitako eskakizunetara egokitzen badira.
3. Isurkinen emisio-mugak, hala girora nola estolderiara egiten direnak, dagozkien Udal ordenantzek ezartzen dutenera eta dagozkien legeria sektorialera egokituko dira.

6.3.51. artikulua.- Ibilgailuak konpontzeko tailerren erabileraren baldintza partikularrak

1. Konponketa-tailerak, bereziki autoenak eta garbiketatuak, bigarren kategoriako industriadat hartzen dira ez badituzte muga hauek gainditzen: zortzi lanpostu, 3 Kw-eko gehieneko potentziako motoreak, metro karratuko 0,045 kw-ko potentzia dentsitatea, eta 40 DbA Leq 1 minutuko egunez eta 30 minutuko gauez duen zarata-maila. Egoitza-lurzoruan kokatuta dauden mota honetako bi tailerren artean, 100 metroko distantzia egongo da, 6.3.65 artikuluan irizpideen arabera neurtuta.

Udal mugarte osoan auto-hilerriak instalatzea debekatuta dago.

2. Ibilgailuak konpontzeko tailerrek itxaroteko azalera bat eduki beharko dute, ibilgailuak aparkatzera destinatua, tailerrera benetan destinatzen den azaleraren berdina izango dena. Egonaldia, aparkamendua edo konponketa debekatuta dago bide publikoan.
3. Motoreak probatzeko zonetan, ke-hustuketarako sistema berezi independentea instalatuko da.

6.3.52. artikulua.- Biltzei-erabileraren baldintza partikularrak

1. Biltzeiratzeko eraikin edo nabeek industri eraikuntzarako ezarritako ezaugarriak bildu beharko dituzte.
2. Jardura osagarriak barne hartzen dituztenean, jardura bakoitzaren arabera aplikagarriak zaizkien baldintza espezifikak bete beharko dituzte.
3. Arrikugarritasun edo su hartzeko maila altua duten materialak, kaltegarri, osasungaitz edo arriskutsu gisa kalifikatuta daudenak, ezingo dira biltzeiratu.
4. Biltzeiratzeko materialaren karga eta deskarga lanak eta mugimendua, lokalen barruan burutu beharko dira, hauetarako behar adinako espazioa egokituz, ezarritako dauden zarata-mailak gainditu gabe, eta horrela gertatzen ez denean, beharrezkoa isolamendu akustikorako sistema hartu beharko da.

6.3.53. artikulua.- Industri erabileraren baldintza partikularrak

1. Industri erabilerari eta industri elementuen erregimenari edo ingurugiroaren babeserako eta zarata, bibrazio, ke, usain edo beste edozein poluzio-formaren kontra gaur egunean dauden Ordenantzak edo etorkizunean aldarrikatzen direnak, industri erabileraren arau-multzoan barne hartzen dira eta derrigorrez eta zuzenean bete beharko dira, lotura indibidualko errekerimendu edo aurretiazko egintzarik beharrezkoa ez delarik.
2. Industri jardura bat martxan jartzeko beharrezkoa



izango da instalazioaren teknikari arduradunak luzatutako ziurtagiria, berau baimendutako proiektuari erabat egokituta burutu dela, ezarrita dauden soinu-mugak gainditzen ez direla eta proposatzen diren sistema zuzentzaileek proiektuan eta dagokion lizentzian ezarritako mugak gainditzen dituzten nekeak edo bestelako ondorioak murrizten dituztela egiaztatzen duena.

3. Industri erabilerara destinatutako lokal bakar bat ere ezin da sotoan instalatu.
4. Bigarren kategoriako industri erabilerak barne hartzen dituzten eta etxebizitzetarako eraikinetan kokatuta dauden lokal guztiek etxebizitzarekiko independentea den sarbidea edukiko dute.
5. Argiztapen eta aire-egokitzapenerako instalazioen proiektu xehekiak aurkeztu beharko dira, indarrean dauden legezko xedapenak bete beharko dituztenak, eta hauek lokala ireki aurretik eta irekita edo martxan dagoenean berrikusi ahal izango dira.

Egokiak ez badira edo behar bezala funtzionatzen ez badute, bidezko diren neurri zuzentzaileak hartzen ez diren bitartean Udalak lokalaren itxiera partziala edo erabatekoa agindu ahal izango du.

6. Auzokoei eta oinezkoiei oztopoak, usainak, keak zaratak eta bibrazioak ezabatuko direla bermatzeko beharrezkoak diren instalazioak galdutako dira.

Materialen ezaugarriek ez dute utziko kanpora edozein kasutan 40 DbA gainditzen ez dituzten zarata edo bibrazioak ateratzen, eta 30 DbA gaueko 10etatik goizeko 8rak bitartean.

7. Industri lokalen guztizko azalera, beren egoitzak barne, 600 metro karratutik gorakoa denean, lurzati edo eraikinaren barruan, derrigorrezko aparkalekuez gain, hornidura eta banaketarako ibilgailuen karga eta deskargarako eragiketak burutzeko espresuki egokitutako espazioak edukiko dituzte, derrigorrezko aparkalekuen ehuneko hamarreko (%10) zenbatekotik gorako plaza-kopuruarekin.

ZORTZIGARREN SEKZIOA: ESPAZIO LIBRE ETA BERDEGUNEEN ERABILERA (8. ERABILERA)

6.3.54. artikulua.- Definizioa

Eraikuntzatik aske dauden espazioak barne hartzen ditu, lorategiekin edo gabe, biztanleriaren atsedean, aisi, astialdi eta jolasera, bide eta eraikinen babes eta isolamendura eta hiriaren ingurugiro- eta estetika-baldintzak hobetzera destinatuta.

Erabilera honetan barne hartuta daude espazio libre eta oinezkoentzako pasealekuetarako area gisa definitutako Toki Sistemak.

Erabilera honek izaera publikoa du eta eraiki gabeko edo beren erabilpena erraztera eskusiboki destinatutako

eraikuntza edo instalazio txikiak dituzten espazioen erabilpenean oinarritzen da.

Titulartasuna pribatua denean ez dira Toki-sistema edo Sistema orokor gisa hartuko.

6.3.55. artikulua.- Kategoriak

1. Titulartasun publikoko berdeguneak eta oinezkoentzako areak.
2. Jabetza pribatuaren gaineko erabilera publikoko espazio libreak.
3. Erabilera eta jabetza pribatuko espazio libreak.

6.3.56. artikulua.- Erabilera-baldintzak Espazio Libre eta Berdeguneetan

1. Etxebizitza: etxebizitza-erabilera debekatuta geratzen da.
2. Merkataritza-erabilera: haurrentzako artikulak, landareak, tabakoa, aldizkariak eta abar saltzeko kiosko txikiak bakarrik, guztira 25 m³-ko gehienezko bolumenarekin.
3. Bulegoak: udal-bulego txikia, soilik parke-erabileraren berezko zerbitzura lotetsita, 60 m³-ko gehienezko bolumenarekin.
4. Kulturala: soilik liburutegi-kioskora baimentzen da, guztira 25 m³-ko gehienezko bolumenarekin.
5. Kirola: aire zabaleko kirol-pistak onartzen dira, parkearen azaleraren %5eko mugarekin.
6. Sanitarioa: sorospen-gune gisa bakarrik baimentzen da, guztira 100 m³-ko gehienezko bolumenarekin..
7. Parke edo lorategiaren zerbitzurako instalazioak baimentzen dira, esate baterako lorazaintzako eta garbiketako tresnetarako biltegiak, negutegiak eta garbigelak.
8. Garraio-azpiegitura: lurpeko garaieak eta aparkalekuak egitea baimentzen da, Udalak titulartasun pribatuko lurzoruetan hitzarmen bitartez baimenduko dituenak.
9. Gainontzeko erabilerak debekatuta daude.

6.3.57. artikulua.- Titulartasun Publikoko Espazio Libre eta Berdeguneen baldintza partikularrak

1. Espazio Libre eta Berdeguneek izaera horri eutsiko diote, batez ere zuhaitzekin eta lorategiekin, baina haurrentzako instalazioak eta estali eta itxi gabeko azalerako kirol-jarduerak onartzen dira.
2. Baimendutako instalazio edo eraikinak, osaerari dagokionez, ingurunera egokituko dira, eta ahal den neurrian, ekidin egingo dira lurzoru horiek ezaugarritzen dituen eraiki gabeko eremu libreen izaera narriatu edo aldatuko duten formak, bolumenak, gainazalak, materialak edota instalazioak; salbuespena egingo da, hala ere, malda daukaten partzeletan edo hegaletan eraikitzen diren aparkaleku-garajeen



ondorioz sortzen diren ageriko eraikinetan.

3. Kutur edo jolas eta ikuskizunetarako erabileren behin-behineko instalazioak baimen daitezke.
4. Baimentzen diren instalazio edo eraikuntzak, izaera orokorrean, aldibaterako administrazio-lagapen erregimenean baimenduko dira, eta kasu guztietan lurzorua udalaren jabetzakoa izango da.
5. Toleratutako eraikuntza bakarrak espazio libre horien zerbitzurako ekipamendu eta instalazioetara destinatutakoak izango dira, kontzeotu honen barruan onartuz ostalaritzakoak emakida-erregimenean.
6. Zorupen aparkaleku autonomoak baimen daitezke.
7. Edari, izozki eta antzekoetarako kasetak, saltokiak, beladoreak, terrazak eta behin-behineko instalazioak (garaikoak) baimendu ahal izango dira, Udalak emakida-mota hauetarako ezarritako erregimen orokorraren arabera.

6.3.58. artikulua.- Erabilera Publiko eta jabetza Pribatuko Espazio Libreak

Plan Orokorra, dokumentazio grafikoan seinalatutako leku jakin batzuetan, Erabilera Publikokoak diren baina jabetza pribatuko erregimenean dauden Espazio Librearen erabilera destinatutako lurzorua egotea barne hartzen du.

Lurzoru hauek erabiltzeko baldintzak aurreko artikuluan adierazitakora egokituko dira, baina gainazalean baimenduko diren okupazio bakarrak kasetak, saltokiak, beladoreak eta abar izango dira, egitura desmuntagarriekin eraikiak, baimenak urte osoan ematen badira ere, laugarren tituluan erregulatzen diren behin-behineko erabilerentzat adierazten diren tramitazio-baldintza berberekin.

6.3.59. artikulua.- Erabilera eta Jabetza Pribatuko Espazio Libreak

Plan Orokorra, dokumentazio grafikoan seinalatutako leku jakin batzuetan edo gehieneko okupaziorako baldintzen ondorioz, Erabilera Publikokoak diren Espazio Librearen erabilera destinatutako lurzorua egotea barne hartzen du, eraikuntzak okupatu gabeko orubearen emaitzakoa.

Gainazalean baimentzen diren okupazio bakarrak, erabilera nagusiari dagokionaz gain, lorazaintzako beladore edo elementuei dagozkienak izango dira, lurzatiaren gehieneko okupazioaren %5eko gehienekora arte.

Espazio libre eta lorategi hauek beren izaerari eutsiko diote batez ere zuhaitz eta lorategiekin, eta beren azaleraren %30 baino gehiagoko azalera ez dira zoladura gogorak baimentzen.

Baimentzen diren instalazio edo eraikuntzak ingurura egokituko dira, lurzoru hauek bereizten dituen eraiki

gabeko espazio libreen izaera kaltetu edo aldatzen dituzten forma, bolumen, azalera, material edo instalazioak saihestuz.

6.3.60. artikulua.- Behin-behineko instalazioak

Kultur, jolas edo ikuskizunen erabilerarako behin-behineko instalazioek, 6.3.22 artikuluan baimenduak, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Ikuskizunetan edo jolas-jardueretan erabili nahi diren aldibaterako instalazio edo egitura eramangarri edo desmuntagarriak ezartzeko alde aurretik Udalaren lizentzia jaso beharko da, prozedura berezi eta sumario baten bitartez.
2. Aldibaterako instalazio edo egitura hauei jendearentzako eta parte-hartzaileentzako segurtasun, higiegi eta erosotasunari lotutako baldintzak eskatuko zaizkie, instalazio finkoetarako berdinak, teknikari eskudunak luzatutako ziurtagiriaren bidez espedientearen kreditatu beharko direnak.
3. Instalazioa ez da baimenduko antolatzaileak erantzukizun zibileko arriskua eta, hala dagokionean, emergentziazko plana estaltzen duen aseguru hitzartuta duela egiaztatzen ez badu, 1995eko abenduaren 1eko EHAA argitaratutako Ikuskizun Publiko eta Jolas Jardueren buruzko azaroaren 10eko 4/1995 Legearen 8. artikuluen terminoetan, eta era berean indarreko legerian aurreikusten diren bestelako obligazioak betetzen dituela kreditatzen ez badu.



ZAZPIGARREN TITULUA: ERAIKUNTZAREN DEFINIZIOAK ETA ARAU OROKORRAK

LEHEN KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

LEHEN SEKZIOA: ERAIKUNTZAREN XEDAPEN KOMUNAK

7.1.1. artikulua.- Aplikazio-eremua

1. Eraikuntza-arau Orokor hauek nahitaez bete behar dira udal mugarte osoan, lurzorua sailkapena edozein izanik ere.
2. Eraikuntza-arau orokorrak eraikuntza berriko obretan eta egungo eraikinetan beren garrantziagatik ordezkapenaren parekoak diren eskuhartze-obretan aplikagarriak dira.
3. Babes edo kontserbazioaren xede diren eraikinen Hamaikagarren Tituluan ezarritakoari jarraituko diote, eta beraz, Titulu honetan barne hartzen diren arauak ordezkatzailerik izatera dute.

7.1.2. artikulua.- Planoen sinbologia

Planaren dokumentu grafikoek hiri-lurzoruan etxadi guztien plantako okupazioaren diseinua zehazten dute, eta grafikoki adierazten dituzte lerrokadurak eta hondo eraikigarriak, eraikuntzak etxadiko barne-espazioetan, sotoan eta behe-oinean, eta espazio horien nibelazioak, ibilgailu-bidearen sestrak eta oin-kopurua adieraziz.

Horretarako, hiri-lurzorua ordenazioa honako mota hauetan zatitzen da:

- **Eraikin Inposatua.** Kasu honetan beharrezkoa da eraikinaren plantaren forma, bai eta, hala dagokionean, lerrokadurak, sestrak, altuerak, aprobetxamenduak eta erabileren xehekapena ere.
- **Diseinatu gabeko Eraikina.** Kasu honetan ez da beharrezkoa eraikinaren forma. Kanpoko lerrokadura maximoa nahikoa izango da, eta hau lerro eten batekin edo dagokion fitxetan adierazten den bide eta alboko eraikinetarako separazioarekin definituko da; lerrokadura honen barruan eraikinari edozein forma emateko aukera dago. Lerro edo ordenantza-separazio honek mugatzen duen barne-espazioari "inguru eraikigarria" deritza.

Aurreko paragrafoek adierazten duten zehaztapenak lurzoru eraiki gabeko bakarrik ukitzen du, toletaru edo ordenazio barneko zatia barne hartzen diren egungo eraikinak jarraian adierazten diren baldintzekin erregulatzen baitira.

7.1.3. artikulua.- Proposatutako eraikuntza tipoaren dimentsioen aldaketa, eraikigarritasuna handitu gabe

Etxebizitzaren neurriaren dimentsionamendu-arrazoiengatik inposatutako eraikuntza tipoen zeharkako sekzioaren sakontasuna (hau da, bere sekzioa fatxadaren arteko distantzia edo separazioa) aldatzea komenigarritzat jotzen bada, aldaketa honako baldintzetan egin ahal izango da:

1. Sakontasuna gehitzea: gehienez ere 1 m. onartzen da.
2. Sakontasuna gutxitzea: gehienez ere 1 m. onartzen da.
3. Aldaketa eraikin osoari loturik egongo da uniformeki, edo multzotik argi eta garbi bereizita dagoen beronen zati bati.

Era berean eraikuntza-mota inposatuaren luzera aldatu ahal izango da ondorengo baldintza hauetan:

- a) Luzera gehitzea: gehienez 0,5 m. onartzen da mutur edo aurrealde bakoitzean.
- b) Luzera gutxitzea: gehienez 1 m. onartzen da mutur edo aurrealde bakoitzean.

Eraikin-mota, kalea edo hiri-espazio lotetsia hautsi edo hutsaltzen duten aldaketak ez dira inolako kasutan onartzen.

Dimentsio onartuen aldaketa, Plan Orokorrak dagokion eraikuntzari esleitutako azalera eraikia edozein kasutan errespetatuz burutuko da.

7.1.4. artikulua.- Ordezkapenak

Lehendik zegoen edozein eraikin oin berriko beste batekin ordezkatzeko, ondorengo baldintza hauek bete behar dira:

1. Udalak eraikin berria kokatzen den etxadi edo hiri-multzoa barne hartzen duen Xehekapen-azterlan bat landu eta behin betiko onestea galdatu ahal izango du, bertan bere integrazioa definitzeko. Xehekapen-azterlanarekin aztertu beharreko azaleraren mugapena Udalak egingo du, doakionaren proposamenez edo eskariz.
2. Eraikin berriak, bera kokatuta dagoen arearako Arau hauetan ezarritako dauden eraikuntza-arauak eta aprobetxamendu-koefizientea errespetatuko ditu, eta ezarritako dauden lerrokadurak eta espazio publikoak ezin izango dira aldatu. Mehelinek erremateen kasuetan, aprobetxamendua planoetan adierazten den gehieneko hondoarekin ezarriko da, eta hirigintza-fitxa eta/edo planoetan adierazten diren profilaren gehieneko altuerarekin.
3. Eraikuntzaren gehieneko altuerak, kokatuta dagoen zonan eraiki daitezkeen eraikin berrietarako izatera orokorrekin ezarritakoa ez du gaitutuko.



4. Xehikapen-azterlanak inguruko urbanizazioari jarraipena emateko burutu behar diren urbanizazio-brak barne hartuko ditu.
5. Xehikapen-azterlanaren behin betiko onespenak ukitzen den azaleraren ordenazio espezifiko edo eraikuntza inposatuko ordenazioa zehaztuko du, eta une horretatik aurrera bere osotasunean Azterlan horretako zehaztapenekin eta Ordenantza hauekin erregulatuko da.

7.1.5 artikulua.—Parametro aplikagarriak

Arauan definitu diren oinarritzko hirigintzako parametroak aplikatzekoak izango dira lurren eta orubeen eraikigarritasuna kalkulatzeko, arau hauetan dauden hiriko lurzorua kudeatzeko mekanismoak aplikatzearen ondorioetarako.

Hirigintzako parametroak arautzea, alderik alde eta hirigintzako fitxetan adieraziaren arabera egiten da (arau hauetako zortzigarren titulua).

7.1.6 artikulua.—Lerrokadurak

1. Eraikinak, beren beheko solairuan, adierazitako lerrokaduretarako doitu dira. Sotoko solairuan okupatu ahalko da, beheko solairuan okupatuaz gain, planoetan alde marratua eraikuntza diseinatua denean edo fitxetan gehienezko okupazioa modura definitu dena baino handiagoa ez den azalera bateraino. Goi solairuetan hegalkinak eta/edo atzera-emanguneak baimenduko dira, arau hauetan xedatuaren arabera.

2. Solairuen kopurua, osoko azalera eta hegal eta/edo altuerako kota, aldi berean aplikatu eta nahitaez betetzekoak dira, denek baitute gehienezkoaren izaera. Datu hauek daude lurzoruaren antolamenduzko planoetan eta arau hauetan dauden koadroetan.

3. Hiriko lurzoruaren antolamenduzko planoetan definitu diren lerrokadurak, berdinketak, sestrak eta erlaitzak nahitaez hartu beharko dira kontuan eraikin pribatuetarako, publikoetarako eta urbanizazio proiektuotarako; nolahi ere, azken kasu honetan burutu ahal dira urbanizazioaren obraren burutzapen materialean lurzoruaren eta zorupearen ezaugarriak eskatzen dituzten xehetasun-egokitzapenak.

7.1.7 artikulua.—Berariazko antolamendua edo eraikuntza inposatuarena

Berariazko antolakuntza edo eraikuntza inposatuarena aldatu ahalko da xehetasun azterketa bat egin, izapidetu eta behin betiko onartzearen bidez. Hiriko lurzoruaren gainerakoan hirigintzako figura honetara jo beharko da espresuki adierazten denean antolamenduzko planoetan edo dagokion fitxan esandako lurretarako.

Edonola ere, planeko funtsezko zehaztapenak eta, beraz, xehetasun azterketek aldatu ezinak kontsideratuko dira aurrekusi diren lurzoruaren okupazioa, gehienezko

altuerak eta eraikuntzazko aprobetxamendua. Ezta ere, ezin izango dira aldatu plan honek ezarritako espazio askeen sistema orokor eta tokikoak, bideen sistema eta komunitateko ekipamendua

7.1.8 artikulua.—Altueren eraketa

1. Eraikuntza bakoitzeko proiektuak bermatu beharko du solairuen forjatuen arteko koordinazio egokia, linea horizontal berean mantendu ahal izateko fatxada osoan zehar; izan ere, fatxada osoan zehar erlaitz eta arkupeko galerien altuera uniforme mantendu behar da.

2. Gehienezko altuera onartuaren neurria egiteko oinarria, hurrengo hiru kontzeptuetan dago:

- Sestra. Bertan diren bideek, behin betiko urbanizazioa izan ala izan ez, duten luzerako profilak dira.
- Lerrokadura edo perimetro arautzailea. Eraikuntzak, solairuan okupatzen dituen azalera mugatzen dituen linea poligonal da, plan orokorraren edo garatzen dituzten plan partzialen edo xehetasun azterketen arabera.
- Eraikuntzaren altuera. Espaloiaren edo, hala badagokio, eraikuntzarekin kontaktuan dagoen lurraren sestratik distantzia bertikala da, nora eta azken solairuko sabaia osatzen duen forjatuen beheko aldera.

Espaloirik ez dagoenean, altuera neurtuko da, fatxadak, kaleko ardatzetik egindako maldako %2ko linea batekin duen gurutzagune-puntutik hasita.

7.1.9 artikulua.—Altuerak neurtzeko modura

Eraikuntzaren altuera neurtuko da sestrako punturik altuenetik hasita, beti ere puntu horretatik bertatik neurtzen badira lonjen eta beheko solairu bizigarrien altuerak, hirigintzako arau hauek xedatuaren arabera.

Aldeko ordenantzetan adierazten dira eurotako bakoitzean aplikagarriak diren gehienezko altuerak.

Gehienezko altuera osoa solairuen kopuruan definitzen da eta, kasu honetan, hegalarren kota, hurrengo neurrien arabera finkatzen da:

- Solairu 1.....: 3,60 m
- 2 solairu: 6,50 m.
- 3 solairu: 9,40 m.
- 4 solairu: 12,30 m.
- Hortik gorako solairu bakoitzeko:..... 2,90 m.

Erlaitzeko gehienezko osoko altuera ez da, inongo kasutan, gainditu egin behar. Forjatuetan lodiera handiagoagatik konpentsazioak eraikinaren zokaloan konpentsatu behar dira, inoiz ere gainditu gabe hegaleko kota ezta espazio bizigarrien altuera askeak.

Artikulu hau betetzetik salbuetsi egiten dira, mugakideekin erlaitzberdina eduki behar duten eraikinak,



hirigintzako fitxetan horretara agertzen badira.

Hala ere, inongo kasutan ezin izango du eraikuntzak, bere puntuen arteko edozeinetan, gehieneko altuera baimendua goisolairu baten parekoan gainditu. Hori gertatuko balitz, eraikinean sekzioak egin eta altueren zenbaketa berriro hasi beharko da puntu horretan.

Irizpide hau aplikatzekoa izango da, baita ere, eraikuntza mugakideen kasutarako, elkartu ahalko baitira beren altuerak batzeko.

Sestrako edozein puntutan 1,50 m-tik gorako altuera gainditzen diren sotoko solairuak, sotoetara sarbideak izan ezik, beste solairu baten kontsiderazioa izan eta ondorio denetarako zenbatuko dira; hona, esandakoaren salbuespenak: garaje, trasteleku edo eraikinaren instalazio orokorretarako erabiltzea egoitzazko hiriko lurzorua kasuan edo garaje, trasteleku edo eraikinaren instalazio orokorretarako erabiltzea industriako hiriko lurzorua kasuan.

BIGARREN ATALA: HIRIGINTZAKO PARAMETROAK

7.1.10 artikulua.—Aplikazio

Hirigintzako oinarriko parametroek definitu eta finkatu egin dituzte erabilerazko intentsitateak eta lurzorua eraikuntzazko aprobetxamendua. Haren baloreak gehieneko eta gutxieneko izaerakoak dira eta ezin dira, inoiz ere, gainditu edo murriztu egin, eraikin katalogatu edo babestuetan izan ezik.

Udalaren berariazko baimenaz bakarrik, aldeko baldintza estetiko eta hirigintzakoetan txarrerako afekzioak ez denean bakarrik emango duela, eraikuntzaren batean murriztu ahalko dira hirigintzako parametro hauek. Kasu orotan, bidezkoak diren lurzorua nahitazko lagapenak eta urbanizazioko kuotak, arau hauetan finkatu diren hirigintzako parametroetatik ondorioztatu denaren arabera egingo dira; izan ere, parametroen baimendu litekeen murrizpenak ezin ditu haiek afektatu.

Horrela definitzen dira, parametro hauen baloreen bidez, plangintzako alde, sektore edo unitateetan onartu diren erabilerazko intentsitateak eta eraikigarritasunak.

7.1.11 artikulua.—Parametro aplikagarriak

Legean, jabearen aldetik ondare bihurtu daitekeen eta alde bakoitzaren ereduazko aprobetxamenduen funtzioa den aprobetxamendu orokorra alde batera utzirik, egin daitezen eraikuntzek hurrengo baldintzak bete beharko dituzte:

1. Eraikigarritasuneko koefizientea edo modulua, sabaiko koefizientea deitua, ekarri den lurzorua metro karratzuko eraiki diren metro karratutan finkatua. Area bakoitzean alde edo azpialde bat edo gehiago adierazi dira, euren artean bilbatura

grafikozko intentsitate, kolore edo motagatik bereizten direnak. Horietako bakoitzari, koefiziente ezberdin bana aplikatu zaio.

2. Eraikuntzek, behekoa barne, eduki ditzaketen solairuen gehieneko kopurua.
3. Gehieneko okupazioa, ekarri den lurzorua gaineko ehuneko hainbestean finkatua.
4. Gutxieneko tartea. Bideetara tartea aplikatzekoa izango da, lerrokapena, diseinuko planoetan adierazita ez dagoenean. Mugakidetara tartea, ageriko mehelinen ondoko jarduketak ez direnean.
5. Eraikuntza inposatuaren ondoriozko aprobetxamenduak, horrela tipifikatu diren lurzoruen multzorako.

7.1.12 artikulua.—Sabaiko koefizientea zenbatzeko modua

1. Sabaiko koefizienteak parametroak zehazteko, lurzorua azalera modura hartuko da hirigintzako jarduketaren sustatzaileak egiatan ekarria, kalifikazio-mota bakoitzeko indize aplikagarriagatik biderkatua.
2. Eraikigarritasuna lortuko da, eraikinen solairuen arteko bakoitzaren azalera eraiki gordinak pilatzearen bidez, definitzeko parametro modura hartuz eraikin bakoitzaren kanpoko lerrokadura eraikiak; baita, sartu egingo dira eskaileren solairuen eta egon edo pasatzeko eta hegalkinen azalerak, baita itxurazko hormarik ez badute ere, kanpoan utzirik barruko patioak.
3. Terrazak solairuetan eta hegalkin irekiak beren azaleraren %100ean zenbatzen dira, babes ofizialeko etxebizitzak izan ezik, berezkoa duten araudiak arautuko dituztela. Ez dira zenbatzen sabairik ez duten aire zabaleko balkoi eta terrazen azalerak, ezta beheko solairuan irekitako arkupeak ere, solairuko okupazioaren %15eko gehieneko bateraino.
4. Sabaiko koefizientearen ondorioetarako zenbatuko dira trastelekuak, instalazio-gelak e.a., hurrengo 5 puntuan planteatu diren kokapenak izan ezik, eta baita ere garajeak, beti ere sestraren gainean badaude, edozein izanik duten dimentsioa. Zenbaketa hau egingo da, altuera askea 1,40 m-koa edo handiagoa duen solairuaren edo solairuaren zatiaren gainean.
5. Sabaiko koefizientearen ondorioetarako ez dute zenbatuko sestra-azpian kokatutako trastelekuak eta sestra-azpian edo baimendutako azken solairuaren gainean kokatutako instalazio-gelak edo antzekoak. Ez dute ere zenbatuko baimendutako azken solairuaren gainean dauden trastelekuak, edozein motatako babes publikoko etxebizitzaren sustapenetan". (2008ko abenduaren 22ko ohiko bilkura)



BIGARREN KAPITULUA: ERAIKINEN KALITATE ETA HIGIENE BALDINTZAK

7.2.1. artikulua.- Aplikazioa

Kapitulu honetan ezartzen diren baldintzek 7.1.1. artikuluan izaera orokorrean aurreikusitako aplikazio-eremua dute.

7.2.2. artikulua.- Egoitza-erabilererako gai ez diren lokalen baldintzak

Etxebizitza-erabileraz bestelako edozein erabilera barne hartzen duten eta etxebizitzetarako eraikinetan kokatzen diren lokal guztiek etxebizitzetatik independenteak diren sarbideak eduki beharko dituzte. Etxebizitza-erabilerari lotetsita baimentzen diren despatxu profesionalak salbuesten dira.

7.2.3. artikulua.- Argi- eta aireztapen-baldintzak

Lokalak argi eta aireztapen naturala bakarrik baldin baditu, argi eta aireztapenaren bakoek gutxienez lokalaren oinak duen azaleraren zortzireneko guztizko azalera eduki beharko dute.

Argiztapen eta aire egokiturako instalazioen proiektu xehekatuak aurkeztea galdutako da, indarrean dauden legeko xedapenak bete beharko dituztenak, eta instalazio hauek ikuskatu ahal izango dira lokala ireki aurretik eta edozein unetan berau irekita edo erabileran dagoen bitartean. Egokiak ez badira edo behar bezala funtzionatzen ez badute, kasu horretan Udalak lokalaren guztizko edo zatizko itxiera agindu ahal izango du, bidezko diren neurri zuzentzaileak hartzen ez diren bitartean.

Jatetxeetan eta oro har sukaldea, frijigailua, erretokia, plantxa, labea edo antzekoren bat duten lokal guztietan, estalkira arteko aireztapen-hodia edukitzeko baldintza galdatu ahal izango da, eta hodi honen gutxieneko sekzio erabilgarria 400 cm²-koa izango da.

7.2.4. artikulua.- Beste zenbait baldintza

1. Eraikina osatzen duten materialak erregaitzak izan beharko dira eta egitura sukontrakoa izan beharko da, eta kanpoaldetik zarata edo bibrazioak sar ez daitezen moduko ezaugarriak izan beharko dituzte.
2. Auzokoei eta oinezkoiei eragozpen, usain, ke, zarata eta bibrazioen ezabaketa bermatzeko beharrezkoak diren instalazioak galdutako dira.
3. Merkataritza-lokalen guztizko azalera, bere egoitzak barne, 600 m²-tik gorakoa denean, hauek lurzatiaren barruan, derrigorrezko aparkalekuez gain, hornidura eta banaketarako ibilgailuen karga eta deskargarako eragiketarako espresuki egokitutako espazioak eduki beharko dituzte, derrigorrezko aparkalekuen %10eko gutxieneko plaza-kopuruarekin.

4. Lokalen altuera libre gutxienez bi metro eta laurogei zentimetrokoa (2,80 m.) izango da.

HIRUGARREN KAPITULUA: PATIOEN BALDINTZAK

7.3.1. artikulua.- Patio-motak

Beren ezaugarrien arabera, ondorengo mota hauek bereizten dira:

- Fatxadara irekitako patioa.
- Etxadi-patioa, sarbide publikokoa, sarbide pribatukoa eta okupazio baimendukoa.
- Lurzati-patioa.

7.3.2. artikulua.- Fatxadara irekitako patioa

Fatxadara irekitako patio deritzo, kalearen lerrokadura ofizialarekiko eraikinaren atzeraemangune bidez eratutako patioari.

Ez dira fatxadara irekitako patio gisa hartuko, fatxadaren planora normalki neurtutako sakonera metro eta berrogeita hamar zentimetrotik (1,50 m.) behera duten atzeraemanguneak.

Tipologia intentsiboa duten eraikinetan fatxadara irekitako patioak debekatuta daude.

7.3.3. artikulua.- Etxadi-patioa

Plangintzak inposatutako barne-lerrokaduren bidez definitutako forma eta posizioa duten patioak dira.

7.3.4. artikulua.- Etxadi-patioak, behe-oinean okupazioa baimenduta dutenak

1. Planak behe-oinean patioaren okupazioa baimentzen du Hiri-diseinuko planoetan espresuki adierazten diren etxadietan.
2. Kasu hauetan, patioaren okupazioa bere azaleraren osotasunean (%100ean) baimentzen da, behe-oinearen erregelamenduzko altuerarekin.
3. Etxadiaren osotasunaren behe-oinetako erregelamenduzko altueren edo mugakideen arteko diferentzia hiru metrotik (3 m.) gorakoa denean, eraikin bakoitzak bere behe-oinearen sabaiaren altuera eraikin mugakideetakoarekin berdindu beharko du, patioaren barnealdearen perimetro osoan eta bost metroko (5 m.) gutxieneko sakonerarekin.
4. Aurreko atalean adierazi denaren ondorioetarako, mugakidearen altuera araudi honetan ezarrita dagoen behe-oinearen erregelamenduzko altuera neurtzeko moduaren arabera hartuko da.



5. Arau hauen aplikaziotik ondorioztatzen diren paramentu bertikaletatik argiak eta aireztapena ezin izango dira hartu inolako kasutan.
6. Arau haueen aplikazioaren zirkunstantzia zehatzen ondorioz eraikuntzaren ikuspegitik argi eta garbi oker dauden soluzioak erartzen baldin badira, Udalak, bere ekimenez, etxadiaren Xehikapen-azterlan bat tramitatu ahal izango du gatazka hori konpontzeko.

7.3.5 artikulua.—Barruko patioa edo partzelakoa

1. Barruko patioak edo partzelakoa da, etxearen edo eraikinaren barruko fatxadek eratu izanik, eraikinaren solairu denei argiak eta bistak emateko balio duena, hala badagokio beheko solairua izan ezik.
2. Patioen edo bista zuzenen gutxieneko dimentsioak, horman, hutsuneak kokaturik dauden paramentutik edo, hutsuneok araubidezkoak ez direnean, gehienez irtenda dagoen puntutik zenbatuko dira.
3. Patioen altuera zenbatuko da, paramentu eta horma bakoitzean, argiak eta bistak hartzen dituen lokal edo gela bizigarri baxueneko lurzoru-mailatik hasita eta koroatzeko goieneko muturreraino. Eskaileren kaxak argiak eta bistak hartzen dituen patio denetan, hauetako altuera zenbatuko da, gutxienez ere, arauzko beheko solairuaren sabaiko mailatik hasita.
4. Patioak solairuan duen itxurak bermatu egingo du, edozein kasutan, hurrengo baldintzak betetzea:
 - Inskribagarria izango da, emaitzako poligonoan, dagokion bista zuzenaren edo gutxieneko zabaleraren moduko gutxienezko diametroa duen zirkulu bat.
 - Ezin izango da, inongo hutsunetan, gutxieneko ikuspegi zuzena bere aurre osoan murriztu.
 - Obrako, metalezko edo beste edozein motatako materialez itxita dagoen inongo eraikuntzako elementuak ezin izango du gorago adierazi diren azalerak eta distantzia minimoak murriztu edo horietan sartu.
5. Barruko patioen dimentsioak zehaztearen ondorioetarako, ez dira zenbatuko hormako altuera modura eskailera-kaxako eta igogailuko makina-gelako erremateak; izan ere, etxebizitzaren solairu goienaren gainean kokatuak izanik, eraikuntza horiek bakarrik daude baimenduak ondorio hauetarako. Altuera modura zenbatuko dira, ondorio hauetarako, trastelekuen horma bertikalak, baldin eta baleude.
6. Etxebizitzetara irisgarritasuna izateko neurri bezala, dauden higiezinaren barne-patioetan igogailu eremuak jartzea baimentzen da, nahiz eta horren eraginez, indarrean dagoen hirigintzako arautegian ezarritako gutxieneko neurriak eta zuzeneko bista beteko ez balira ere hori eraikitze momentuan, beti ere

igogailu berria instalatzeko proiektuan kokapen horretara jo behararen premia justifikatuko balitz eraikinaren irisgarritasun eskariari erantzuteko.

Kasu horretan, izaera orokorrekin, gutxienez 2,00 metroko zuzeneko bista bermatu beharko da, beren argiak patio horietara bideratzen dituzten atal bizigarrietan, hala ere, metro 1,00era murriztu ahal izango da, igogailuaren barrutia argiari iragazkor zaizkion materialekin egiten denean, bere ibilbide osoan edo zatirik handienean, hala nola metalezko eta beirazko profilekin, beirazko profil auto-eramailearekin, etab (PLENO 2010/12/30)

7.3.6 artikulua.—Patio itxien gutxieneko dimentsioak

1. Neurriak: zirkulu inskribatu eskagarriaren diametroak definituta egongo dira, hurrengo taularen arabera, beren argiztapen eta aireztatzea patioaren bidez konpontzen duten lokalen erabileraren eta, aipatu lokalen zoruaren eta patioa koroatzearan artean dagoen altueraren (H) funtzioan:

Lokalen erabilera edo etxebizitza-mota	Patioan inskribatu den zirkuluaren diametroa
Aparteko patioa duten familia bakarreko etxebizitzak	$\varnothing = 2 \text{ m.}$
Etxebizitzak altueran edo patioa partekatzen dutenak:: • Egongela-jangela • Logela eta sukaldea • Bainuak eta esekitokiak	$\varnothing = H$ $\varnothing = 0,3H = 3 \text{ m.}$ $\varnothing = 0,15H = 2 \text{ m.}$
Eskailerak	$\varnothing = 0,15H = 2 \text{ m.}$

2. Estaldura: patioak estali ahalko dira, beti ere beren argiztapen eta aireztatze eten gabea ziurtatzen bada. Azken hau bermatuko da, patioa azaleraren ehuneko hamarra (%10) moduko edo handiagoko gutxieneko azalera duten irekiduren bidez.

7.3.7 artikulua.—Partzelako patioen baldintzak

1. Patioen zoruak eratu beharko dira, urak erraztasunez isurtzeko moduan, horretarako isurbideak instalatuko direla.

Estaltzeko material oro debekaturik dago, uren estankotasun eta estolda osoa bermatu egiten ez badu.
2. Partzelako patioak, bertara ailegatzeko modukoak izan beharko dira, garbiketa eta artapenezko ondorioetarako, etxe edo eraikinera izaera komuneko komunikatzeko elementuetatik, debekaturik dagoela horietara sartzea etxebizitzaren edo negozioko lokalen bidez.
3. Teilatuko hegala hegalkina, baldin eta balego, hegalkin mota denetarako ezarri den dimentsiora doituko da, edozein izanik ezarri den gutxieneko



bista arteza.

LAUGARREN KAPITULUA: ERAIKUNTZAREN SOLAIRUEN ETA HEGALKINEN BALDINTZAK

7.4.1. artikulua.- Sotoen baldintzak

1. Sotoak kontsideratuko dira, beren fatxada denetan, altueraren hiru herenetik bi sestraren azpian lurperatuta duten solairuak. Lurperatua den zatiaren neurketa egingo da, ordenantzen arabera, eraikinaren altuera osoak neurri behar diren puntu berberetan..
2. Sotoan baimendutako erabilerak, hurrengoak dira: garaje-aparkalekua, goiko solairuetako lokaletara lotua den biltegi-trastelekua eta/edo higiezin edo etxerako zerbitzu komunaren instalazioak, edo hirirako azpiegiturak.
3. Erabilera zehaztuaren funtzioan aplikatzekoak diren muga handiagoei kalterik egin gabe, sotoen altuera askea ezin izango da bi metro eta hogeita hamar zentimetrokoa (2,30 m) baino txikiagoa izan, onartuz neurria murriztu ahal izatea bi metro eta hamar (2,10) metroraino habeak eta/edo instalazioak eskegita egoteagatik.
4. Sotoko solairuak, titulartasun pribatuzkoak eta eraikuntzari lotuak, eraikuntzaren lerroakaduretatik kanpo proiektiozko espazio askeetan «sestraren azpiko eraikuntza» modura baimenduak, ezin izango dira beren perimetrozko inongo puntutik gailendu plan honek edo beronen garapenean izapidetzen diren planek esandako sestratik.
5. Bere perimetrozko punturen batean (garajetara sarbideak izan ezik) 1,50 m-tik gorako altuera gainditzen duen edozein solairu, sestraren gaineko beste solairu baten kontsiderazioa izan eta, ondorio denetarako, horretara zenbatuko da; [hona](#), [esandakoaren salbuespenak](#): garaje, trasteleku edo eraikinaren instalazio orokorretarako erabiltzea egoitzazko hiriko lurzoruaren kasuan edo garaje, biltegi edo eraikinaren instalazio orokorretarako erabiltzea industriako hiriko lurzoruaren kasuan.
6. “B-5” Sistemakoa ez den Jardueran, eraikina dagoen partzelaren eta inguruaren topografia berezia dela eta, erdisotoko solairuetan, Planak zehaztutako lur-arrazaren azpian sortzen direnetan, horiek aprobetxagarriak badira, horien kokapenagatik argiztatu edo aireztatu daitezkeelako edo aipatu solairuei sarrera eman diezaiekeelako, kontuan hartuko da:
 - Horren erabilerari buruz. Egoitzazko erabilera (berezkoa) eta hirugarren erabilera, bere kategoria guztietan, baimentzen da, baldin eta lokalaren kokapenak horren argiztapenari, aireztapenari leku

ematen badio, eta aparteko sarrera baldin ba du, edo kanpotik zuzenean, edo eraikinaren espazio komunetatik baina.” (PLENO 2010/09/30)

7.4.2 artikulua.—Aparkalekurako sotoak solairuan okupatzea

«Eraikuntza ez diseinatuaren» sotoek okupatu ahalko dute, aparkalekurako, eraikuntzaren beheko solairuaren okupazioak ezartzen duena baino azalera handiago bat. Kasu honetan, hurrengo baldintzak bete beharko dituzte:

1. Soto hauek bakarrik baimenduko dira partzela pribatuaren barruan eta bi (2) metroko gutxieneko tartea mantenduz bide publiko eta erabilera eta jabari publikozko bide publiko eta lurrekiko.
2. Balizko hauetan, eraiki dadin edozein eraikinaren barruan aurreikusi beharko dira beharrezko sarbideak, horien bidez eraikin mugakideen aparkalekuek sarrera eta irteera izan ditzaten, soto mailan beharrezkoak diren nahitaezko bide-zorak eratuz, biko gehieneko muga batekin. Nahitaezko bide-zor hau baloratuko da, sarbideak egikaritzeak afektatzen dituen azalaren eta zerbitzua ematen dien finken kopuruaren funtzioan, bertan den katastroko balorazioaren araudi teknikoan ezarri diren irizpideen arabera.
3. Aginduzkoa izango da proiektu bat aurkeztea, gutxienez ere hurrengoak izango dituen:
 - a) Partzelako hasierako egoeraren plano topografikoa, mugakideei eta bideei aipamenak eginaz, era berean bertan den zuhaitzia eta landaretza aipatuz.
 - b) Partzelaren azken egoeraren plano topografikoa, zuhaitzi eta landaretza proposatuak adieraziz, eta baita aurreikusi diren nahitaezko zortasunak ere.
 - c) Partzelaren egoera eta itxuraren argazkiak kolorean.
4. Proiektuak, hurrengo alderdiak aurreikusi beharko ditu:
 - a) Partzelaren hasierako profila mantenduko da, aldatzea onartuz bide edo espazio publiko perimetroan ezarri diren sestetara doitzearen kasuan bakarrik.
 - b) Zuhaitzia mantenduko da, zeinaren perimetroa lurzoruaren 1,50 m-ra 65 cm-ak gainditzen duela, horretarako duen substratua errespetatuz erradioko 3 m eta sakonerako 4 m-ko zirkulu batean.
 - c) Egiteko den sotoaren sabaiaren gainean, landa-lurrezko maila bat jarriko da, gutxienez ere 60 cm-koa.
 - d) Diametrozko 12 cm-ko zuhaitz bat gutxienez landatuko da aparkalekurako eraiki den azalera osoko 100 m² bakoitzeko.
5. Sustatzaileak edo lizentziaren eskatzaileak berariazko



abala emango du, aipatu diren baldintzak betetzea bermatu egingo duena.

7.4.3. artikulua.- Aparkalekuak beheko solairuan okupatzea

Sestraren gainean «eraikin inposatueta» eraiki diren aparkalekuak doitu egingo dira, beren solairuan, azalera eraikia modura adierazi eta zenbatu diren lerrokauretar. Sestraren gainean «eraikuntza ez diseinatu» eraiki diren aparkalekuak ere, azalera eraikia bezala zenbatuko dira.

Aurreko mugetatik salbuesten dira 7.1.12 artikuluan adieraziak, hots, eraikuntza diseinaturik gabeko aldeetan partzelako unitateko eraiki diren lehen hogeita bost metro karratuak.

Kasu guztietan izango dira aplikagarriak okupazio eta tarteei buruzko mugak.

7.4.4. artikulua.- Beheko solairuaren baldintzak

1. Egoitza- edo etxebizitza-erabilerarako edozein oin, kalearen sestraren edo behin betiko urbanizatuak lurraren profilaren gainean jasota egongo da, gutxienez 10 cm., edozein puntutan. Lurraren kontra hormaren bat duten piezak etxebizitzarako bideratzea debekatuta egongo da..
2. Beheko solairuaren altuera askea, egoitzazko erabilerarako izan ezik, ezin izango da hiru metro eta hogeita bost (3,25) baino txikiagoa, ezta lau metro eta laurogei zentimetro (4,80 m) baino handiagoa izan, honetan aurreikusi den salbuespenarekin.
3. Behe-oina Hiri- edo Administrazio-zerbitzutarako, Ekipamendurako edo Merkataritzarako erabileretara destinatzen denean eta gainera goiko edo beheko oinetan lotetsitako lokalak dituenean, erabilera horietara destinatutako oinen altuera partzialak aldatu ahal izango ditu beharrezkoak izan daitezkeen egokitzapen funtzionalak burutzeko, behe-oin horrek aurrealdean duen kalearen maila (hogeia zentimetro gora edo behera) gutxienez bost (5) metroko sakoneran mantentzen baldin badu.

7.4.5. artikulua.- Oinarteak behe-oinetan

Lehendik zeuden lonjetara destinatutako eraikuntzetako behe-oinetan oinarteak eraikitzea baimentzen da, betiere ondorengo baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Oinarteak okupatzen duen azalera erabilgarriak, bere punturik irtenenetan neurtua, ezin izango du lokalaren azalera erabilgarriaren %50 gainditu.
- b) Lurzorutik sabaira neurtzen diren lokaletako espazio librea ezin izango da 2,50 m. baino txikiagoa izan beheko zatian eta 2,30 m. baino txikiagoa goiko zatian, plaka-hormigoitik edo solairutik hormigoira neurtuak.

- c) Aurreko baldintzaren emaitzazko lokalek argi eta aireztapeneko baoak izango dituzte kalera gutxienez 1,50 m²-ko azalerarekin, edo bestela 9 m²-ko azalerako eta 3 metroko zuzeneko bistako gutxienezko patioa.

Argi eta aireztapenerako 1,50 m²-ko azalera hori 10 m²-ko azalera bitarteko lokaletarako izango da, eta 10 m² horiek gainditzen dituen metro karratu edo frakzio bakoitzeko, baoen guztizko azalera 0,10 m² handituko da. Lokalek kaletik edo patioetatik argirik jasotzen ez dutenean, goiko oina itxi gabe geratu beharko da metro bateko altueran, sabaitik neurtuta, eta beheko oinak bao praktikagarriak izan beharko ditu (ateak, eta abar), 5 m²-tik gorako azalerarekin.

- d) Goiko zatia b) erregelak aipatzen duen 2,30 metroko altuerara iristen ez denean, espazio hau depositu, biltegi edo antzekora bakarrik erabili ahal izango da, gehienez ere bi metroko (2 m.) sakonerarekin.
- e) Lokal hauek ezingo dira inoiz ere etxebizitzetarako edo pertsonen gaua igarotzeko erabili.

7.4.6. artikulua.- Oinarteak industriarako edo hirugarren sektorerako lokaletan

Egoitza-erabilerarik ez duten eta lehendik zeuden eraikinetan oinarteak eraikitzea baimentzen da, betiere ondorengo baldintza hauek betetzen badituzte:

1. Emaitzazko guztizko azalera eraikiak ez du dagokion Ordenantzak zonarako esleitzen duen indize edo aprobetxamendua gaindituko, eta ez du inola ere lokalaren azalera erabilgarriaren %50 gaindituko.
2. Emaitzazko lokalen espazio librea, lurzorutik sabaira neurtuak, ez da neurri hauek baino txikiagoa izango:
 - 3,50 m. behe-oinetan
 - 3,00 m. gainontzeko oinetan
3. Emaitzazko lokalek, bana bana hartuta, azalera erabilgarriko metro karratu bakoitzeko 0,10 m²-ko argi eta aireztaketarako baoak izango dituzte, 1,50 m²-ko gutxienezkoarekin. Baoen konposizio egokia frogatu egin beharko da, dagokion dokumentazio grafikoa erakutsiz.
4. Lokal hauek ezingo dira inoiz ere etxebizitzetarako edo pertsonen gaua igarotzeko erabili.

7.4.7. artikulua.- Gutxienezko altuerak

Oinen gutxienezko altuerak, hala etxebizitzetan nola behe-oinetako eta sotoetako lokaletan, ondorengo hauek izango dira:

Aparkaleku-sotoa	2,30 m
Behe-oinak	3,25 m
Goi-oinak	2,50 m



Altuera hauek libreak izango dira, amaitutako lurzorutik sabaira neurtuak.

Behe-oinaren gutxieneko altuera jaitsi ahal izango da dekorazioen bidez, baldin eta honen puntu guztiak lurzorutik 2,80 metroko distantziatik gora badaude.

7.4.8. artikulua.- Estalkipeko aprobetxamendua

Baimendutako azken oinaren gainetik trastelekuen erabilera bakarrik baimentzen da:

1. Estalki laua duten eraikinen kasuan, igogailuen makina-aretoak ezkutatzeke xedez.
2. Estalkiko faldoien azpitik ezkutatuta geratzen direnean. Horizontalarekiko gehienez ere 30 gradu hirurogeitarreko angeluarekin inklinatutako planoek definitutako bolumenaren barruan saruta egon beharko du, baldin eta edozein puntutan 3 metrotik gorako altuera librea sortzen ez badu.

7.4.9. artikulua.- Erlaiz edo galeria arkupedunen baldintzak

1. Erlaiz edo galeria arkupedunak, beren fatxadaren luzetarako kokapen eta garapenari nola beren beren dimentsioei dagokienez, dokumentazio grafikoaren planoetan adierazten dena egokituko dira, fatxada-aldearen pilareen arteko distantziarako gehienez 050 m-ko oszilazioa onartuz, baina era berean hartutako erritmoa kale berean iraunkorki mantenduz.
2. Galeria horien sakontasuna planoetan agertzen da. Galeria horietako sabai-tratamendua uniforme izango da tarteune bakoitzerako, batez ere egitura-elementuen dimentsioei (jazenak, solairuak, eta abar) eta eduki behar dituzten argiztapen-sistemei, bide eta plazen argiztapen publikorako proposatzen dena kontuan izan gabe. Sasiabaiak ahal izanez gero bernizatutako Gineako zurarekin eraikiko dira. Era berean, galeriaren sabaian ezingo dira euri-uretarako edo ur beltzetarako zorrotenak ipini.
3. Hiri-diseinurako planoetan barne hartuta ez egon arren, Udalak erlaiz edo galeria arkupedunak burutzea galdatu ahal izango du 2metroko baino zabalerak txikiagoko espaloietara aurre ematen duten eraikinetan, behe-oinaren mailan pasaera librerako guztizko zabalerak 3 metrokoa izan dadin.
4. Fatxada-pilareen tratamendua behar bezala iraun dezan komenigarriena izango da (harri naturala, bistako hormogoi tratatua, harri artifiziala, eta abar), eta ez dira zeramikazko estaldurak baimenduko, caravista adreiluak, ordeak, baimentzen da.

Tratamendu, erritmo, argiztapen-sistema eta abarrei buruzko aurreko baldintzak zehatz-mehatz kontuan hartuko dira eta multzo osoen mailan, hala nola aurreikusitako piezak, ibilgailu-bideak, oinezkoen pasealekuak eta abar, osaeran eta giroari loturik

ezaugarritzeko, honela beren barne-koherentzia eta banakotasuna bermatuz.

5. Orube bakoitza eraiki ondoren, galeria hauetako (zoladura, estaldurak, luminariak, eta abar) gainazaleko tratamenduen mantenimendua udalaren kargura pasako da, behe-oinen itxierari dagokiona salbu. Berauen mantenimendua eraikuntzaren jabe-elkartearen kargura joango da, eta hori obra berriko deklarazioan jasota geratuko da.

7.4.10. artikulua.- Hegalkinak

1. Terraza, balkoi, esekitegi eta begiratokiatarako hegalkinak baimenduko dira fatxada osoan zehar, behe-oinetik hasi eta goragoko oin guztietan.
2. Begiratokiak eraikuntzaren hegalkinak izango dira fatxadaren azalera guztian itxidura izanik. Itxidura hau kristalezkoa izango da gutxienez bere azaleraren %60an.
3. Fatxada bakoitzean begiratoki hauen azalera beronen guztizko azaleraren %60koa izango da gehienez ere, gainontzekoa terraza, balkoi edo esekitokietara destina daitekeelarik. Fatxada baten oin desberdinen artean hegalkinen konpentsazioa baimentzen da.
4. Oin eta hegalkin irekietako terrazek beren azaleraren %10 konputatzen dute. Sabairik ez duten aire zabaleko balkoi eta terrazaren azalera ez dira konputatzen.

7.4.11. artikulua.- Hegalkinaren mugapena

Edozein hegalkin-elementuren gehieneko irtengunea, eraikinen arteko zuzeneko separazioaren %10ean finkatzen da, 1,20 metroko gehienekoarekin. Mugapen honetatik salbuetsita geratzen dira teilategalak eta erlaizak, mugapen hau beste 0,50 metrotan gainditu dezaketelako.

Azken hegalkinaren beheko muturra, gutxienez, urbanizazioaren behin betiko sestraren gainean 3,25 metroko altueran kokatuta egongo da.

Hegalkinak erabilera publikoko espazio libreei (plazak, berdeguneak, eta abar) edo 15 metrotik gorako zabalerako kaleei aurrea ematen dienean, artikulua honetako lehen idazatian aipatzen den 1,20 metroko gehieneko hegalkina baimentzen da.

7.4.12. artikulua.- Lurzati-itxierak

1. Hiri-lurzoruan

Udalak hiri-lurzoruan kokatzen dituen orubeak nahiz lurak itxiera iraunkorrekin inguratu beharko dira, lerrokadura ofizialean kokaturik, 2 eta 3 metro bitarteko altueran, beren egonkortasuna eta kontserbazio egokia bermatzen duten materialekin fabrikatuta.

Beren destinoaren arabera segurtasun-neurri bereziak behar dituzten eraikin bakanak salbuesten dira, eta



kasu honetan itxiera eraikinaren beharretara egokituko da eta udal organismo eskudunaren baimena beharko du izan.

Ez da inola ere baimenduko itxieren errematea pertsona edo animaliak zauri ditzakeen elementuekin burutzea.

2. Lurzoru Urbanizagarrian eta Ez-urbanizagarrian.

Lurzati itxierak Lurzoru Urbanizagarrian eta Ez-urbanizagarrian hormekin egingo da, hauen altuerak lurraren kotaren gainean 1,10 metrora bitartekoak izango direlarik, eta gainontzekoa 2,20 metrora bitartekoa izango da, ikusmena argi eta garbi ahalbidetuko duten elementuz osatuta. Ikusmena palaxu edo landareen bidez bakarrik oztopatu ahal izango da.

Bide, errepide edo espazio publikoen aldamenean dagoen lurzatiaren mugakideetan, alderdi hau Plan Partzialean erregulatu gabe baldin badago, itxiera bide edo espazioaren ertzetik 2 metrora kokatuko da, ertza gisa espaloia zintarria hartuz, eta hau ez badago ura jasotzeko bazter-bidea edo halakorik ezean, ibilgailuen galtzadarako zolatuta dagoen zonaren muga.

Itxiera hauek egiteko kalitate goreneko materialak erabiliko dira, inguruko eraikuntzekin bat datozenak gomendatuz, eta beren kontserbazioa lurzatiaren jabeen konturakoa izango da, zeinek egoera onean mantenduko dituzten segurtasunari eta itxura publikoari dagokienez.

BOSGARREN KAPITULUA: ESTETIKA **BALDINTZAK**

7.5.1. artikulua.- Aplikazioa

Hiriaren estetikarako adierazten diren baldintzak udal lizentzia jasotzen duten jarduketa guztietan aplikagarriak izango dira. Udalak, nolana ere, higiezin jabeen eskaria egin diezaike Arau hauetan adierazten diren baldintzetara egokitzeko beharrezko ekintzak buru ditzaten. Baldintza estetikoen erregulazioa honako baldintza orokorretan eta zona bakoitzeko ordenantza xehekatuetan burutzen da.

7.5.2. artikulua.- Hiri-estetika zaintzea

1. Hiri-irudiaren defentsa eta bere balorazio eta hobekuntzaren sustapena, eraikin indibidual edo eraikin-multzoei nahiz eraiki gabeko areei dagokienez, Udalari egokituko zaio, eta hiriaren pertzepzioa uki dezakeen edozein jarduketa udalak horri buruz duen irizpidera egokitu beharko da.
2. Udalak, estetikarik gabekoa eta hiriaren irudiarentzat komenigarria ez den edozein eraikuntza- edo hirigintza-jarduketa ukatu edo baldintzatu ahal izango

du. Jarduketaren baldintzapenak honako hauek aipa ditzake: erabilera, eraikinaren dimentsioak, fatxaden, estalkien eta baoen ezaugarriak, konposizioa, erabilitako materialak eta hauek erabiltzeko modua, beren kalitatea edo kolorea, landaredia, beren espezie eta itxuran eta, oro har, hiriaren irudia eratzen duen edozein elementu.

3. Eraikuntza berriak eta dauden aldaketak, kokatu behar direneko inguruaren ezaugarri nagusiak kontuan izanik burutu beharko dira, beren diseinu eta osarari dagokienez. Horretarako arreta berezia jarriko da honako hauek armonizatzeko: estalki-sistemak, erlaiza, solairuen posizioa, erritmoak, bao eta mazioen dimentsioak, konposizioa, materialak, kolorea eta eraikuntza-xehetasunak.

7.5.3. artikulua.- Fatxadak

1. Obraren xede den eraikuntzak fatxada ukitzen duenean eta beste eraikuntza batzuen aldamenean edo jarraian dagoenean, fatxada berriaren konposizioa lehendik zeuden fatxadenera egokituko da, konposizioaren erreferentziatzeko lerro finkoak armonizatuz (erlaizak, teilategalak, inpostak, hegalkinak, zokaloak, eta abar)eraikin berriaren eta mugakideen artean, profila mantentzeko obligazioaren kaltetan izan gabe.
2. Nolanahi ere, erritmoen soluzioak eta bao eta mazioen arteko proportzioa fatxaden konposizioan, eraikinaren ezaugarri tipologikoen, inguruaren eta katalogatuta dauden eraikinen (hauen hurbiltasuna hala eskatzen badu) ezaugarri espezifikoaren arabera egokitu beharko dira.
3. Alboko eta atzealdeko fatxadak eta etxadi-patiorako fatxadak, fatxada nagusiarentzako konposizio eta material berdinekin tratatu beharko dira.

7.5.4. artikulua.- Behe-oinen tratamendua

1. Fatxadak osorik diseinatuko dira, espaloia sestratik estalkiaren gailurrera arte. Eraikinetan behe-oina ukitzen duten obretan, hau fatxadaren gainontzekoarekin harmonizatu beharko da. Horretako behe-oineko pilareak estalita egongo dira hormatal itsuekin, eta hauek kalearen dagokion tarteunean dauden matxoien zabalera tipologikoak errespetatuko dituzte, oin hori fatxada osoarekin modu unitarioan konposatuz.
2. Fatxada-materiala luzatu egingo da behe-oineko baoetako pilareak eta motxetak eta erlaizetako paramentu itsuak estaliz. Arkupeen sabaia ez du bistan utziko inolako kanalizazio edo hodirik. Kartelak ezartzeko aukera dagoen zonetan, Udalak ahalmena izango du bide publikotik eskura dauden paramentu guztiak forratzera behartzeko, diskrezionalki eta 2,20 metroko altueraraino, hala fatxada-planoan nola arkupeetan, granito leunduarekin.



Ezkaratzek sartzeko ateak fatxada-planotik atzera eramanez izango dituzte gutxienez metro bateko distantziarekin. Eratzen den erlaizeko alboetako pareetak hartune elektrikoaren babes-kaxa edo fusibleak eta gas naturalaren hartunearen erregulazio-armairua enpotratzeko erabiliko dira.

Udalak era berean, bidezkotzat jotzen badu, zabor-aretoa sartzeko atea espazio estali honetara irekitzera obligatu ahal izango du.

3. Merkataritza-lokalen soluzioak irizpide arkitektoniko orokorrak errespetatuz integratu beharko dira ondoren. Nolanahi ere, sartzeko ateak eta erakusleihoak fatxada-planotik sartuta geratuko dira gutxienez 25 zentimetro, hegalkin-lerroa zenbatu gabe.
4. Paramentu itsuak (pilastrak, dintelak eta abar) eraikinen kontzeptuarekin bat ez datozen estalki edo apaingarriekin gaineratzea debekatzen da.
5. Era berean, garajera sartzeko baoen integrazioa zaindu beharko da, fatxadaren konposizio orokorra kontuan izanik.
6. Eraikuntza baten amaieraren emaitzako merkataritza-lokalak, beren behin betiko erabilerarako gaitzen ez diren bitartean, fabrika-obrarekin itxi beharko dira gutxienez 2,50 metroko altuera arte.

7.5.5. artikulua.- fatxada-aldaketa

1. Babestu gabeko eraikinetan fatxada baten ezaugarriak adlatu ahal izango dira, multzo arkitektonikoaren emaitza homogeneoa eta mugakideekin erlazioa bermatzen duen proiektu egoki baten arabera.
2. Inolako babes-erregimenik ez duten eraikinetan, terrazen eta eguteren itxiera baimendu ahal izango da. Itxieraren eskaria goi-mailako arkitektu batek izenpetutako proiektu tekniko gaineratu beharko du, bertan fatxadaren soluzio orokor berriak barne hartuz, bai eta fatxada-unitate bat osatzen duten elementu guztietan obrari aldiberean ekiteko Jabe-komunitatearen Batzordeak hartutako erabakia ere.
3. Ez da inolako kasutan balkoi edo terrazen itxiera indibiduala baimenduko.
4. Terrazen itxiera anarkikoak egin diren eraikinetan, Udalak itxiera guztiak diseinu unitario batera egokitzea eskatu ahal izango du.

7.5.6. artikulua.- Instalazioak fatxadan

1. Hozteko, airea egokitzeke, ke-hustuketarako elementuak edo ateragailuak ez dira kanpoko fatxada-planotik 30 zentimetro baino gehiago aterako, eta ezingo du fatxadaren estetika kalteatu.
2. Bide publikotik ikus daitezkeen aire-egokitze-aparatuaren instalazioak eraikinen goitiko bistaren azterketa eskatuko du, eta fatxadaren estetika gutxien

kaltetzen duen posizioan instalatu beharko dira, eberen itxiera hautsi gabe.

7.5.7. artikulua.- Iragarkiak eta markesinak

1. Behe-oinetan bakarrik baimenduko dira, fatxadaren osotasunean ezinhibe integratuta daudenean, sarbideak eta erakusleihoak bakarrik okupatuz, eta eraikinen elementu komunak eratzen dituzten matxoi edo dintelak estali gabe.
2. Markesinen gehieneko hegalkina balkoi eta begiratokietarako baimendua baino 35 cm. gehiago nabarmendu daiteke, espaloien zabalera gainditu gabe eta espaloitik gutxienez ere 3 metroko altuerara.
3. Baimentzen diren fatxadarekiko perpendikularrak diren iragarki bakarrik honako hauek izango dira: markesinen muturretan barne hartuta daudenak, administrazio, asistentzi edo informazioarako zerbitzuak eskaintzen dituzten titulartasun publikokoak (posta, telegrafoak, telefonoak, anbulatorioak, klinikak eta antzekoak), asistentzi izaerako titulartasun pribatukoak (klinikak eta botikak), gizarte-zeregin aitortua duten titulartasun pribatukoak (Gurutze Gorria, DYA, eta abar). Aldez aurretik, instalatu behar diren errotuluak Udalak homologatu beharko ditu, jarduera-multzoen arabera eta titulartasun pribatuko jardueretan eskaintzen den zerbitzua identifikatzeko moduan, baina titularra edo gizarte-egoitza aipatu gabe.
4. Behe-oina ez diren gainontzeko oinetan instalatzen diren iragarkiak balkoietako eskubandetaraino bakarrik ipini ahal izango dira, eta inolako kasutan eraikinen hegalkin-lerro errealek hamar (10) zentimetro baino gehiago atera gabe. Letra soltearekin egingo dira, gehienez ere berrogei (40) zentimetroko altuerarekin, eta eskubandaren lerroak kokatuko dira, hauen zabalera gainditu gabe.
5. Argidunak direnean, barnean argia duen neoneko zinta edo letra soltean kaxatuta bakarrik baimenduko dira.
6. Babes-motaren bat duten eraikinetan Hamaikagarren Tituluan adierazten denari jarraituko zaio. hala eta guztiz ere, eraikin babestuetan ezingo dira ipini iragarkiak behe-oinetik gora, ekipamendu publiko edo pribatuak edo erakundearen eraikinak direnean salbu, betiere dagokion errotulua fatxadaren soluzio orokorrean barneratuta baldin bada.
7. Fatxaden paramentu itsuen gainean iragarkiak ezartzea debekatuta dago.

7.5.8. artikulua.- Mehelinak

1. Mehelin guztiek fatxadak bere azken oinetan duten tratamendu berbera izango dute.
2. Mehelinak eraiki gabeko orube batera edo lau oin baino gutxiago (behe-oina barne) dituzten eraikinak



barne hartzen dituzten orubeetara begira daudenean, eta eraiki babestuak ez badira, fatxadaren estaldura carabista adreiluarekin edo material bereko plaketarekin ordezkatu ahal izango da, Udal Zerbitzu teknikoaren lizentziako baldintzetan zehazten duten altueraraino, alboko eraikinarentzat aldatu, etxadi-motaren eta abarren arabera aurreikus daitekeen altueraren arabera, eraikinak etorkizunean utzi dezakeen mehelinak bere estaldura fatxada nagusiaren berbera izan dezan.

Betebehar hau indarrak gabe geratuko da obren exekuzioan zehar alboko orubeak exekuzio-lizentzia lortzen baldin badu.

3. Hiri-ornamenduaren arrazoiak direla-eta, Udalak mehelinak hobetzeko obrak exekutatzeko agindu ahal izango du garrantzi bisual eta estetikoaren duten espazio publiko jakin batzutan.

7.5.9. artikulua.- Mehelinak espazio publikoetara

1. Antolamendu honen emaitzaz espazio edo bide publikoetara begira dauden mehelinak fatxadatzat hartuko dira.

Udalak kasu honetan berauen erreforma baimenduko du, baoak, terrazen edo begiratokiaren edo, kasua balitz, instalazio tekniko osagarrien hegalkinak irekiz.

2. Nolanahi ere, fatxada-kategoria duten mehelinetan, bertan burutzen den edozein jarduketa (baoak irekitzea, materialak estaltzea, pintatzea eta abar) Jabeen Elkartearen Proiektu Unitarioaren bitartez burutu beharko da.
3. Burutu beharreko obrek, izaera orokorrean, arau hauetan ezarritakoa beteko dute eta, bereziki, Zazpigarren Tituluaren Laugarren Kapituluen xedapenak "Eraikuntzaren Oinaren eta Hegalkinen Baldintzak".

7.5.10. artikulua.- Begibistako mehelinen kontserbazioa

Eraikin altuenaren jabearen konturakoa izango da aldameneko eraikinaren gainetik begibistan agertzen diren mehelinak apaindu eta kontserbatzea, Arau hauek eraikin horrentzat baimendutako altuera gainditzen duen azaleran.

Aldameneko eraikuntza baten barne-patioak entregatzen direneko eraikinen mehelinak, estalita izateko zortasuna argiak patoria ateratzen dituen higiezinaren jabeen kontura izango da, bere aldeetako bat alboko mehelinak osatzen duenean.

7.5.11. artikulua.- Materialak lurzati-patioetan

Lurzati- edo argi-patioak estalita egongo dira kolore argiko material zeramiko bitrifikuarekin edo garbiketa eta kontserbaziorako baldintzarik onenak bermatzen dituen beste edozein soluziorekin.

7.5.12. artikulua.- esekitokiak

1. Arropa bide publiko edo sarbide publikoko etxadi-patoria zabaltzea debekatuta dago, bai eta espazio horietara begira dauden balkoi edo terrazetan ere.
2. Barneko argi-patioetara begira ez dauden etxebizitzak daudenean, derrigorrezkoa izango da esekitokira destinatutako lokal bat egotea, sukaldetik bananduta ate baten bidez eta iraunkorki aireztatua, bi (2) metro karratutik gorako azalera erabilgarriarekin eta 1,20 metroko gutxieneko zabalerarekin, espazio publikoetatik arropa ikus ez dadin moduan diseinatuta egongo dena. Lokal hauek aireztapen naturala izango dute eta bertan ikuzgailuak eta lehorgailuak kokatu ahal izango dira.

3. esekitokietako leihoak eta etxebizitzetako gainontzeko geletakoak berdinak izango dira, baina kristaldura aldatu ahal izango da lama orientagarrien dispositiboekin. Bi kasuetan, kristala beira edo plastiko argidunekoak izango da. ez da inola ere zeramikazko saretarekin edo antzeko materialekin egingo.

baoaren %20 beti irekita egongo da, ixteko aukerarik gabe, esekitokiaren aireztapen egokia lortzeko helburuarekin.

7.5.13. artikulua.- Finken itxierak

1. Orube guztiak itxiera iraunkorren bidez hesitu beharko dira, hauek lerrokatadura ofizialean kokatuko dira eta 2 eta 3 metro bitarteko altuera izango dute, beren egonkortasuna eta egoera ona bermatzen duten materialekin fabrikatuta.
2. Lurzatietatik bide edo espazio publikoetarako itxiera elementu itsuekin egin beharko da, 50 zentimetroko gehieneko altuerarekin, eta ahal dagokionean lekuarekin estetikoki erabat adostuta dauden babesekin, bi metroko gehieneko altuera arte.

7.5.14. artikulua.- Estetika-baldintzak instalazio elektrikoetarako

Oin berriko eraiki batera lotetsitako horma guztiak mota guztietako harietria elektrikoetatik libre geratuko dira, behe- nahiz goi-tentsioak izan, eta hariteria horiek ordekatu edo erretiratu egin beharko dira eraikuntza-obrarekin batera exekutatu behar diren urbanizazio-obrekin aldeberean.

Eraikinerako hartunea lurrazpitik egingo da, eta kanalizazioa fusibleen kaxaraino paramentuan enpotratuta geratu beharko da, bai eta elikadura ere honetatik kontagailu-bateriara arte ere. Fusibleen kaxa enpotratuta geratuko bere osotasunean, eta begibistan eta erregistratzeko moduan kaxa horren aurrealdea bakarrik geratuko da fatxadarena ez den plano batean (adibidez, ezkaratzeko zaguaren alboetako fatxadetan).



7.5.15. artikulua.- Gas-instalazioetarako baldintza estetikoak

Eraikinetan gas naturala instalatzeko proiektuak, hurrengo irizpideetara doitu beharko dira:

1. Eraikin berriak. Eraikin hauetan, zenbakailuen gela nahitaez kokatuko da gainaldean, egiaztatuz, lizentziaren eskariari erantsiko zaizkion perspektiba eta kolorezko xehetasunaren bidez, eraikinaren errematean dauden gainerako elementuekin (teilatuko faldoiak, igogailuen makineria-gela, aireztatzeko tximiniak, e.a.) egokitzea.
- Arautzeko armairua paramentuan geratuko da enpotratua, ahal delarik, fatxadaz beste plano batera (adibidez, atariko bebaruko aldameneko hormetan).
 - Arautzeko armairutik zenbakailuen bateriarainoko hoditeria, bistakoa eta sakondua izan beharko du, hau da, fatxadako planotik irten gabea eta horrekin kolorez egokitua.
 - Altxatueta, hoditeria hau islatuko da eta, txostenean, tratamendu hautatua azalduko da, bere diseinuan integratua den (zorrotenekin batera) fatxadako beste elementu bat gehiago modura ulertu behar izanik.
 - Etxebizitza edo lokaletara elikatze hoderiak nahitaez instalatuko dira, esekitegiak edo etenik gabe aireztaturik dauden beste lokalak zeharkatuz, nola eta bide publikotik haien ikuspegia ezkutatze eran.
2. Bertan diren eraikinak. Ezkutu ezin diren hoderiak, fatxadaren moduko kolorez margotuko dira eta burdinurtuzko hodiostalki bat izango dute Basauriko ezkutuarekin. Ahaleginak egingo dira zenbakailuen gela gainaldean edo gainaldearen azpian kokatzeko.

SEIGARREN KAPITULUA: EGUZKI-ENERGIA ERAKARRI ETA APROBETXATZEKO SISTEMEN INSTALAZIOA

7.6.1 artikulua.—Definizioa

Basauriko udal mugartean kokatuak izan eta kapitulu honetan ezarri diren baldintzak betetzen dituzten eraikinak beharturik daude tenperatura baxuko eguzki-energia aktiboa erakarri eta erabiltzeko sistemak jartzera, osasuneko eta igerilekuak berotzeko ur beroa ekoizteko.

7.6.2 artikulua.—Eraikuntza eta etxe afektatuak

1. Eguzki instalazio termikoak proiektatu eta egin behar izatea, hurrengo inguruabarrak denak batera betetzen diren eraikuntza eta etxeetara da aplikagarria:
 - Eraikin berri, ordezte, berritze edo birgaitze

integraleko obrak, edo eraikinaren osotasunean erabileren aldaketak izatea, bai titulartasun publikoko zein titulartasun pribatuko higiezinetan. Balizko honetan sartzen dira, partzela beraren barruan, aparteko eraikin bat eraikitzea suposatzen duten handitzeko obrak.

- Berritze edo birgaitze integrala da, eraikin osoaren hustuketa, fatxadak bakarrik mantenduz.
 - Eraikuntzaren erabilera, hurrengo artikuluan aurreikusitakoen arteko batekin egokitzea.
2. Zehaztapen hauek nahitaez aplikatzekoak izango dira igerileku eraiki berrientzat eta baita ere, bertan lehendik izanik, berrikuspen hau indarrean jarri den dataz geroztik ur beroaz girotzea nahi direnentzat.
 3. Artikulu honetan inposatua ez den osasuneko ur berorako eguzki-energiaren hargailuak ezartzea, aplikagarriak zaizkion beronen baldintzen bidez arautuko da.

7.6.3 artikulua.—Erabilera afektatuak

1. Osasuneko ur beroa berotzeko tenperatura baxuko eguzki energia aktiboa erakarri eta erabiltzeko sistemak jartzeagatik erabilera afektatuak, jarraian zerrendatuak dira, noiz eta horietan aurreikusten den osasuneko ur beroaren kontsumoa urteko batez besteko 1.750 litro egunekoa (292 megajulioko urteko energiako kontsumo bati dagokiona) baino handiagoa denean:
 - Ekipamendua bere kategoria guztietan.
 - Tertiarioa bere kategoria guztietan.
 - Egoitzazkoa hurrengo kategorietan:
 - Etxebizitza kolektiboa, 15 etxebizitzatik gorakoa denean.
 - Familia bakarreko etxebizitza, bikoitza edo 10 etxebizitzatik gorako multzo arkitektonikoetan atxikia.
 - Komunitateko egoitza eta hotelekoa, 40 plazatik gorako kapazitatea duenean.
 - Osasuneko ur beroaren erabilera suposatzen duten industriako edo ekoizteko jarduerak.
 - Osasuneko ur beroaren erabilera suposatzen duen beste edozein erabilera.
2. Igerilekuak berotzea, bai estaliak zein aire zabalekoak direla, beti ere 100 m³-tik gorako bolumena eduki eta eguzki-instalazioaren ekarpen energetikoa %60koa gutxienez bada igerileku estalietan.

7.6.4 artikulua.—Beste baldintzak

Kapitulu honetan xedatu diren zehaztapenen aplikazioa



BASAURIKO EGITAMU OROKORRA PLAN GENERAL DE BASAURI

arautzeko, eraikuntzetan eguzki-energia hartzea eta aprobetxatzea arautzen duen udal ordenantzan xedatura joko da.



ZORTZIGARREN TITULUA: AREETAKO ORDENANTZA PARTIKULARRAK

XEDAPEN OROKORRAK

8.0.1. artikulua.- Aldeko ordenantzak

Aldeko ordenantzak baldintza bereziak dira, seigarren eta zazpigarren tituluetan ezarri diren orokorrekin batera, lurzorua, eraikinak eta instalazioak bete behar dituzten zehaztapenak arautzen dituztenak, horien kokapenaren arabera.

8.0.2. artikulua.- Ordenantzaren eremuak

Plan orokorrak, aldeko ordenantzako eremu batzuk ezarri ditu, hiriko lurzoruan banaketa-area batekin edo batzuekin bat datozenak, zeintzuen mugaketa grafikoa dagokien planoan dagoela

LEHEN KAPITULUA: AREETAKO ORDENANTZAK

8.1.1. artikulua.- Ariz-Benta (A) aldeko ordenantza

1. ALDEAREN DATU OROKORRAK

Izena A - Ariz Benta
Erabilera globala eta kalifikazioa Egoitzazkoa
Aldearen azalera
(Sistema orokorrak kenduta) 405.523 m².

2. ERABILERA ARAUBIDEA

Erabilera nagusia:

5.2. Etxebizitza kolektiboa

Erabilera baimenduak:

2. Komunikazioak bere kategoria guztietan
3. Azpiegiturak bere kategoria guztietan
4. Ekipamenduak bere kategoria guztietan
5. Egoitzazkoa bere kategoria guztietan
6. Tertziarioa bere kategoria guztietan
- 7.1.1. Etxebizitzaren barruan onartutako industria
- 7.1.2. Etxebizitzarekin bateragarria den industria
- 7.2. Etxebizitzarekin bateragarria den biltegia
8. Espazio askeak bere kategoria guztietan

Erabilera debekatuak:

1. Lehen arloko jarduerak bere kategoria guztietan
- 7.1.3. Etxebizitzarekin bateraezina den industria
- 7.1.4. Beste industriak
- 7.3. Etxebizitzarekin bateraezina den biltegia

3. HAZTAPEN ERLATIBOZKO KOEFIZIENTEAK

Sotoko solairua - Edozein erabilera 0,00
Egoitzazko-erabilera (bereizgarria): Edozein solairu .. 1,00
BOE-ren erabilera: Edozein solairu 0,90
Ekipamendu Pribatuaren Erabilera: Edozein solairu .. 0,80
Gainerako Erabilerak: Beheko solairua 1,20

Gainerako Erabilerak: Goiko solairuak 1,00

4. HIRIGINTZAKO-BALDINTZAK

Ereduzko aprobetxamendua 2,16 m²/m².

5. ERAIKUNTZAREN BALDINTZAK

Partzela garbi eraikigarriaren gutxienezko partzela 150 m².

Gutxienezko zabalera 8 m.

Gehienezko okupazioa 100%

Eraikuntzaren hegalerako gehienezko altuera,

metroetan:

Dokumentazio grafikoan adierazi den solairuen

gehienezko kopuruaren ondoriozkoa

Eraikuntzaren gehienezko altuera, solairuen kopuruan:

Dokumentazio grafikoan adierazia.

Mugakideetara arteko tarteak:

Dokumentazio grafikoan adierazia

Bideetara arteko distantzia:

Dokumentazio grafikoan adierazia

Eraikinen arteko tarteak:

Dokumentazio grafikoan adierazia

6. JARDUKETAK EGIKARITZEA

— Sistemaz kanpoko jarduketak bidezko garapena, jarraian dauden egikaritzeko unitateetan izan ezik:

U.E.	Azalera m ²	Azal. Beh. Solairua	Azal. Goi. solairua	Eraikig. Geometrikoa (m ²)	Etxebizitza Kopurua
21	2.636	1.196	6.965	8.161	82
22	508	260	1300	1.560	18
23	985	358	1.790	2.148	24
24	1662	408	2.448	2.856	29

— Egikaritzeko unitateetan sartu gabeko sistemaz kanpoko jarduketak:

ERAIKINA	AZAL. BEH. SOL.	AZAL. GOI. SOL.	AZAL. GUZTIRA	ETXEB. .KOP.
A2	122	610	732	7
A4	431	1.293	1.724	14
A5	300	2.100	2.400	22
A6	373	1.865	2.238	20
A7	493	2.465	2.958	26
A8	73	365	438	5
A9	347	1.388	1.735	16
A10	245	1.225	1.470	14
A11 ¹	490	6.111	6.601	54

(2007/09/06 Osoko bilkuran)

¹ 2012/09/27 Osoko bilkuran



8.1.2. artikulua.- Kalero-Basozelai (B) Aldeko Ordenantza

1. ALDEAREN DATU OROKORRAK
Izena B - Kalero Basozelai
Erabilera globala eta kalifikazioa Egoitzazkoa
Aldearen azalera
(Sistema Orokorrak kenduta) 375.031 m².
2. ERABILEREN ARAUBIDEA
Erabilera bereizgarria:
5.2. Etxebizitza kolektiboa
Erabilera baimenduak:
2. Komunikazioak bere kategoria guztietan
3. Azpiegiturak bere kategoria guztietan
4. Ekipamenduak bere kategoria guztietan
5. Egoitzazkoa bere kategoria guztietan
6. Terziarioa bere kategoria guztietan
7.1.1. Etxebizitzaren barruan onartutako industria
7.1.2. Etxebizitzarekin bateragarria den industria
7.2. Etxebizitzarekin bateragarria den biltegia
8. Espazio askeak bere kategoria guztietan
Erabilera debekatuak:
1. Oinarrizko jarduerak bere kategoria guztietan
7.1.3. Etxebizitzarekin bateraezina den industria
7.1.4. Beste industriak
7.3. Etxebizitzarekin bateraezina den biltegia
3. PONDERAZIO ERLATIBOKO KOEFIZIENTEAK
Sotoko solairua - Edozein erabilera 0,00
Egoitzazko erabilera (bereizgarria): Edozein solairu . 1,00
BOE-ren erabilera: Edozein solairu 0,90
Ekipamendu Pribatuaren Erabilera: Edozein solairu .. 0,80
Gainerako Erabilerak: Beheko-solairua 1,20
Gainerako Erabilerak: Goiko solairuak 1,00
4. HIRIGINTZAKO BALDINTZAK
Ereduzko aprobetxamendua 1,722 m²/m².
5. ERAIKUNTZAREN BALDINTZAK:
Partzela garbi erikigriaren gutxieneko partzela 150 m².
Gutxieneko zabalera 8 m.
Gehienezko okupazioa 100%
Eraikuntzaren hegalerako gehienezko altuera,
metrotan:
Dokumentazio grafikoan adierazten den solairuaren
gehienezko kopuruaren emaitzazkoa
Eraikuntzaren gehienezko altuera, solairuen kopuruan:
Dokumentazio grafikoan adierazia
Mugakideetara arteko tartea:
Dokumentazio grafikoan adierazia
Bideetara arteko tartea:
Dokumentazio grafikoan adierazia
Eraikinen arteko tartea:
Dokumentazio grafikoan adierazia
6. JARDUKETAK EGIKARITZEA
— Sistemaz kanpoko jarduketak bidezko garapena,
jarraian dauden egikaritzeko unitateetan izan ezik:

U. E.	AZALERA. m ² .	AZAL.BEH SOLAIRUA	AZAL.GOI. SOLAIRUA	ERIKIG. GEOMETRIKOA (m ²)	ETXEBIZITZA KOPURUA
00	2.172	748	2.992	3.740	32
01	2.366	664	3.320	3.985	38
02	1.416	341	1.947	2.288	24
03	1.274	402	2.010	2.412	24
04	1.800	666	2.434	3.100	30
05	787	304	1.520	1.824	18
06.1	310,50	204,90	1.056,82	1.261,71	11
06.2	285,89	135,55	598,73	734,28	9
07	2.294	713	3.237	3.950	44
08 ⁽¹⁾	2.213	849	2827	3676	29
09	924	457	1.371	1.828	19
10	397	225	675	900	10
11	294	171	513	684	10
12	1.966	1044	3.132	4.176	48
15	1.183	310	1.240	1.550	18
16	1.531	404	1.273	1.677	19
17	347	311	933	1.244	14
